

Zu hemen zaude.

goiena



ARABAKO TXAPELA JOKOAN

Domekan hasiko da 2024ko Arabako Bertsolari Txapelketa, Izarran; lehian ariko diren hamazortzi bertsolarietatik zazpi aramaioarrak dira / 34

- ASIER OTAMENDI ALKORTA
- DANIEL HERRARTE MAFARRATE ARAMAIO
- EKAITZ SAMANIEGO GURIEL
- MANEX AGIRRE ARRIOLABENGOA ARAMAIO
- ELI ZALDUA BARQUIN
- FELIPE ZELAIETA TXURRUKA
- PERU ABARRATEGI SARRIONANDIA ARAMAIO
- INAKI VINASPRE SIMON
- IZAR MENDIGUREN GOSGAYA
- PAULA AMILBURU IZABARRAI ARAMAIO
- MADDI AGIRRE EPELDE
- MARTIN SARRIONANDIA ARAMAIO
- ORLANDO ARREITUNANDIA ARINAS
- RIKARDO GONZALEZ DE DURANA ALZOLA
- XABI IGOLA ERIZ ARAMAIO
- UNAI ANDA DELIKA
- AROA ARIZUBIETA BARREDO
- ATOR ERIZ ARAMAIO

Eider Mendoza: "Legealdi honetan bukatuko dugu Bergara eta Antzuola arteko bidegorria" / 2

Energiaren gaineko komunitateak sustatzeko bulegoa sortu du Debagoiena 2030 ekimenak / 4

'Diamante' borrokalariak zapatuan egingo du berragerpena Uarkapen, boxeoan / 32

SINADURAK

 PATXI OLABARRIA IRIZAR / 8	 ANA CARPINTERO / 22
 ANE SANCHEZ ZEZAGA / 11	 IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA / 25
 MIKEL BAIAIN / 40	

puntuak + 

Bihurguneak zuzendu dituztelakoan
 Amaia Albes moda diseinatzaileari elkarrizketa

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE

2023ko ekaina ezkerro da Eider Mendoza (Azpeitia, 1974) Gipuzkoako diputatu nagusi, eta GOIENAK elkarrizketa egin dio telebistako platoon, urte erdiaren balorazioa eta agintaldi honetako erronkak hizpide hartuta.

Lehen emakumea zara diputatu nagusi karguan. Zer ekarri du horrek eta nola daramazu?

Lehen diputatu nagusi emakumezkoa 2023an izendatzea bada zerbait. Esan nahi dut urte askotako atzerapena daramagula gizarte bezala. Eider Mendoza izatea lehen diputatu nagusi emakumezkoa zirkunstantziala da; emakumezko bat izateak benetako garrantzia dauka.

Foru Gobernu berriak ez du bere lehen aurrekontua aurrera atera.

Adostasun faltak oposizioko alderdiekin izan ditzakezen harremanen nolokotasuna erakusten du?

Elkarrizketak hastean, beste alderdi politikoeekin adostasunera iristeko helburua genuen eta hasieran ikusten genituen aukerak denekin aurrera ateratzeko. Denborak aurrera egin zuen heinean, hauteskunde giroak erabat kutsatu zuen kontua eta ikusi genuen ezinezkoa izango zela aurrekontua aurrera ateratzea. Horrek ez du baldintzatuko etorkizuna, guk jarraituko dugu beste alderdi politikoeekin hizketan eta harremanak sendotzen. Denon esku dago gipuzkoarron ongizatea hobetzea eta ditugun erronkei aurre egitea. Egokitzapen batzuk egin beharko ditugu, baina oso aurrekontu ona da ditugun beharrei aurre egiteko eta erronka horiei ere eusteko.

Erronka sozialean pertsonen zaintzari garrantzi handiagoa emateko apustua berretsi duzue, lankidetzako publiko komunitarioaren sistema indartuz.

Guk beti esaten dugu Gipuzkoan daukagun sistema aitzindaria dela eta eredu dela Europan, ekimen sozialean oinarritutako zerbitzua eskaintzen dugulako. Badauzkagu hirugarren sektoreko irabazi asmorik gabeko hainbat eragile. Haiek hasi zuten ibilbidea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (GFA), eta batera eskaintzen ditugu zerbitzuak. Pentsatzen dugu badaukagula erronka zerbitzu hori gero eta pertsonalizatuagoa izan eta etxean bezala egoteko. Erronka horren adibide da Pasaian sortuko den Adinberri egoitza. Han



Eider Mendoza, astelehenean, Goiena telebistako platoon. XABIER URZELAI

"Ibarreko garraio publikoaren arazoei konponbideak eman zaizkie"

EIDER MENDOZA GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Urte erdia pasa da Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusi izendatu zutenetik; orain artekoa errebasatu eta datozen erronkei buruz hitz egin du GOIENArekin

sortuko dira berrikuntza, ikerketa nahiz ezagutza, eta guztia lurralde osora hedatuko da. Sortuko eta birmoldatuko ditugun egoitzak eredu berrian oinarrituko dira. Arrasateko Iturribide eta Oñatiko San Martin egoitzetan lanean ari gara eredu berrietara egokitzeko egoitzak. **Zertan igarriko da aldaketa?**

Gelak askotan bakarkakoak izango dira. Konpartituak izan daitezke, baldin eta horretarako gogoia baldin badu egoiliarrek. Askoz ere pertsonalizatuagoak izango dira. Zure altzariak izan ditzakezu, adibidez. Aurreko

batean, Zarauzko Santa Ana egoitzan egon ginen, eta han nabarmena zen espazio indibidualak sortzeaz gain, espazio partekatua ere badaudela; esaterako, familiarekin urtebetez ospatzeko. Komunitatearekin lotura sortzen da: herrian bertan egonda, plazan egonda, haurrak etorrita bertara...

Alderdi ekonomikoari dagokionez, zein da Zubietan egingo den Mugikortasun Berriko Mubil zentroaren egiteko nagusia?

Mubil estrategia martxan da, Tolosan; orain, Zubietan egoitza berria edukiko dugu. Ikusten

genuena zen gure BPG (PIB) industrialean pisu handia zuela automozioak eta bazeudela enpresa txiki eta ertain asko ez zeukatenak inolako gaitasunik bakarka estrategia berrietara egokitzeko. Mugikortasun berria dago, adimentsua, eta gure sektorea horretara egokitu beharra zegoen. Berrikuntza handia gertatuko da, han izango dute gaitasuna enpresa horiek gauza berriak testatzeko, gainontze-koekin elkarlana sortzeko... Han dagoen azpiegitura Europa osoko hegoaldean ez dago. Azpiegitura hori Gipuzkoan bakarrik

dago. Gure herriari arnasa handia emango dio, eta aukera punta-puntan kokatzeko.

Enpresa txikiei, ertainei, handiei, autonomoei... nola lagunduko diezue?

Badugu erronka enpresa munduari laguntzeko, ahal dugun neurrian, modernoa izateko, berrikuntzan oinarritzeko... Debagoiena horretan eredugarria da. Aurrekontuak ez ditugu onartu, baina ikusten genuen beharrezkoa genuela une honetan autonomo nahiz enpresa txiki eta ertainei, baserriarrei... laguntza ematea, eta hor dekretu foru arau bat onartu dugu gure Gobernu Kontseiluan, eta otsailean eramango dugu Batzar Nagusietara. Zertarako? Hurrengo errenta kanpaina laguntzak eduki ditzaten. Baita familiek ere. Jarri dizudan adibidea da fiskalitatearena, hori delako gure eskumen handienetako bat. **Euskararen aurkako oldarraldiari kalean eman dakiokkeen erantzunetik harago, zer gehiago egin beharko litzateke?**

Epaitegietako erantzunak eta erabakiak ez ditugu ulertzen, konpartitzen... Kontra gaude; gure eskubideen kontra joaten dira erabat. Hemen badago adostasun oso zabala alderdi politikoz guztien artean, eta horietan oinarritzen dira legeak euskara defendatzeko eta sustatzeko. Badago lanketa sakon bat erakunde guztien eta euskararen inguruko eragileen artean gure hizkuntza defendatzeko. Geratzen zaiguna da benetako militantzia gutako bakoitzari; euskararen ezagutza-maila handia da, eta erabilera ez da igo neurri berean, baina gutako bakoitzak badu zeregina euskara sendotzeko eta erabilera asko igotzeko.

Debagoienean garraio publikoa kezka iturri da. Ze neurri hartuko ditu Aldundiak?

Lanketa handia egin da GFaren eta Debagoieneko alkateen artean. Azahara Dominguez diputatuak harreman estuak izan ditu alkateekin hasieratik. Hemengo arazoei konponbideak eman zaizkie: ikuskaritza kontrola erabatekoa izan da eta gaur egun eskaintzen den zerbitzuan esan dezakegu zeuden arazo haiek gainditu direla. Egun egon daitezkeen arazoak parekatu daitezke lurraldean egon daitezkeen arazoekin. Alkateek ere hala adierazi diote Mugikortasun diputatuari izan duten azken

Mendoza, Bidean Heziketa Zentro Okupazionalan

Arrasateko Kataide industrialdean dagoen Bidean Heziketa Zentro Okupazionala bisitatu zuen astelehen eguerdian Eider Mendozak, Zainketetako eta Gizarte Politikako diputatu Maite Peñarekin eta Bide Azpiegituretako diputatu Maria Ubarretxenarekin batera. Zentroan egiten duten lana ezagutu eta erabiltzaileen testigantzak entzun zituzten.

Lan "ordainezina"

Han egiten duten lana goraiatu zuen Mendozak: "Erabiltzaile ia guztiak etorkinak dira, eta, lanerako bidean jartzeko dituzten zailtasun guztiak kontuan hartuta, bertako langileek zein



Mendoza, Peña eta Ubarretxena astelehenean Arrasaten. GOIENA

boluntarioek sekulako lana egiten dute pertsona haiei behar duten arreta eman, zerbitzua eskaini eta ateak irekitzen laguntzeko. Egiten duten lana ordainezina da; gure gizartearen etorkinak beharrezkoak

ditugun arren, zailtasun asko dauzkate, eta badaude gipuzkoarrak haiei laguntzen dietenak. Haiei esker ona eta elkarlanean jarraitzeko asmoa adierazi nahi diet".

bileran. Gainean egon gara arazo berri izan genuenean zerbitzua hobetzeko, autobusak berritzeko, zalantzaren bat balego zuzenean deitzeko GFARA...

Bergara eta Antzuola arteko bidegorri zatia noizko aurreikusten duzue prest izatea?

400 kilometro ditugu gaur egun Gipuzkoako bidegorri sarean. Beste 200 kilometro egitekoak gara. Mapa osatuta dugu eta mapa horretan lehentasunak ezarrita daude, eta horren arabera inbertsioak egiten. Bergara eta Antzuola artekoak egitekoak gara legealdi honetan.

Eskoriatza eta Araba artekoak, Antzuola eta Zumarraga... Ze lehentasun-maila dute?

Eskoriatza eta Araba lotzen dituen eskaera garrantzitsua da, baina hamazazpi kilometroko bidegorria izango litzateke eta hamabi tunel birgaitzea eskatzen du. Inbertsio ikaragarria da. Antzuola Zumarragarekin lotzea ere geroago etorriko litzateke.

Turismoaren Mundu Erakundeak 2023ko herri turistiko onenaren saria eman zion Oñatiri. Hori da eredia turistak barrualdera erakartzeko?

Oso harro sentitu gera izendapen horrekin. Hori bada eredia. Askotan esaten dugu Gipuzkoa oso erakargarria dela, eta ez soilik Donostia. Turismoa egonkortzeko eta orekatzeko, lurralde osora hedatu behar dugu. Erakargarria da gure lurraldea

gure kulturagatik, hizkuntzagatik, ereduarengatik eta jendea erakartzeko gaitasunagatik.

Datozen lau urteetarako baduzue inbertsiorik aurreikusita bailaran?

Eraso matxista edo indarkeria jasan duten emakumeei bideratutako zentroa irekiko dugu Arrasaten datozen hilabeteetan. Erantzun integralak emango dizkie emakumeei eta senideei zerbitzuak: erantzun psikologikoa, behar dituzten baliabideak...

Nola babestuko duzue lehen sektorea eta belaunaldi erreleboa?

"LEHEN DIPUTATU NAGUSI

EMAKUMEZKOA 2023AN IZENDATZEA BADA ZERBAIT"

"INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEI BIDERATUTAKO ZENTROA ARRASATEN IREKIKO DUGU"

"LEGEALDI HONETAN EGINGO DUGU BERGARA ETA ANTZUOLA ARTEKO BIDEGORRIA"

Legealdi honetan ere sortu dugu departamentu berri bat lehen sektoretik gertuago egon edo gehiago ikusarazteko. Nik uste dut hori ere lortu dugula. Gertu egon gara, ikusi dugu nola eltxoen bidez behi asko eta asko gaixotu eta hil egin direla. GFAk hasieratik elkarlanean oinarrituta izan zuen kontaktua abeltzainekin, eta dirulaguntzak gehitu genituen. Lehen sektorean ere badugu basogintzaren esparrua. Gure lurraldean %61 basoa da, eta Basotik Fundazioa sortu dugu baso haien jabetza dutenei zerbitzua eskaintzeko. Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako EAJren hautagaia Imanol Pradales da. Zer esan dezakezu hari buruz?

Ezaugarri oso onak ditu lehen-dakari izateko, baldin eta gure herritarrek botoa ematen badiote. Herriarekiko atxikimendua, maitasuna eta leialtasun ikaragarria dauka. Bere burua herriaren zerbitzura jartzeko prest dago, jakinda horrek ze konpromiso eta sakrifizio pertsonal eta familiarra eskatzen duen.

Lehia estua ikusten duzue?

Demokraziak ez digu inolako beldurrik ematen. Herritarren alde lan egiten dugu egunero, gure onena eskaintzeko lurraldeari eta herriari. Ez dugu lehia bezala ikusten, baizik eta ariketa demokratiko bezala. Herritarrei eskatzen diet botoa ematera joateko.

Hartzaren Urratsa ibilbidea aurkeztu dute Fitur azokan

Espainiako Estatuko Turismo Agentziaren Helmuga Turistiko Adimenduaren zigilua ere jaso du Debagoienak

I.A.A. ARRASATE

Madrilgo Fitur azokan standa jarri du Debagoieneko Mankomunitateak, Basquetour gunean, eta bertaratzen direnek bailarako turismo eta kultura eskaintzaren informazioa jasoko dute domekara arte. Horrekin batera, egunean GR-289 Hartzaren Urratsa ibilbidea aurkeztu zuten Azahara Dominguez Gipuzkoako Turismo diputatuak, Angel Mari Etxabe Mankomunitateko Garapen Ekonomikoko eta Turismo batzordeko ordezkari politikoak eta Urdin Elortza Gipuzkoako Mendi Federazioko teknikariak. "Natura, kultura eta turismo baliabideak jasotzen dituen ibilbidea aurkeztu dugu", azaldu dute Mankomunitateak. Ondoren, Espainiako Estatuko Turismo Agentziaren (SEGITTUR) Helmuga Turistiko Adimenduaren zigilua jaso zuten.



Elortza, Hartzaren Urratsa aurkezten. D.M.

Mankomunitateko teknikariak ere Madrilan daude, eta, haien esanetan, esperientzia polita ari da izaten: "Aurten, Debagoienari egokitu zaio, eta bailara promozionatzeko, ezagutzeko eta kontaktatuak egiteko modu bat da azokan egotea".

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

HO E

ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

Otsailaren 1etik 7ra 13:00ak arte

MATRIKULA LIBREA

BERRITASUNA!!

EUSKARA C1 MAILA

36'18 €

Argibide gehiago:

www.eoieibarheo.hezkuntza.net

**ENGLISH
EUSKARA
DEUTSCH
FRANÇAIS**

943 899275

eoieibarheo@gmail.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Energiaren Puntuaren aurkezpena, eguaztenean, Elgetan. M.A

Energiaren Puntua sortu du D2030ek, energia-komunitateak sustatzeko

Energia-komunitateen inguruan herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko eta sortzen ari diren komunitateei sostengua eta bide-laguntza eskaintzeko sortu dute bulegoa; hala, 'energiarenpuntua.eus' webguneak dakar proiektuaren gaineko informazioa

Miren Arregi Amasorrain ELGETA
Energia-komunitateak sustatuko dituen bulegoa sortu du Debagoiena 2030 ekimenak. Elgetan aurkeztu dute, asteon, bulego berria, energia-komunitateetako –Elgeta, Bergara, Leintz Bailarako Ekiola, Otxandio, Elorrio eta Errenteria–, eskualdeko udaletako, Debagoieneko Mankomunitateko eta energiaren inguruan lanean ari diren hainbat eragiletako ordezkariekin batera; tartean, Ekitermik, Goiener, H-Enea eta MGEP.

Energiaren bulegoak energia-komunitateen sustapenera bideratutako informazioa eta bide-laguntza eskainiko du. Proiektua garatzeko, Next Generation eta IDAeren laguntzak jaso ditu ekimenak.

Hainbat lan-ildo

Bulegoak hainbat lan-ildo izango ditu. Lehenengoa, online-bulegoa da, dagoeneko martxan dagoena; energiarenpuntua.eus webgunearen bitartez, herritarrek izan ditzaketen galderak

eta zalantzak erantzun dira eta energia-komunitate berriei osaketa prozesuan lagunduko zaie. Beste lan-ildo bat Labortegia deiturikoa izango da, energia-komunitateen inguruan lanean ari diren eragileei bideratutako ekimena; informazioa partekatzeko gunea izango da. Hirugarrena, Ernemuina deritzona, energia-komunitateen ordezkariak osatua da; beharrak identifikatu, soluzioak irudikatu eta elkarrekin erantzunak emateko gunea izango da. Elgeta, Bergara, Leintz Bailarako Ekiola, Otxandio, Elorrio eta Errenteriako komunitate energetikoei osatzen dute, baita Eskoriatzan energia-komunitatea lantzen dabilen taldeko kideek ere. Goiener, Mondragon Unibertsitatea eta D2030eko

INFORMAZIOA, BIDE-LAGUNTZA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HALAKO ILDOAK LANDUKO DITU

kideak ere badira Ernemuinaren parte. Azkenik, dibulgaziora eta ahalduntzera zuzendutako lan-ildoarekin, sentsibilizazioa eta herritarren ahalduntzera bideratutako ekintzak jarriko dira martxan.

'Eraginez piztu'-ren baitan

Energiaren bulegoa Debagoiena 2030 ekimenak 2020an abiatu zuen *Eraginez piztu* estrategia-ri ekarpena egitera dator. *Eraginez piztu*-rekin, Debagoieneko energia-trantsizioa sustatzea da helburua, eta haren baitan hainbat proiektu garatu dira urte hauetan, Debagoieneko 50 eragile baino gehiagoren parte-hartzearekin. Orain, energia-komunitateen sustapenerako bulegoa gehitu da proiektura.

Lehen lerroko erronka

Debagoiena 2030 ekimenak energia-ereduan jarria du arreta; izan ere, klima larrialdia eragiten duten faktoreen artean, hura da lehentasuneko: "Erregai fosiletatik dator kontsumitzen dugun energiaren

zatiirik handiena, eta datozen urteetan kontsumitzen dugun energia murriztea eta erabili-duguna berriztagarria izatea da helburua. Erronka horri erantzuteko tokiko energia-komunitateek funtzio zentrala bete dezaketela sinistuta gaude", azaldu du D2030 ekimeneko koordinatzaile Elena Herrartek.

Alde horretatik, D2030eko energiaren eremuko koordinatzaile Aritz Ameztetik "lehenbizikoz herritarrek beraien energiaren ardura hartzeko duten aukeran" jarri du arreta, eta nabarmendu du "herrien eta auzoen garapena eta herritarren parte-hartzea bultzatu gura badira energia-komunitateak direla bidea".

Debagoiena martxan da

Debagoiena duela hiru urte hasi zen energia-komunitateen inguruan lanean eta gaur egun hiru energia-komunitate daude eratuta: Elgetako Ixotzen, Bergarako Berener eta Leintz Bailara osoa hartzen duen Ekiola. Horiez gain, badira beste hiruzpalau energia-komunitate sortze bidean –Eskoriatzan dagoeneko eratuta dago energia-komunitatea martxan jartzeko sortutako talde eragilea–, eta, beraz, datozen urteetan Debagoieneko energia berriztagarrien sorkuntza handituz joango dela dirudi.

TOKIKO ENERGIA-KOMUNITATEEK FUNTZIO ZENTRALA BETEKO DUTELA USTE DU D2030EK

Dagoeneko bidea hasi duten energia-komunitateek positibotzat jo dute Energiaren Puntua bulegoaren sorrera, komunitateen arteko lankidetzan ekarpena egitera datorrela iritzita. Honela mintzatu da Enaitz Ezpeleta, Ixotzen energia-komunitateko kidea, gaiaz galdetuta: "Oso positiboki baloratzen dugu; orain arte ere egon da lankidetzaren eskualdeko energia-komunitateen artean, baina honek ematen dio forma edo egitura osatuagoa, elkarlan hori benetakoa izan dadin. Sortzen ari garen bide bat da energia-komunitateena, eta informazio banaketa hori ezinbestekoa da. Gainera, herritarrendako zerbitzuak ere eskainiko ditu zuzenean".

Bideko zailtasunak

Izan ere, bidea ez da erraza izaten ari, "energia-komunitateen eremua eraikitzen ari den eremua delako eta oztupoak sortzen direlako bidean", azaldu du Ameztetik. Lehen zailtasuna bideragarritasun ekonomikoa da: "Komunitate txikiak izango dira gehienak, proiektu berriak garatzeko ahalmen gutxi izango dutenak. Ez badira elkartzen eta eskalako ekonomia lantzen hasten, kosta egingo da". Zailtasun eta oztupo horiek gaintzen laguntzeko sortu da Energiaren Puntua bulegoa. "Laguntzeko gunea, elkartzeko puntua bezala irudikatzen duguna", dio Ameztetik. "Energiaren trantsizioari behetik gorako bultzada eskainiko zaio bulegoarekin", erantsi du Elena Herrartek, "herritarrei eta tokitik sortzen ari diren antolamenduei laguntza eskaintzeko sortu baita".

ANTZUOLA

INFORMAZIO ZUZENA ESKOLAN BERTAN

ANGIOZAR

INFORMAZIO ZUZENA ESKOLAN BERTAN

ARAMAIO

INFORMAZIO ZUZENA ESKOLAN BERTAN

945 18 71 57, aramaioeskola@aramaioeskola.eus

ELGETA

INFORMAZIO ZUZENA ESKOLAN BERTAN

943 89 91 36, zuzendaritza@elgetakoeskola.net

ESKORIATZA

LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

Otsailak 1, 17:30 ATEAK ZABALIK

(Heur Hezkuntzako eraikinean)

Eskolako lido pedagogikoaren aurkezpena eta bisita gidatua egingo da.

Beste egun baterako hitzordua eskatzeko:

943 89 91 94 edo eskola@luissezeiza.eus

ARETXABALETA

KURTZEBARRI ESKOLA:

Otsailak 3, goizez ATEAK ZABALIK

Bisita gidatuak, urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra.

Hitzordua eskatzeko:

zuzendaritza@kurtzebarri.eus edo 943 89 91 46

KURTZEBARRI INSTITUTUA:

Otsailak 1, 18:00, ATEAK ZABALIK

(Arkupeko Zarala aretoan)

ARRASATE

ARRASATE HERRI ESKOLA:

Otsailak 6, 16:25-18:25 (Musakolan, Bedonaberen eta Erguinen)

Hitzordua eskatzeko:

zuzendaria@arrasatehe.eus

ARRASATE INSTITUTUA:

Otsailak 7, 18:00 (Institutuan)

Otsailak 8, 17:00 (Aramalori)

BERGARA

SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLA

Otsailak 6, 18:00, bilera informatiboa (IH eraikinean)

Otsailak 17, 11:00-14:00 ATEAK ZABALIK

(IHko eraikinean)

Bisita gidatu pertsonalizatuak: 943 76 21 47

IPINTZA INSTITUTUA:

Otsailak 7, 18:00 ATEAK ZABALIK (Ipintza Institutuan)

943 89 94 44

OÑATI

URGAIN HERRI ESKOLA:

Otsailak 3 ATEAK ZABALIK.

Hitzordua eskatzeko:

1. QR kodea

2. zuzendaritza@urgainerrekalde.eus

3. 943 89 91 34

OÑATI INSTITUTUA:

Otsailak 15, 18:00 (ZUAZOLA eraikinean)



ELKARLANEAN ERAIKITAKO ESKOLA ANITZA



MATRIKULAZIOA otsailaren 7tik 23ra

Guztion eskola, guztion artean



Murgialdai txakolinaren botila batzuk. GOIENA

Murgialdai eta Belaskua merkaturatzeko gertu

Beste urte batzuetako uzta baino txikiagoa izango da bailarako txakolin-ekoizleek aurten merkaturatuko dutena, eta udaberriko ekaitzak eta txingorrek izan dira horren eragile nagusiak. Hala ere, Debagoieneko txakolin-zaleek izango dute zer dastatu

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Urteroko ohitura jarraituz, aurten ere San Anton egunean aurkeztu dute Getariako Txakolinaren uzta berria, urtarrilaren 17an. 2023ko mahatsekin egindakoa izango da txakolin-zaleek aurten dastatu ahal izango dutena. Guztira, aurten, 3,5 milioi botila inguru merkaturatzea aurreikusten dute jatorri izen horrekin, eta botila horietako hainbat Debagoieneko mahastietan landutako mahatsez ekoiztuak izan dira. Aurten, iaz baino %20 gutxiago merkaturatzea espero dute, besteak beste, 2023an izandako eguraldi ezegonkorrek baldintzatuta.

Ikusten da, beraz, Debagoienean ere ekoizten dela txakolina eta, gainera, horietako hiru Getariako Txakolina jatorriko izenaren barruan daudela: Murgialdai, Belaskua eta Upaingoa; hirurak oñatiarrak.

Murgialdai upategian dagoneko badabilta botilaratze prozesuan murgilduta, eta hango

arduradun Aritz Galdosek dio "iaz baino %30a gutxiago" ekoiztuko dutela, nagusiki, "egoera klimatologikoa" egokia izan ez delako. Hala ere, Galdosek adierazi du "gradu eta garraztasun aldetik oso txakolin orekatua" izango dela eta "aroma handia" izango duela. Belaskuako mahastietan ere eragina izan zuen iazko udaberri garaiko eguraldiak, eta Jon Urzelaik, hango arduradunak, esan du "uzta txarra" izan zela eta "ohiko uzta baten erdia" batu zutela, udaberriaren "euri asko eta txingorra" egin zuelako. Hala ere, Urzelaik dio egin duten txakolina ona izango dela eta graduari dagokionez "egokia" izatea aurreikusten duela. Upaingoa txako-

**3,5 MILIOI BOTILA
MERKATURATZEA
AURREIKUSTEN DUTE
GETARIAKO
TXAKOLINA IZENPEAN**

linak, berriz, ez du ziurtatu txakolina egingo duenik.

Gainontzeko txakolinak

Aurretik aipatutako txakolindegiez gain, badaude beste hainbat Debagoienean: Kataide (Arrasate), Koste (Oñati) eta Otxia (Bedoña). Hiruretako batek ere ez du txakolina merkaturatuko, baina Kataidek eta Kosteik kontsumo propiorako egiteko asmoa dute. Koste txakolindegiko Gaizka Arregik dio "eguraldia" izan dela txakolina ez egitearen arrazoi nagusia. Gainera, txakolin ekologikoa ekoizteko hautua egin zuten mahatsoak landatu zituztenean, baina Arregik dio ez dakitela ea ekologikoaren apustuarekin jarraituko duten: "Baliteke Euskal Herria ez izatea toki egokia txakolin ekologikoa egiteko". Otxiaren kasuan, aldiz, 2020an izan zituzten arazoaren ostean berriro ere landatu dituzte mahatsoak, eta, hain zuzen, espero dute 2028rako egin ahal izatea txakolina.

GARAIA TALENTUAREN KUDEAKETA 2024

GARAIA Parke Teknologikoak, Orekan Biziren laguntzarekin, talentuaren kudeaketara zuzenduriko ekintzak proposatzen ditu hilabete osoan zehar. Otsaileko ostegun guztietan, 9:00etatik 11:00etara GARAIA Parke Teknologikoan.

GTK Berrikuntza
Erronkak
Garapena
Hausnarketa
Formakuntza
talentuaren
kudeaketa

Gaur egungo erronkei aurre egiteko tresna eta begirada berriak ezagutzeko aukera egongo da. Enpresa eta pertsona guztientzako ikastaroak izango dira.

JARDUNALDIAK:

OTSAILAK 1

• Motibazioa eta konpromisoa, desiratuenak
Asier Lopez de Gereño
(Orekan Bizi)

OTSAILAK 8

• Etorkizuneko enpleguaren erronka handiak Euskadin
Maria Alonso (Daiteke)

OTSAILAK 15

Erakundeari egindako

ekarpenean oinarritutako ordainsaria

Pilar Romero (Ingroup)

OTSAILAK 22

• Psikologoa etxean.
Jon Zabala (Teknoidaktika)

OTSAILAK 29

• Enpresa osasungarri baten boterea
Belen Urrutia (Sistematia)

Jardunaldietan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da IZEN-EMATEA.



IZENA
EMAN
HEMEN



Batzordeak, herriz herri eta urratsez urrats

Pausoz pauso ari dira Debagoieneko herrietako batzordeak Korrika euren herrietatik pasatzen denerako egitarauak prestatzen. Horrekin batera, aste honetan zehaztu dituzte herriz herri Korrikako arropa saltzeko egunak

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA Martxoaren 14tik 24ra Irundik Baionara egingo den 23. Korrika antolatzeko herriz herri lan-batzordeetan ari dira urratsak egiten, euskararen aldeko ekimena ondo antolatzeko. Korrikaren mezuaren lehenengo leerroek honela diote: *Harro herri, euskaraz jakin zein ez, har dezagun dimentsio orotan eragiteko konpromisoa, herria batuta*. Hain zuzen, horiei eta bide horri segika, hala ari dira ekintzak prestatzen.

Bailarako herrietatik martxoaren 20an eta 23an igaroko da; ordu txikietan gehienetatik. Hori horrela, lanketarekin ari direla



Bergarako Korrika batzordeko zenbait kide. KORRIKA DEBAGOIENA

azaldu du Ainhoa Arregik, Korrikako Debagoieneko dinamizatzaileak: "Zenbait herritatik gauzez pasako da Korrika; beraz, afaria egitea pentsatu dute hainbat herritan; kontzertuak egitea ere ez dute baztertzen... Hala ere, guztia martxan dagoen arren, zehaztu gabe dituzte oraindik ekintzak. Horrekin batera, Korrika Txikiko egitarauak ere prestatzen ari dira".

Arropak eta kilometroak salgai

Arropa saltzeko egunak herriz herri ere zehaztu dituzte herri batzordeek aste honetan. Otsailaren 2an Bergaran; otsailaren 3an Aretxabaletan eta otsailaren 8an Eskoriatzan egingo dituzte Korrikako arropa salmentak; otsailaren 9an, Aramaion eta Antzuolan; otsailaren 10ean, Gatzagan; otsailaren 13an, Oñatin; eta otsailaren 17an, Arrasaten -ordutegiak eta lekuak *goiena.eus-en* ikusgai-. Gainerako egunetan Arrasateko AEKn ere erosi ahal izango dira arropak, goizez 11:00etatik 13:00etara bitartean eta arratsaldez 17:00etatik 19:00etara bitartean -egubakoitzetan, itxita-.

Horrez gain, kilometro salmenta martxan dagoela ere azaldu dute AEKtik. "Aurreko ediziooko prezio berak dira. Administrazio publikoek 600 eurotan erosi dezakete kilometroa eta gainontzeko eragile, kuadrilla, familia edo norbanakoek, 425 eurotan". Hala ere, ezarritako prezio gora ordaintzea librea da. Hala, interesdunek mezua idatzi dezakete *korrikadebagoiena@gmail.com* helbidera informazio gehiago eskatzeko.

Batzorde bilerak herriz herri

Arrasaten, Antzuolan, Bergaran eta Elgetan aste honetan egin dituzte batzorde bilerak, aurrera begirakoak zehazteko. Gai nontzeko herrietan honako hauek dira batzartuko diren egunak eta orduak: Gatzagan, gaur, egubakoitza, 19:00etan, eskolan; Oñatin, urtarrilaren 29an, astelehena, 18:00etan, euskaltegia; Eskoriatzan, urtarrilaren 29an, 18:00etan, kultura etxean; Aramaion, urtarrilaren 30ean, martitzena, 19:00, KZgunean; eta Aretxabaletan, otsailaren 1ean, 18:00etan, Loramendi elkartearen.

Guda Zelaia jardunaldien hirugarren edizioa zapatuan

Deba Bailara Kontseilu Sozialistak antolatuta, egun osoko egitaraua prestatu dute biharko, Oñatin

I.B. DEBAGOIENA

Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak antolatuta, III. Guda Zelaia jardunaldiak egingo dituzte Oñatin zapatu honetan. Artearen eta kulturaren esparrutik gizarte sozialistaren eraikuntzarako ekarpena egitea da helburua.

"Kulturarekiko kezka bat zuen jendea zegoela konturatuta hasi ginen jardunaldiak antolatzen. Hausnarketa orokorrak lantzea da helburua, baina zenbait diziplinatan zentratuta. Jardunaldiak, esaterako, zinemarekin hasiko ditugu; Aitor Arregi zinema-zuzendari oñatiarra izango da gurekin. Horrekin batera, antzerkia ere uztartzeko aukera izango dugu arratsaldeko ikuskizunean, eta musikak ere izango du bere garrantzia egun osoan", adierazi du Aitor Tatiegik, Deba Bailarako Kontseilu Sozialistako kideak.

Egun osoko egitaraua

11:00etan hasita, zinemaren in-guruko hitzaldi-solasaldia egingo dute Santa Ana antzokian, sektoreko hainbat eragilerekin; tartean, Aitor Arregi zinema-zuzendariarekin. Bergarako Kastalia hirukotearen kontzertu akustikoa egingo da gero, 13:00etan, Boga aurreko plazan. Bazkaria 14:00etan, Antixena gaztetxean. Bakarrizketa saioak bazkalostean, Iker Plazaola eta Lide Arregi oñatiarren eta Asier Kortabarria bergararraren eta Manex Astigarraga debarraren eskutik. 18:00etan, Ekida taldearen antzezlan berriaren estreinaldia izango da Santa Anan; eta, ondoren, bertso-poteoa Mainer Arregi, Martin Abarrategi eta Aroa Arrizubietarekin. Amaitzeko, Katu eta Kaparrak taldeen kontzertuak izango dira 22:30ean, Antixenean.



DEBAGOIENENKO

GREMIOAK



LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

Basabe poligonoa
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /
616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

Sinboloez jabetzen

Azaroan, Nabarralde Hernanin antolatutako jardunaldi batzuetan parte hartzeko aukera izan nuen. Bertan, Gipuzkoako armarriaz aritu nintzen, Antzuolako armarraren aldaketa prozesuan ikasitakoa azalduz.

Ez nintzen debagoiendar bakarra izan: Oñatiko Udaleko Kultura zinegotzi Iñaki Olalde Oñatiko bandera aldatu berriaz hitz egin zuen; Iñaki Idigoras oñatiarrak Nafarroako konkistan Oñatiko jauntxoek zer-nolako papera jokatu zuten kontatu zuen; eta Dekolonizatu Bergara taldeko Izar Odriozolak gure zenbait arbasok beste herri batzuen zapalkuntzan izan zuten paperaren berri eman zuen.

Sinboloek herri baten identitatean berebiziko garrantzia dute, baina sarritan, gureak direlakoan, kanpokoek ezarritakoak ditugu. Urrutira joan gabe, gure herrietako bandera gehienetan Voxekoek horrenbeste maite duten Borgoinako gurutzeta daukagu; zorionez, oñatiarrek ezabatu dutena.

Kale-izenetan ere badago zeregina, Arrasateko Zuztarrak Errotuz taldeak erakutsi digun bezala. Euren lanari esker, Arrasateko Udalak erabaki berri du gu indarrez hartu gintuen

KONTURATU ETA JABE EGIN; ESATEN DIGUTENAZ

Gaztelako Alfonso VIII.ari kalea kentzea eta aurrerantzean 17 *Emakume kalea* izendatzea.

KONTURATU ETA HAI EI BURUZ ERABAKI

Hernaniko hitzaldietan, entzule gisa, Bergarako Oxan laguna zegoen, urtetan Euskal Herri osoko balkoi askotan eduki dugun

Euskal presoak Euskal Herrira ikurraren sortzailea. Hura aldatu den bezala, espero dugu *Etxera* banderola berria ere laster kendu behar izatea.

Ikusten da Debagoiengan sinboloak aldatzeko eta berriak sortzeko ez daukagula konplexurik. Honetan ere aitzindariak gara, sinboloez jabetzen, hitzaren bi zentzuetan: konturatu eta jabe egin. Sinboloek esaten digutenaz konturatu eta haiei buruz erabaki.

Horretarako, Pirritx eta Porrotxen *Sentitu, pentsatu eta ekin* leinari *jabetu* gehituko nioke aurretik. Jabetu edo konturatu gabe ez baita sentitzen, ondoren pentsatu eta ekiteko.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Ezkutukiak

BLANCA URGELL
'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/LQOX2](https://labur.eus/lqox2)

Aingeruen oroitzapena iratzarri zait, haietako baten xuxurlaren eraginez, nonbait. Gauero *Jesúsito de mi vida* oitotz egitera zetorren aita zena gure ohera, eta ezin gogoratu, ezin-ezin-ezin, noiz utzi genion horri, nola gertatu zen.

Aingeruek badute hizkuntza: edozeinek daki. Murmurioa izaten da, zurrumurrua, haize-bolada baino emeagoa. Diotenez, entzun diezaiekegu, baina ezin guk haiei hitz egin. Zein hizkuntza ote den ere ez dakigu. Hebraiera uste zuten askok; honela dio, ordea,

Etxeberri Sarakok (c. 17): "... eta aitzitik lehen deit zaitezela [zu, euskara] Aingeruen hitzkuntza, ezen ez gizonena, zeren zure hitz bakhotxa baita misterioz eta zuhurtziaz bethea".

Idazten ere badakite. Al-Infitar suran Koranak dio: "Azken Epaiketa ukatzen duzu, zalantzarik gabe aingeru erne eta ohoragarriek dena grabatzen duten bitartean. Egiten duzuna badakite". Kabalan letra bakoitza aingeru bat da, eta izarrek letra horiek adierazten dituzten formak osatzen omen dituzte.

Ostertzean aingeru-samaldak altxatuko dira. 300 milioi Athanase Influencer-en arabera (1652). Johann Reuchlin-ek (1517), haien

izenen bila ibilirik, ezarri zuen nahitaez izan behar zutela "ezezagunak, txundigarriak, hizkuntzaren ohiko erabileraren arabera ezer adierazten ez dutenak, baina gure arrazoiaren harridura eraginez ulergarria dena etengabe bilatzera bultzatzen gaituztenak".

Hona ni, aitaren aingeru hartatik elurra baino gelditu ez delako sentipenari aurre egiten. Atzealdean, Stevie Nicks abesten: "Ai, zeruko ispilua, zer da maitasuna? / Nire bihotz barruko umea gora altxa al daiteke? / Nabiga al dezaket ozeano-marea aldakorren artean? / Neure bizitzako urtarok kudea ditzaket?".

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Kontzertu ekonomikoak ez gaitu insolidario bilakatzen"

GUILLERMO DORRONSORO EKONOMIALARIA

Julen Murua Mesonero ARRASATE Arrasateko EAJK Guillermo Dorrnsoro (Sestao, 1965) ekonomialaria gonbidatu zuen eguaztenerako Kulturaten, kontzertu ekonomikoaren gaineko hitzaldi bat egitera, eta GOIENA harekin izan da gai horrek batzen dituen alderdi guztien gainean mintzatzeko.

Kontzertu ekonomikoak autogobernuaren funtsa da, zure ustez?

Azken finean, alderdi gehiagoren batura da, baina, zalantzarik gabe, ekonomikoaren kontrola, norbere erabakiak hartzeko independentzia izan nahi denean, oso garrantzitsua da. **Iruditzen zaizu euskal herritarrek badutela horri buruzko jakintzarik?**

Urteetan zehar, kontu profesionalak tarteko, Madrilera asko bidaiatu behar izan dut, eta oso ohikoa zen bazkari edo afarietan entzutea euskaldunok pribilegiatuak garela, eta ez jakitea zer erantzun. Ez dago gai horren inguruan ikasteko toki bat, eta, beraz, interesa eduki ezean, ignorantzia dagoela esango nuke.

Eta Espainiako herritarrek? Ezta ere. Zerbait entzun izan dute horren inguruan, baina ezer gutxi. Entzuten dute



Guillermo Dorrnsoro. IÑIGO BARRENA

euskaldunak ez garela solidarioak edo ez ditugula zergak ordaintzen, eta herritarrek barneratu egiten dute mezu hori.

Espainiako Konstituzioan jasota egon arren, kolokan ikusten dituzu kontzertu ekonomikoak eta hitzarmen ekonomikoak?

Sakoneko arazo bat dago, eta ez du zerikusirik kontzertu ekonomikoarekin edo hitzarmen ekonomikoarekin, Espainiako zerga-ereduarekin baizik. Gai oso zaila da. Jendea ez dago ados zerga-

ereduarekin, baina ez gurearekin, haien ereduarekin! Arazoa da ez daudela ados, eta nahi dute gu ere haien eredura batzea: "Gu ez gaude ondo; beraz, egon daitezela gaizki euskaldunak eta nafarrak ere".

Geroago eta jarrera zentralistagoak ikusten dira Espainiako hainbat politikariren artean...

Uste dut populismoaren gorakada bat dagoela, eta hori da okerrena. Kontzertu ekonomikoak esloganak

sortzeko balio du, eta alderdi politiko askok hori egiten dute jendea erakartzeko. Gaur egun, populistak daude, ez bakarrik alderdi politiko populistetan, baita alderdi instituzionalagoetan, zoritxarrez.

Bi tresna horiek solidarioak ez direla iruditzen zaizu?

Esango nuke euskaldunok Estatuarekin dugun ituna dela bizilagun batek bere auzo-komunitaterekin duenaren berdina. Auzo-komunitate baten kasuan, bizilagun batek bere etxeak dituen metro karratuen truke ordaintzen du, eta, kontzertu ekonomikoaren kasuan, euskaldunok Estatuarekin adostu zen koefiziente baten truke ordaintzen dugu.

Kataluniarako egokia izan daiteke kontzertu ekonomikoaren moduko tresna bat?

Kontzertuak abantaila bat du: erabakitze aukera handiagoa ematen duela. Baina, aldi berean, eragozpen bat dauka: guztia biltzeko eta kudeatzeko erantzukizuna norberarena dela.

Euskaldunoi mesede egin digu, urte askoan egin diren politikak egokiak izan direlako. Katalunian zera hartu behar dute kontuan: kudeaketa egokia egiteko gai baldin badira, kontzertua tresna ona izan daitekeela, baina ez badira gai izaten kudeaketa egokia egiteko, baliteke kontrarako izatea. **Burujabetza ekonomiko horrek lagun dezake Kataluniako gatazka politikoa konpontzen?** Oxala! Nik uste dut historikoki Espainian

lurraldeen arteko gatazka bat egon dela. Katalunian gaur egun ez daukate akordiorik, eta batzuek diote joan egin nahi dutela. Horrek elkargune batera iristen laguntzen badie, ona izango litzateke.

Kupoagatik EAeko lurraldeek ordaintzen dutena justua da?

Auzo-komunitatera itzuliko naiz. Bertan, guztiek ordaintzen dute kopuru bera igogailuagatik, nahiz eta batzuek erabili eta besteek ez; guztiek ordaintzen dute kopuru bera teilatua konpontzeagatik, nahiz eta azkenengo pisuan bizi diren bizilagunek arazo gehiago duten kontu horrekin. Zer den bidezkoa? Hori oso zaila da esatea. Euskaldunok esan ahalko genuke %6,24 ordaindu dugula Espainiako AHT guztiengatik, eta hemen oraindik ez dugula izan erabiltzeko inongo aukerarik. Akordio txar bat hobe da eztabaida on bat baino, eztabaidak etengabeko nahasmen baten egotera eramango gintuelako.

"KONTZERTU EKONOMIKOAREN GAINEKO JAKINTZA OSO GUTXI DAGOELA ESANGO NUKE"

"ARAZOA EZ DAGO KONTZERTU EKONOMIKOAN, ESPAINIAKO ZERGA-EREDUAN BAIZIK"

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

MEN DIZA LEAK AURRERA!





Maite Anaya, Maider Morras eta Iñigo Larrea, *First Lego League*-ren kartelarekin. GONTZAL BELATEGI

'First Lego League'-rako boluntarioak behar dira

First Lego League Euskadi-Mondragon torneoaren edizio berri baten finala aurkeztu zuten atzo, eta azpimarratu zuten boluntarioak ezinbestekoak direla lehiaketaren garapen egokia bermatzeko; era horretan, horretarako kanpaina abiatu dute jada

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Maite Anayak, Maider Morrasede eta Iñigo Larreak eman dituzte finalaren xehetasunak, Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren, Arrasateko Udalaren eta Mondragon Korporazioaren izenean. Halaber, aurkezpenean ordezkaririk ez izan arren, aipatzekoa da Innobasque ere antolatzaileen artean dagoela.

First Lego League 110 herrialdetan 650.000 gazte inguru batzen ituen heziketa programa bat da, eta horren baitan egingo dute Arrasatekoa ere. Ekitaldia Mondragon Korporazioak eta Mondragon Unibertsitateak Steam heziketa bultzatzeko Innobasque agentziarekin duen akordioaren baitan dago. "Horrela, Euskadiko ikasleen artean gaitasun teknologiko eta zientifikoekiko interesa aktibatzen nahi dugu, eta jakintza-ildo berri bat ireki. Beste behin ere, lehiaketa ofiziala izango da, Estatu mailako txapelketarako sailkatzeko balioko duena. Hala, *FLL Explore*

eta *FLL Challenge* erronkak izango dira. Lehena 6-9 urte arteko ikasleei zuzendua dago eta bigarrena, 10-16 urte artekoekin, adierazi dute antolatzaileek.

Finala, martxoaren 2an

Martxoaren 2an egingo dute lehiaketako finala, Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren Iturrieko Campusean. Challenge kategorian, 10 eta 16 urte arteko ikasleez osaturiko taldeek euren proiektu berritzaileak aurkeztuko dituzte, eta *lego* piezez eraikitako robot batekin askotariko jokoak planteatzen dituzten erronkei aurre egin. *Masterpiece* erronka medio, ikasleek denboraldi honetan besteekin partekatzen nahi duten zaletasuna

**LEHIAKETA OFIZIALA
IZANGO DA, ETA
ESTATU MAILAKORA
SAILKATZEKO
BALIOKO DU**

identifikatu beharko dute, teknologia modu sortzailean erabiliz", diote antolatzaileek.

Boluntarioak, ezinbestekoak

Antolatzaileek adierazi dute pertsonen, ikastetxeen, laguntzaileen eta bestelako eragileen laguntza beharrezkoa dela lehiaketa modu egokian borobiltzeko, eta boluntarioak behar dituztela gaineratu dute. *Innobasque.eus*-en dago boluntario izateko izena emateko aukera.

Beste urte batez, Arrasaten

Maider Morras Arrasateko alkateak poza agertu du beste urte batez ekimena Arrasatek hartuko duelako. "Batetik, Arrasateko unibertsitate zein enpresa ezagutzari balioa ematen diolako; eta, bestetik, Arrasate teknologia talentuaren hiri bilakatzeko duelako. Gainera, egun hori lehiakortasunera mugatu beharrean, festa giroko eguna izango da, berezia; ilusioz, adiskidetasunez eta kooperazioz bete".

Gurasoei zuzendutako hitzaldi eta tailerrak, maiatzera arte

Seme-alaben heziketari buruz sortzen zaizkien kezak eta zailtasunak partekatzeko helburua izango dute

E.A.B. ARRASATE

Seme-alaben heziketaren gainean hausnartu eta gurasoei gune batzuk eskaintzeko helburua duten hiru hitzaldi eta bost tailer egingo dituzte Arrasaten, maiatzera bitartean, Udalak antolatuta. Batzuk, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren *Treba gurasoak* dinamikarekin elkarlanean egingo dituzte.

Hitzaldiak Kulturaten izango dira, 18:00etan, eta osasun mentala, substantzien kontsumoa eta sexualitatea landuko dituz-

te. Ildo beretik, bost tailer ere eskainiko zaizkie gurasoei, seme-alaben adinaren arabera banatuta. Tailer guztien helburua da gurasoei baliabideak ematea seme-alabak hezteko, ikuspegi praktikoarekin.

Izena eman behar da

Hitzaldietan eta tailerretan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da izena ematea. Tailerretan plaza mugatuak egongo dira. Izena eman ahal izango da *BA-Zen*, *arrasate.eus*-en edo 943-25 20 00 telefono-zenbakira deituta.

Gaitu Eguna egingo dute gaur Seber Altube plazan

Geikek, Arrasateko euskaltzaleak batzeko eta euskara gehiago zabaltzeko helburua duen taldeak, Gaitu Eguna egingo du gaur. Herritarren ahotsak jaso gura dituzte eta Seber Altuben egongo da grabazioak egiteko aukera, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. "Erronka moduan, ea 1.000 grabazioko ekarpena egitera iristen garen!", diote.

20 urte edo gehiago dituzten herritarrak daude deituta parte hartzera. Bestetik, 30 urtetik gorako emakumeen ahotsak behar dituzte, bereziki, "hor baitago hutsunerik handiena". Esaldiak grabatzen ez ezik, grabatuta daudenak balioztatuz ere egin daiteke ekarpena.

Ateak irekitzeko egunak datorren astean ludoteketan

Urtarrilaren 30ean, otsailaren 1ean eta otsailaren 2an, ateak irekitzeko egunak izango dira ludoteketan. Hala, martitzenean, buztin tailerra egingo dute Usae-txen; eguenean, txapa tailerra Santa Marinaran; eta egubakoitzean, sukaldaritza tailerra Okendon -guztiak 17:00etan-. Hala, ludoteketako zerbitzua ezagutaraziko diete erabiltzaile berriei.

Mozambikeri buruzko solasaldia egingo dute astelehenean

Mundukide Fundazioak, Harremanek eta Arrasateko Udalak antolatuta, Mundukidek Mozambikeren duen programaz ariko dira Adrian Lamas eta Cristina Luque, programako kudeatzailea eta koordinatzailea, hurrenez hurren. Urtarrilaren 29an izango da saioa, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean.

Proiektuaren alderdi guztiak ezagutzeko aukera izango da. "Proiektuak, batez ere, gizaki ororen lehen premia asetzen du: elikagaia. Nekazaritza-teknikak hobetzeko aukera ematen die, bizi-kalitate hobea emango duten ekonomia txikiak sortzeko helburuarekin, gizarte-eraldaketaren ardatz gisa lan eginez".

Iturriotz kalean trafikoa moztuko dute otsailaren 23ra arte

Alde zaharreko zuntz optikoa hedatzeko lanak direla eta, Iturriotz kalean ezingo da ibilgailuz mugitu urtarrilaren 29tik otsailaren 23ra arte. Denbora tarte horretan, trafikoa Erdiko kalean gora ibili ahal izango da soilik; hau da, goranzko noranzkoan, Arrasate pasealekurantz. Hesiak jarriko dituzte eremua seinaleztatzeko.

2.000 bazkideko langa gainditu du Besaidek

Batzar orokorra egin du Besaide Mendizale Elkartek, eta, 2024ko aurrekontua onartzearekin batera, finkatuta geratu dira aurten egingo dituzten irteerak eta ekintzak; nabarmentzekoa da, era berean, elkarteak daukan bazkide kopurua: 2.050

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Batzar orokorra egin du Besaide Mendizale Elkartek eta 2024ko aurrekontua onartu du. "Urteko balantzean, galera txiki batzuk izan ditugu, eski irteeretako prezioak asko garestitu direlako, baina moldaketa batzuk egin ditugu eta espero dugu urtea galera barik amaitzea", azaldu du Olatz Igartuak, elkartearen presidentea. Moldaketa horietako bat da, esaterako, urteko kuota euro bat igotzea -2011tik ez dute igo-. Hala, helduena hamabost euro izango da, gazteena hamar eta haurrena zortzi. "Bazkideei ez die hainbeste eragingo eta elkartearentzat diru-sarrera bat gehiago da".

Bazkide kopuruari dagokienez, 2.000ko langa pasa du aurten, lehenengoz, elkarteak. Izan ere, 2.050 dira dagoeneko, eta hori "oso albiste pozgarria" dela dio presidentea. Edozelan ere, ate guztiak zabalik dituztela azpimarratu du, eta, bereziki, gazteei dei egin die taldera batzeko eta gauzak antolatzeko. "Taldea zahartzen doa eta belaunaldi berriak behar ditugu".

Urtebete presidente karguan

Zuzendaritza batzordea iaz aldatu zuten, eta, ondo bidean, lau urterako izango da. Hala, lehen urtean egindako lana ontzat eman du Igartuak. "Gauzak ikasten ari gara oraindik, eta aurrekoei galdetzen. Lanik ez zaigu falta izan, baina ondo egin ditugu gauzak, eta ea bigarrenen hobetzerik dugun". Hura ere gustura ari dela dio: "Batzordeko lana ezagutzen nuen aurrez, baina presidente izatea beste ardura bat da. Edozelan ere, pozik nago".

Askotariko irteerak eta ekintzak

Urteko ekintzei erreparatuta, espeleologia ikastaroa egitekoak ziren otsailaren 10ean, baina atzeratu egin behar izan dute.

"Arrasaten, lehen, bazegoen espeleologia talde bat, eta, desagertu egin zen arren, espeleologo batzuek euren kabuz jarraitu zuten lanean. Haiek jarri ziren gurekin harremanetan, ikastaro bat egin gura zutela esanez, euren taldea osatzeko asmoz. Hala ere, bidean arazo batzuk izan dituzte eta otsailaren 10erako ez dira helduko", dio Igartuak. Beraz, udaberrirako egiteko moduan egongo direla uste dute. "Jende asko ari zaigu galdezka. Beraz, lotu bezain pronto jakinaraziko dugu data berria".

Era berean, gazteentzako ateburuko irteera bat antolatzen ari da elkarteak. "Lehen, beti egiten ziren gazteentzako irteerak, baina, urteek aurrera egin ahala, gazte horiek zahartzen joan dira eta gazte gutxi animatu izan dira. Horri buelta eman guran, iaz planteatu genuen gazteentzako irteera bat, baina ez zen aurrera irten, eta aurten lortu dugu taldetxo bat sortzea irteera hori antolatzeko". Hain

zuzen ere, ekainaren 14an egingo dute bidaia, Pirinioetara.

Halaber, hileko irteerak ere egingo dituzte: otsailekoan Andoainera joango dira, Orbara mendira, eta eguna sagardotegian borobilduko dute. Ondorengo irteerak honako hauek izango dira, besteak beste: Etxarri-Aranazko Trikuharrien Bidea, Kodes mendilerroa eta Nafarroako Guratz mendia izango dira.

Udalatxera igoera berezia

2024ak Euskal Mendizale Federazioaren 100. urteurrena ere badakar bere baitan, eta Besaidek bat egingo du horrekin, Udalatxera irteera berezi bat eginda. Apirilaren 27ko asteburuan izango da, baina oraindik

OTSAILAREN 10EAN EGITEKOAK ZIREN ESPELEOLOGIA IKASTAROA, BAINA ATZERATU EGIN DUTE

ez dute zehaztu eguna. "Seguruenik, ez da izango Udaltatik igo eta jaitsi, baizik eta ibilbide luzeagoa. Tontorrean talde argazki bat aterako dugu, urteurreneko banderarekin, Federazioarekin partekatzen".

Txartelak, digital

Federazioko txartelak dagoeneko jaso daitezke, Besaideren bulegoan, martitzen eta eguaztenetan, 19:30etik 20:30era. Halaber, Euskal Mendizale Federazioaren aplikazioak txartela deskargatzeko aukera ematen du, eta txartel fisikoaren balioidea izango da. Horri lotuta, Igartuak azpimarratu du 2024a izango dela Besaideko bazkide txartela fisikoki egongo den azken urtea. "2025erako, seguruenik, digitalean bakarrik eskuratu ahal izango da".

Jorrotutako beste hainbat kontu

Eskolarteko Finalista Eguna antolatzea egokitu zaio Besaideri, eta martxoaren 3an izango da. "250-300 umek hartuko dute parte, eta laguntza beharko dute hori guztia kudeatzeko".

Bestalde, komunikazio arloan eta sare sozialetan aurrerapausoak eman gura dituztela aurreratu du presidentea.

Azkenik, 2024an ere, azken urteetan moduan, ingurumen arloan lanean jarraituko du Besaidek. Izan ere, beste koba bat garbitzea aurreikusten dutela dio Igartuak, oraindik zehaztu gabe badute ere.

Esperimentazio elektronikoa eta digitaleko tailerra

Steam: Makinak gara izeneko tailerra antolatu du Udal Bibliotekak. Lau saio egingo dituzte, Kulturaten, 11:00etatik 13:00etara: otsailaren 17an, martxoaren 9an, apirilaren 13an eta maiatzaren 4an. 6 eta 11 urte arteko haurrei zuzendutako saioak diren arren, heldu batekin joan beharko dute. Otsailaren 6ra arte eman ahalko da izena.

Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloko beste emanaldi bat

Asteon abiatu dituzte proiektzioak eta urtarrilaren 30ean beste zortzi pieza proiektatuko dituzte Kulturaten, 19:30ean: *Hiru Itsasargi*; *Above & Below*; *La Moneca*; *Turtle Reef*; *Secret Bay Camouflage*; *Sunken Treasures of Love*; *Raja Ampat* eta *The Magic Triangle*. Halaber, urpeko 24 irudiz osatutako erakusketa otsailaren 2ra arte dago ikusgai.

San Baleixo jaiak ospatuko dituzte Meatzerrekan

Hiru eguneko egitaraua prestatu dute, eta, beraz, hainbat ekintza egongo dira gaur, bihar eta etzi; gehienak, auzoko elkarteak: mus txapelketa, Lopene gaudutegiaren emanaldia, Oihu eta Hankaz Gora taldeen kontzertua eta euskal dantza saioa. Halaber, domekan meza esango dute, Gesalibarko eta Garagartzako koroak lagunduta.

Palestinar Erresistentzia Eguna otsailaren 3an

Askapenak eta Arrasateko gaztetxeak antolatuta, Palestinar Erresistentzia Eguna egingo dute datorren astean. Besteak beste, hitzaldi bat izango dute gaztetxean, 11:00etan: Al Yudur eta Samidoun mugimenduetako kide Taher Ali izango da hizlaria. Palestinako askapena jomugan duen gazte palestinarren antolakundea da Al Yudur.



Besaide Mendizale Elkarteen batzar orokorra, Kulturaten, joan den astean. BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

"Jokalaria eta zaleak ilusioz ikusten ditut"

GARI NUÑEZ MONDRAKO GIZONEZKOEN TALDE NAGUSIKO ENTRENATZAILEA Erregional Ohorezko Mailara igotzeko helburua geroz eta gertuago dute arrasatearrek; hala ere, hankak lurrean izan eta lanean jarraitu beharra dagoela dio entrenatzaileak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Futboleko, Gizonezkoen Goren-go Mailan, sekulako denboraldia egiten ari da Mondra. Izan ere, hamasei partidu jokatu, hamahiru irabazi dituzte arrasatearrek, bi berdindu eta bakarra galdu. Ondorioz, hamar puntuko alde dute bigarren sailkatuarekiko, Aloña Mendirekiko. Kontuan hartu behar da, gainera, lehen sailkatua zuzenean igoko dela Erregional Ohorezko Mailara. Bigarren sailkatuak, aldiz, kanporaketa bat gainditu beharko du horretarako. Taldea egiten ari den lanaz eta egiteke dagoenaz aritu da Gari Nuñez entrenatzailea (Legazpi, 1985).

Bigarren itzulia hasi berritan, lehen postuan dago Mondra, sendo. Nola ikusten duzu taldea?
Zuk esan moduan, taldea sendo eta indartsu ikusten dut. Helburu oso argi batekin hasi genuen denboraldia eta hori argi izanda ari gara lanean, partiduz partidu. Egia da gauzak ondo doazenean guztia errazagoa dela eta horrek asko laguntzen duela lan-dinamikan.

Aloña Mendi aurkari zuzenari nagusitasunez irabazi zenioten.
Esango nuke anekdotikoa dela azken partiduko emaitza. Izan ere, hainbat partidu izan ditugu, sailkapeneko beheko postuetan



Gari Nuñez, Mojategin, denboraldi hasieran. LUKEN UGARTEBURU

dauden taldeen aurkakoak, zaildu egin zaizkigunak. Baina bai, hiru puntu gehiago dira. Derbia izanik, motibazioa ere handiagoa zen, eta hori nabaritu egin zen zelaian. Gainera, haien jokoak mesede egin zigun eta guztia alde jarri zitzaigun.

Indarra ematen du horrelako garaipen bat lortu eta alde hamar puntura handitzeak?
Bai, noski, eta helburua geroz eta gertuago ikusten dugu, baina bigarren itzuli oso bat gertatzen zaigu oraindik. Hamar puntu asko dira, baina puntu

asko daude jokoan oraindik eta zelai txiki eta zailtan jokatu beharko dugu, beste futbol mota bat exijitzen duten zelaietan. Oraindik hankak lurrean izan behar ditugu eta lanean jarraitu. Gustatuko litzaidake bi hilabete barru esan ahal izatea gauzak ondo doazela eta alde handitu dugula. Modu horretan, egunerokoa lasaiago hartzeko aukera izango genuke.

Lehenengo itzuli osoan partidu bakarra galdu du Mondrak, bederatzigol bakarrik jasota. Non dago horretarako sekretua?

Entrenatzaile naizenetik, nik neuk garrantzi handia ematen diot defentsa arloari. Beti pentsatu izan dut talde batek partidu gehienetan sartuko dituela golak, eta, horrenbestez, inportanteagoa iruditzen zait golik ez jasotzea. Horretarako moduak lantzen ditugu entrenamenduetan, eta lan hori emaitzak ematen ari da. Edozelan ere, argi utzi gura dut nik buruan daukadana jokariak gauzatzen dutela zelaian; haiena da meritua. Azken batean, golik jasotzen ez baduzu, asko daukazu irabazteko.

Erasoan ere datuak onak dira, 39 gol sartu baititu taldeak.

Futbol praktikoa egiten dugula uste dut, arrisku gutxi hartuta, eta horrek ere lagundu egiten digu hainbat partidutan; adibidez, Aloña Mendiren aurkakoan. Saiatzen gara jokoaren zati handiena aurkariaren zelaian izaten.

Denboraldi erdia falta dela kontuan izanda, lanaren zati handi bat egin da dagoela uste duzu?

Kalean jende askok esaten digu dagoeneko helburua lortuta daukagula, baina oraindik ez dugu ezer egin. Badakigu denboraldia arnasa luzeko ariketa bat dela eta partidu zailak ditugula oraindik. Asteburuan, adibidez, Sorraluzen jokatu dugu, eta oso zelai zaila da, txikia. Hamar puntuko aldeak konfiantza ematen digu, baina lanean jarraitu behar dugu, hamalau partidu geratzen zaizkigu-eta jokatzeko.

Nolako partidu aurreikusten duzu Sorraluzen?

Partidu gogorra izango da. Gu ohituta gaudenarekin alderatuta, beste futbol mota bat jokatzeko da zelai hartan, eta aldaratzeak oso garrantzitsu bilakatzen dira. kontaktu handiko partidu izango da, fisikoa. Horrez gain, baloi

geldiko jokaldiak eta estrategiak ere ezinbestekoak izango dira hiru puntuak Arrasatera ekartzeko. Joan den asteko partidua erekin alderatuta, oso ezberdina izango da.

Zelai horietan irabaztea gakoetako bat izan daiteke, beraz?

Egia esan, ez gara gaizki moldatzen halako partiduetan, baina lehen partiduan galdu dugun partidu bakarra zelai txiki batean galdu dugu, Zizurkilan. 0-2 irabazten hasi ginen eta 3-2 galdu genuen. Edozein baloi luze edo edozein aldaratze gol aukera bilakatzen da zelai txikietan; etengabeko arriskua dago partidu horietan.

Bukatzeke, mailaz igotzeko ilusioa sumatzen duzu jokariengan?

Jokariak denboraldi hasieratik izan dute ilusioa, eta partiduz partidu erakusten dute hori.

Eta zaleengan?

Zaleak ere ilusioz ikusten ditut. Nabaritzen da denboraldi hasieran baino jende gehiago etortzen dela orain Mojategira. Bultzada horrek, zalantzarik gabe, taldeari ere laguntzen dio. Hasieran esan dizudan moduan, gauzak ondo doazenean, errazago egiten da bidea.

Dagokion mailara bueltatuko da, beraz, Mondra?

Lanean jarraitu beharra dago, baina taldea horretan sinisten hasia da dagoeneko, eta bai, Mondrari dagokion mailara itzuli gura dugu lehenbailehen; Erregional Ohorezko Mailara, alegia.

"HELBURUA GERTU DAUKAGU, BAINA BIGARREN ITZULI OSO BAT GERATZEN ZAIGU ORAINDIK"

ART Amak Pirolitikak taldea Valladoliden ariko da zapatuan

Wonderwinter errugbi torneoan parte hartuko dute, eta, emaitzaz harago, "disfrutatzeraz" doaz arrasatearrek

E.A.B. ARRASATE

Valladolideko VRAC klubak antolatuta, Wonderwinter torneo egingo dute asteburuan Pepe Rojo zelaian, hirugarrenez, eta han izango da ART Amak Pirolitikak taldea. "Lehenengoz

gonbidatu gaituzte, eta pozik goaz", azaldu du taldeko jokalaria Belen Aranbarrik. "Gasteizen ezagutu genituen eta oso harreman estua egin dugu haiekin".

Bihar, zapatua, 12:30ean hasiko dituzte partiduak, eta zortzi

talde ariko dira lehian: Valladolideko VRAC klubeko bi talde (Wonder VRAC), Oviedoko Rugby Klubeko bi talde (Osas), Gijongo Madresnes, Madrilgo Tigresas, Bilboko Lamiak eta ART Amak Pirolitikak. Zortzi minutuko bi zati izango ditu partidu bakoitzak eta lau partidu, behintzat, bermatuta izango dituzte arrasatearrek. A multzoan ariko dira, eta honako hauek izango dituzte aurkari: Tigresas, Osas eta Wonder VRAC. Ostean, finalurrekoak eta finala izango dira,

baita hirugarren eta laugarren postuak zehaztuta utziko dituen partidu ere.

Aranbarrik nabarmendu du asteburuaz gozatzeraz joango direla. "Normalean, ez dugu aukera askorik izaten hemen inguruan halako txapelketak jokatzeko, ez baitago talde askorik. Beraz, disfrutatzeraz goaz". Era berean, martxoaren 16an Bartzelonan egingo duten Mater Series txapelketarako entrenamendu moduan ere hartuko dute asteburu honetakoa.

ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENA aldizkarian, 1020. zenbakiko 13. orrian, Desoreka judo klubari buruzko artikulua bat idatzi genuen, eta Espainiako Kopan izandako emaitzak aztertu genituen. Judoketako bat Beñat Ovejera dela idatzi genuen, baina izen zuzena Beñat Ovejera da. Horrez gain, Kataluniako Tortosa hirian jokatu zuten kopa eta guk jarri genuen Lleidako probintzian dagoela, baina Tarragonako probintzian dago.



Buho antzezlaren une bat. TEATRO DE LA ABADIA

'Buho' antzezlana ikusgai Amaia antzokian

Titzina antzerki taldearen seigarren lana da 'Buho' antzezlana, eta hura ikusteko aukera izango dute arrasatearrek domekan, 19:30ean, Amaia antzokian. Amnesia izan duen antropologo baten adimenaren barruko bidaia bat jasotzen du lanak

Julen Murua Mesonero ARRASATE
Antropologo baten adimenaren barruko bidaia bat bizitzeko aukera izango dute arrasatearrek domekan, hilaren 28an, Amaia antzokian; izan ere, *Buho* izeneko antzezlana eskainiko dute han. 19:30ean hasiko da antzezlana, eta oraindik sarrerak salgai daude, hamar euroren truke, Arrasateko Udalaren sarrerren salmentaren webgune ofizialean: Amaiaarrasate.janto.es.

Buho antzezlana paleolitikoko aztarnategietan espezializatutako antropologo forentse Pablaren egoera jorrazten du. Amnesia larria eragiten dion iktusa izan zuen, eta haren oroimenean zehar barne-bilaketa bat egiten ari direla erakutsiko du antzezlana. Haren oroitzapenak, azken batean, beraren nortasuna, berreskuratzen saiatzeko. Espeleologo errealean esperientzia eta ezagutzak eta antzeko afekzioak dituzten pazienteen testigantzetan oinarritzen da antzerki-

ki-fikzioa. Gainera, ikusmen ahalmen handiko emanaldi bat bezala da.

Diego Lorca eta Pako Merino dira antzezlaren zuzendariak eta interpretazioaz arduratu direnak –Lorcak antzezlaren gidioa ere idatzi du–, eta antzezlana prestatu ahal izateko ikerketa-lan sakona egin zutela adierazi dute: "Gure sorkuntza guztietan bezala, hainbat hilabete bilaketa handi batean murgiltzeko adinako jakin-min eta obsesio puntu bat sortuko diguten gaiak edo ideiak bilatzen ditugu. Kasu honetan, bi oinarri nagusi ditugu abiapuntuetzat: bata, memoria, identitatearen funtsezko oinarri gisa; eta bestea, lurpea". Gainera, antzezla-

HOGEI URTE BAINO GEHIAGO DARAMATZATE BATERA LANEAN LORCAK ETA MERINOK

na ikustera joatea gomendatu dute: "Gure ohiko narratiban eboluzio batez gozatzeko aukera izango dute. *Buho* zentzumen-eranda bat da giza adimenean zehar, non ikusezina dena agertzen den. Ikusleak bidaia bat egingo du Pablaren adimenaren barnera, baina, sinergia dela eta, oroitzapen individual eta kolektiboak ere bisitatuko ditu gure espeziearen hasieratik".

Hogei urte baino gehiago

Lorca eta Merinok Parisko Jacques Lecoq antzerki-eskolan ezagutu zuten elkar, eta orduetik dihardute batera lanean. Duela 20 urte baino gehiago sortu zuten Titzina antzerki konpainia, eta, harrezkero, antzerki mota berritzaile baten aldeko apustua egitea izan da haien nahia: "Titzina beste antzerki mota batekin identifikatzen da, haren ziguilarekin, hausnarketara gonbidatzen duena. Ikusleari gauzak birplantearazten dizkio".

Antzerkia Familian ikastaroa antolatu du Doke taldeak

Otsailaren 17an izango da Antzerkia Familian ikastaroko lehenengo saioa, Doke Antzerki Eskolaren lokalean

J.M.M. ARRASATE

Doke Antzerki Eskolak Antzerkia Familian ikastaroa abiatu du, eta dagoeneko irekita dago izena emateko epea. Taldea osatzen duen pertsona kopurua bete arte egongo da irekita izen-ematea; parte hartu nahi dutenek edo informazioa jaso nahi dutenek antzerki eskolaren helbide elektronikora idatzi beharko dute: Dokeikastaroak@gmail.com.

Otsailaren 17an hasita, hiru blokeko saio bat izango da –lehenengo saioa otsailaren 17an bertan, bigarrena martxoaren 16an eta azkena apirilaren 13an–, eta bi ordu iraungo du, 10:00etan hasi eta 12:00ak bitartean. Ordaindu beharreko prezioari dagokionez, heldu bakarrak parte hartuz gero 80 euro ordaindu beharko ditu eta familia bereko bigarren helduak, berriz,

40 euro ordainduko ditu; haurrek ez dute ordaindu behar izango. Saiotako irakaslea Itziar Rosado izango da.

Adin tarte guztiei zuzenduta

Maidar Alcelayk, Doke Antzerki Eskolako kideak, adierazi du adinari dagokionez ez dela mugarik egongo, eta, beraz, edozein adin tartetako pertsonen parte hartu ahalko dutela. Gainera, Alcelayk adierazi du ez duela izan behar "gurasoen eta seme-alaben arteko zerbait", eta izan daitekeela, esaterako, "aitona-amonek bilobekin parte hartzeko ekimen bat".

Ekimenaren helburua "elkarrekin antzerkia egiten gozatzea" dela dio Alcelayk. Hainbat familia elkartzeko dira bertan, eta "antzerkitik eta interpretaziotik abiatutako jolasak" egingo dituztela azaldu du.

Koultur Ekintzak-ek otsaileko gitarrak aurkeztu du

Otsaila ate joka den honetan, Kultura Ekintzak-ek dagoeneko aurkeztu du urteko bigarren hilabeterako kontzertuen gitarrak. Betiko legez, kontzertuak astero izango dira, egunetan, Arrasateko gaztetxean; 22:00etan hasiko dira kontzertuak eta sarrerak zazpi euroren truke egongo dira salgai. Frantziako Les Lullies rock-and-roll taldeak

estrenatuko du otsailaren 1ean hileko Kultura Ostegunak ekimena. Bigarren astean, hilaren 8an, Muare taldea osatzen duen bikotea igoko da Arrasateko gaztetxe oholtzara, elektronika eta loopak uztartzen dituzten kantuak interpretatzera. Otsailaren 15ean, Bilboko EzEzEz taldearen txanda izango da. Hilaren 22an, Rüdiger taldearena. Eta hilabetea amaitzeko, hilaren 29an, jatorri euskaldun eta argentinarra duen SexPeares-ek egingo du kontzertua.

Julen Ribas arrasatearrik marraztu du 'Iris XXII'

Julen Ribas marrazkilari arrasatearra izan da Txalaparta argitaletxeak argitaratu berri duen *Iris XXII* komikiaren egileetako bat; Ribasek, zehazki, komikiko marrazkiak egiten jardun du. *Iris XXII* komikiak jasotzen duen guztiaren gaineko erreportaje idatzia irakurgai dago *Puntua* aldizkariko 397. zenbakiko 32. orrialdean.



Julen Ribas, komikiarekin. GARAZI ARRULA

"Itsaraz parkea ez dago herriko beharrekin lotuta"

ASIER AGIRRE ARAMAIOKO ALKATEA

Kargua hartu eta hilabetera egon da GOIENA Aramaioko alkate Asier Agirrerekin, kargu-hartzeaz eta agintaldi honetako erronkei buruz hitz egiteko

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Iban Herrartek alkate izateari utzi ostean, abenduaren 21eko ezohiko osoko bilkuran hartu zuen kargua Asier Agirrek. Hark badaki zer den Aramaioko alkate izatea; izan ere, 2007-2011ko agintaldian ere izan zen.

13 urte geroago, nola aurkitu duzu Aramaioko Udala?

Administrazio funtzionatzeko modua aldatu egin da dezente, konplikatu egin da. Horrek dakarrena da gertutasun administratibo herriarregandik zailtzea, baina zerbait orokorra da. Pertsonala eta Udalean dabilen jendea aldatu egin da. Sartu garen herriok harreman ona daukagu gure artean eta talde sendoa sartu gara Gobernura.

Politikatik kanpo zenbait urte egon ostean, herriro itzuli zara; zergatik? 2007tik 2011rako agintaldia oso gogorra izan zen. Ordura arte, hemen EAJren kudeaketa egon zen eta lan asko egin behar izan genuen. Parean tokatu ziren AH-Taren obrak, kontsulta, epaiketak... Horrek desgaste fisiko eta psikologiko bat markatzen du, eta politikatik aldentu nintzen. 2011n berriz aurkezteko aukerarik ez nuen izan, debekua medio. Beste ekimen sozial pilatan ibili naiz. Herrian jendea behar da udalgintzarako, eta Statkraften proiektua agertu zenean... Oso sentsibilizatuta eta arduratuta nago herriarekin eta ingurumenearekin. Ingurumen zinegotzi horregatik sartu nintzen.

Statkraften proiektua aipatu duzu; ze egoeratan dago proiektua?

Aurkeztu du proiektua, herrian azaldu dute zer egin nahi duten, eta gure ardura da herriak zer egingo duen. Saiatu gara herriari markoa ematen hitza izan eta ekarpenak egin ditzan. Orain, pauso bat harago joango gara sinadurak bilduta, eta, horren aurrean, gure herri postura bateratua izango dugu. Aramaio Bizirik-ekin eta herriko eragi-



Aramaioko alkate Asier Agirre, martitzenean, herriko plazan. I.A.A.

"LOTSAGARRIA DA BORROKAN IBILTZEA HERRI TXIKI BATEAN OSASUN-ZERBITZUA IZATEKO"

leekin batera joango gara norabide berean. Zer gertatzen den Statkraften proiektuarekin? Ez dagoela gure herriko beharrekin lotuta. Herrian ezer gutxi utziko digun beste burukomin bat gehiago izango da. Zer gertatuko den ikusiko dugu, baina guk gure postura zein den garbi daukagu.

Azaroan Ez gaude ados adierazpena onartu zuen udalbatzak eta abenduan egin duzue sinadura bilketa; zer erantzun jaso duzue?

Oso polita. Herriarren 600 sinaduratik gora jaso dira eta jende askok marko horren beharra adierazi digu. Azkenean, nonbaiten euren sentimendua adierazteko marko bat behar zuten. Hori sinatu duenak dio ez dagoela ados halako proiektu bat gure herrian jartzearekin. Larriena da energia berriztagarriak sortzen direla, baina erre-

gai fosilek sortzen duten kutsadurak berdin jarraitzen du.

Komertzio txikia, osasun-zerbitzua, biztanleria... Zer proposatzen duzue Aramaio Bizirik egoten jarraitzeko?

Herri batek herri izaera izateko herri bizitza eduki behar du. Medikua eta erizaina, adibidez, urte osoan egoten ziren lehen. Bi banketxe astelehenetik egubakoitzera zabalik, tabernak, farmazia, hiru denda... Hori guztia jaisten joan da. Gure nahia izango litzateke herri komunitate batekin zerbitzu horiek berreskuratzea eta lantzen joatea. Bestalde, kanpotik datozen zerbitzuak eman behar dizkigute. Hori da osasun-zerbitzuaren adibidea. Gero eta txarragoa da egoera. Medikua bajan egon den bitartean pairatu dugun egoera lotsagarriaren hurrengoa izan da. Borrokan ibiltzea herri txiki batean osasun-zerbitzua izateko lotsagarria da.

Esku artean beste zein gai duzue?

Mila proiektu eta mila lan, eta behar duguna da herriko jendea gurekin gauzak egiteko. Azkenean, hemen sartu garen sei pertsonon artean ezin dugu dena egin; herriarrek behar ditugu gurekin batera gauzak egiteko.

Zirkulazio araudia betetzeko dei egin die Udalak herritarrei

Autoak gaizki aparkatzeak herritarren eta ibilgailuen pasabideetan oztupoak eragiten dituela gogorarazi dute

I.A.A. ARAMAIO

Aramaio kaleetan autoak gaizki aparkatuta uzteak zirkulazioan sortzen dituen eragozpenak direla-eta, Udalak herritarrei dei egin die zirkulazio arazoak kontzientzia hartzeko eta araudia errespetatzeko.

Autoak herriko espaloi, zebra-bide nahiz debekatutako lekuetan aparkatuta uztea zenbait arazoren sorburu dela dio Aramaio Udalak, eta zenbait adibide jarri ditu: "Hondakinak jasotzeko kamioia pasa ezinda geratzen da, batzuetan, gaizki

aparkatutako autoek nahikoa leku uzten ez dutelako, eta ez hori bakarrik; kontuan hartu behar da larrialdiren bat sortuko balitz emergentzietako ibilgailuak ezingo lirakeela bertatik igaro". Nabarmendu dute ibilgailuek pasabidea oztopatzeaz gain oztupoak eragiten dizkietela ezinduei eta oinezkoiei ere.

Arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, Udalak aramaioarrei eskatu die herriko zirkulazio arazoak kontzientzia hartu eta araudia errespetatu dezaten.

Ludotekako ordutegia bere horretan mantenduko dute

Ludotekako ordutegiari buruzko galdeketa erantzun ahal izan dute erabiltzaileek urtarilaren 12tik 17ra bitartean, eta, guztira, 21 familiak erantzun dute. Horietatik hamabostek ordutegia eustearen aldeko erantzuna eman dute. Ikasturte hasieratik, astelehen, eguazten eta egubakoitzetan HHko umeak bakarrik egoten dira 16:15etik 17:45era bitartean, eta martitzen eta eguenean, berriz, LHkoak ordu tarte horretan. Ondoren, arratsaldearen bigarren zatian, 17:45etik 19:15era bitartean, ume guztiak elkarrekin egoten dira. Horrenbestez, erabiltzaileen feedbacka jasota, ordutegia horixe izango da datozen hilabeteetan.

'Convivir sanamente con la soledad' hitzaldia martitzenean

Beste urte batez, hitzaldi eta tailerrak egingo dituzte 2024an zehar Aramaio kultur etxean, +55 *elkartegiak* egitasmoaren barruan. Lehen hitzaldia urtarilaren 30ean izango da, arratsaldeko seietan, eta Joana Diaz de Aldak *Convivir sanamente con la soledad* hitzaldia egingo du –abenduan ziren egitekoak hitzaldi hori, baina bertan behe-geratu zen–. Martitzenekoaz gain, beste zazpi saio antolatuta dituzte otsaila eta maiatza nahiz iraila eta azaroa bitartean. +55 *elkartegiak* programaren bitartez, 55 urte baino gehiago dituzten arabarrentzako ekintza soziokulturalak antolatzen dituzte.

OHARRAK

Korrikako bilera

Korrika batzordeak bilera irekia egingo du martitzenean, 19:00etan, kultur etxean.

Bilera ganaduzaleekin eguaztenean

Herriko basoak erabiltzen dituzten ganaduzaleekin bilera 18:00etan izango da, udaletxean. Datuak jaso, arazoak partekatu eta dirulaguntzei eta inbertsioei buruzko iritzia jasoko dituzte.

Santa Agedako bazkarirako izen-ematea

Urtarrilaren 30a da bazkarian izena emateko azken eguna. 615 73 92 55 telefono-zenbakira deitu behar da. Bestalde, bigarren entsegua otsailaren 1ean egingo dute, 19:00etan, musika etxean.

Erabiltzaileak "gustura" gimnasio berrituarekin

Kardio-gunean korrikan egiteko lau zinta, bi bizikleta estatiko eta bost eliptika jarri dituzte, indarra lantzeko makina berriak iritsi dira eta entrenamendu funtzionalerako espazio bat egokitu dute; eta spinning gelako bizikletak berritu egin dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Ibarra kiroldegiko fitness-gunea eguaztenean zabaldu zuten, hainbat berrikuntza egin ostean. Berrantolatu egin dute eremua eta makina berriak jarri dituzte: "Hamaika urteko errodajea zuten eta erabilera handia eman diete, gainera. Bestetik, leku falta ere bazegoen, eta berrantolatu egin dugu, espazio berriak sortzeko eta pilaketak ekiditeko", eman du aditzera Gari Iturbe alkateak. Horretarako, 195.000 euro inbertitu ditu Udalak, eta *renting* sistema bidez ordainduko du; hau da, bost urtean errenta ordainduko du bukaeran erosteko.



Hainbat erabiltzaile Ibarra kiroldegiko gimnasioan, eguazten goizean. TXOMIN MADINA

21 bizikleta berri


Kardio-gunea moldatu egin dute eta makina berriak jarri dituzte: korrikan egiteko lau zinta, bi bizikleta estatiko eta bost eliptika. "Horiez gain, indarra lantzeko beste makina batzuk ekarri dira eta pisua lantzeko eremua handitu egin da, baita entrenamendu funtzionala egiteko espazioa egokitu ere, moketa berdea jarrita", azaldu du Udaleko Kirol teknikari Asier Mujikak.

Spinning gelan, bestetik, bizikleta guztiak berritu egin dituzte: 21, hain zuzen ere. "Softwarea ere eguneratu da, bertako saio gidatuek ibilbide berriak izan ditzaten", dio Mujikak.

Ia 3.300 abonatu


Gimnasioaren erabilerak gorakada handia izan du azken urteetan: "Fitness mundua bilakaera izaten ari da eta beste profil bateko erabiltzaileak ikusten ari gara; adibidez, nerabeen kopurua asko hazi da".

Ibarra kiroldegiak ia 3.300 abonatu ditu eta bertako kirol jardueretan 800 pertsona inguru dabilta.



HUR BARANDIARAN
ERABILTZAILEA

"Aldaketa igarri da. Sentadillak egitea gustuko dut, eta kaiola berria dago, segurtasun handiagoarekin jarduteko; lurzorua ere hobetu da".



ASIER GOROSTIZA
BEGIRALEA ETA
AHOLKULARIA

"Berrantolaketarekin eta makina berrieekin gura dena da erosoago egotea erabiltzaileak. Edonork proba ditzake, ez da inolako mailarik eskatzen".

BiHOTZez ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA

haur eta lehen hezkuntza (2-12 urte)

OTSAILAREN 3AN GOIZEZ BISITA GIDATUAK TALDE TXIKIETAN

HITZORDUA ESKATZEKO DEITU: 943 89 91 46
zuzendaritza@kurtzebarri.eus
* Banakako bisitak urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra.

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 7tik 23ra

ZATOK GU EZAGUTZERA!



Jokin Antxia, Mariatxen Urkia, Inma Miguel, Ainhoa Sanchez, Ibai Zangitu eta Txapel Txin, egitarauarekin. MIRARI ALTUBE

Egitaraua prest Aratuste giroan murgiltzeko

San Blas eta Txapel Txin egunek bat egingo dute otsailaren 3an, eta San Blatxin iritsiko da Aratusteetan parte hartzeko gonbidapena zabaltzera; egitarauaren berri eman dute dagoeneko, Astorgako Cesar Nuñez ilustratzailearen kartela aurkeztuta

Mirari Altube ARETXABAETA

Goiz datoz aurtien Aratustek, eta aretxabaletarrek, horren jakitun, prestaketa lanetan dihardute buru-belarri. Udaleko Kultura Sailak eta Karnabalen Lagunek ere etxerako lanak egin dituzte eta egitaraua aurkeztu dute Astorgako (Leon), Cesar Nuñezek egindako kartelarekin; izan ere, hark irabazi du lehia-keta, eta 300 euro jaso ditu. "22 lan jaso dira, guztira; asko izan dira, ezberdinak eta maila handikoak", azaldu du Udaleko Kultura zinegotzi Ibai Zangituk.

Mozorroak eta karrozak gertatzeko Udalak utzitako lokalean mugimendu handia dagoela gaineratu du Zangituk: "Giltza

asko eskatu dira eta jendea badabil lanean; batzuek dezente aurreratuta dituzte lanak. Beste batzuk, ostera, azken orduan ibiliko gara, betiko legez".

Herri bazkarietarako txartelak dagoeneko salduta daude; 1.000 lagun baino gehiago batuko dira horietan. "Bazkari *golfo*-ko txartelak salgai jarri orduko saldu ziren; frontoian 440 lagun inguru egongo dira eta beste 100 kanpoaldean jarriko den karpan. Kiroldegikoa ere ia erabat bete da; 580 inguru izango dira".

Egitaraua gertu dago

Egitarauari dagokionez ez da aparteko berritasunik izango: eguerdi parteko izarrak izango

dira txino dantza eta kuadrillen desfilea, eta arratsaldekoak, kaleetako jai giroa Gesaltza txarangari eta Mikeltxi DJari esker; eta hori borobilduko du Santa Ageda neska-mutilen dantza saioak.

Egun horretan benetako protagonistak herritarrak direla dio Zangituk: "Aratusteetako hego-haizearen zurrunbiloarekin zoratu egiten gara, eta kaleak betetzen dituzte kuadrillek eta jendeak. Herriak sortutako jai bat da eta politena da herriak zelako parte-hartzea duen jai horretan". K23 kuadrilla ere badabilela zerbait prestatzen onartu du: "Zerbait badator gure zartadatik, baina ezin ezer esan!".

Gune morea eta gehiago

Berdintasun Sailak antolatuta, gune morea jarriko dute Mitarte kalean otsailaren 11n.

"Informazio-guneaz gain, erasoak artatzeko leku bat gertatuko dute. Garrantzitsua da hori, gune morea indartu egingo duelako", esan du Ainhoa Sanchez zinegotziak. Sexu Bizik emango du zerbitzua. Sateviko telefono-zenbakia ere eskura jarriko dute salaketentzat: 900-84 01 11. "Erasorik gabeko jaiak izan daitezela, mesedez, guztiok disfruta ditzagun", dei egin du Sanchezek.

Txapel Txin eguna

Aratusteen aurretik, baina, Txapel Txin irtengo da lozorrotik herritarrak esnatzera; otsailaren 3an izango da hori. "San Blas eguna izanik, aurtien Txapel Txin izango da Blatxin", argitu du pertsonaiak berak. Egitaraua gertu dute ordurako: eguerdi partean, ume eta familientzako erraldoiak eta Txapel Txinekin kalejira izango dira, eta arratsaldean, kale animazioa, pregoia, bola-txapelketa eta Kaparrak taldearen emanaldia. Aratustek ondo pasatzera gonbidatzera etorriko da: "Esango diet lotsak etxean utzi eta kalera irteteko, eta disfrutatze!".

Datorren astean ikastetxeetara joango da: eguenean, Basabeazpin eta ludotekan izango da, eta egubakoitzean, Kurtzebarri eskolan eta Almenen.

Ikazkin Trail prestatzen hasteko irteerak bihar

Irailaren 7an egingo du UDak Ikazkin Trail mendi lasterketa. Hori gertatzen hasteko, mendi ibilaldiak antolatu dituzte urtarilaren 27rako; Herriko Plazatik abiatuko dira, 10:00etan, gidari batekin. Hiru ibilbide egongo dira aukeran: lasaia, erdikoa eta azkarra. Izena aldeztu aurretik eman behar da: https://labur.eus/irteera_urtarilak_27.

Korrikaren etorrera giotzeko lanak hasi ditu batzordeak

Ikastetxeetako kideek, udal ordezkariak eta herriko hainbat eragilek eratu dute Korrika batzordea, eta ekin diote lanari. Hala, arropa saltzeko postua jarriko dute otsailaren 3an, Txapel Txin egunean, Durana kalean, 11:30etik 14:00etara. Hurrengo batzarra otsailaren 1ean izango da, 18:00etan, udaletxe zaharrean; edonork parte har dezake.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Landaketa Torrebasen, 23 jaioberrien izenean

Domekan 11:00etan batuko dira 2023an jaiotako haurrak, Ibarraundi museoa, etxeok lagunduta, zuhaitz landaketa egiteko. Aurten, Torrebaso industrialdean egingo dute. Gainera, 2005ean eta 2008an jaiotakoak ere batuko dira

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Iaz 23 haur jaio ziren Eskoriatzan, eta haien omenez egingo da, beste urte batez, zuhaitz landaketa. Familiek jaso dute domekan egingo den ekintzan parte hartzeko gonbidapena, eta animatzen direnentzako hitzordua 11:00etarako egin dute, Ibarraundi museoa. Han batu, zuhaitz landaketaren gaineko zenbait azalpen jaso, landareak hartu eta Torrebasora joango dira; izan ere, hantxe egingo dute aurtengo zuhaitzen landaketa.

Urtero moduan, ekintza simboliko horrekin zenbait balio transmititu nahi ditu Eskoriatzako Udalak. "Zuhaitzek gure bizitzan duten garrantzia ikusarazi nahi da, eta jaioberrien familiak horren parte izatera gonbidatu. Zuhaitzek oinarritzko rola dute gure eguneroko bizitzan, ez bakarrik bizitza garatzeko funtsezko zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen dituztelako, baizik eta bestelako giroa sortzen dutelako, biodibertsitatea erakartzen dutelako, ura bizi-baliabide gisa babesten dutelako eta bizi-kalitatea, osasuna eta ongizatea hobetzen dutelako", adierazi du Saioa Altzuak, Eskoriatzako Udaleko Ingurumen Saileko teknikariak.

Eskaerari erantzunez

Iaz, egitasmoak aurrera egin zezan, ekintza elizateetara bideratzea ere proposatu zuten, hasiera batean; izan ere, lursaila izatea ezinbestekoa da landaketarako, eta herrigunean leku falta dago. Aurreko zenbait ediziotan ere leku bila ibili izan dira; landatutako zuhaitzak hainbat kasutan indarrik hartu ez eta ez dira hazi... Hala ere, aurtengo ediziorako topatu dute landaketarako leku aproposa, eta landatutakoak indartsu haziko diren aurreikuspena dago. "Landatzeko leku arazoa dago herrigunean. Zuhaitzak handi



Torrebasen, bikote bat oinez bidegorrian. IMANOL BELOKI

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTSEK ESKORIATZARI OPARITUTAKO PAGO ERE LANDATUKO DUTE

egiten diren landareak direla argi izan behar da, eta haientzat leku dezente behar izaten da. Iaz, Aste Berdea egin genuenean, lanera joateko eta alde batetik bestera mugitzeko motor gabeko ibilgailuak erabiltzen dituztenekin topaketa egin genuen. Haiek esan ziguten bizikleta asko erabiltzen zutelak... baina bidegorrian gerizpe falta dagoela zati batean. Beraz, herritar haien eskaerari erantzunez, Torrebaso industrialdean egingo dugu aurtengo landaketa", adierazi du Altzuak.

Gonbidapen berezia

Hainbat espezie landatuko dituzte, eta, guztira, hamabi zuhaitz ingururentzat lekua izango dela aurreikusten dute; hala, taldeetan banatuta egingo dute landaketa. Bi familiako zuhaitz bat landatuko dute, eta ez hori ba-

karririk: gonbidapena ere egin diete beste familia batzuei. Izan ere, iaz, Aingeru Guardako skate parke berria egiteko obrak hasi zirenean, sei zuhaitz kendu behar izan zituzten; hain zuzen ere, 2005ean eta 2008an jaiotako izenean landatutako zuhaitzak. Hori horrela, aurtengo Zuhaitz Eguneko landaketarako, urte haietan jaiotako pertsonen gonbidapena egin diete, haiek era parte hartu dezaten.

Pailazoen oparitutako pagoa

Pirritx, Porrotx eta Marimotsek euren ikuskizunean Eskoriatzari eskainitako pagoa ere landatzeko aprobetxatuko dute. Iazko azaroaren 24an, Pirritx, Porrotx eta Marimotsek *Ez gara jaitziko* ikuskizuna eskaini zuten Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian, Amazoniaren eta ama lurraren zaintzari irriak, jolasak eta kantuak eskainiz; eta emanaldi hartan pago bat oparitu zioten Eskoriatzako herritari, Zuhaitz Egunean beste zuhaitzekin batera landatzeko. Hortaz, pago hori gainontzeko lizar, astigar eta elorriekin batera landatzeko ere aprobetxatuko dute.

Kultura etxeko eta kiroldegiko desfibriladoreak, erabilgarri

Gailuak eraikinen kanpoaldera atera dituzte, eta orain, une roro, 24 orduz egongo dira erabilgarri

I.B. ESKORIATZA

Kultur etxean eta Manuel Muñoz kiroldegian aspaldidanik daude desfibriladoreak, baina, orain arte, eraikinen itxita egoten zirenean ezin izaten ziren erabili, eraikinen barrualdean geratzen zirelako. Joan den astetik aurrera, eraikinen kanpoaldera atera eta, beraz, orain, 24 orduz daude eskuragarri.

Desfibriladorea deskarga elektrikoak ematen dituen tresna da, bihotz-arazoren bat gertatutakoan taupaden erritmo normala berrezartzeko ezinbesteko

tresna. Udal eraikinetan dauden bi desfibriladoreak geolokalizatu daude; hau da, aparatua bere tokitik ateratzen den momentuan, larrialdi zerbitzuei abisua bidaltzen die eta emergentzia-plana aktibatzen du. Horrez gainera, aparatua ahots bidez adierazten dio erabiltzaileari zeintzuk diren emergentzia zerbitzuak iritsi bitartean jarraitu behar dituen urratsak. Desfibriladore horiek erabilera errazekoak diren arren, formakuntza-saioak antolatuko asmoa du Eskoriatzako Udalak.



JASONE ORBEGOZO

Adinekoekiko tratua ona lantzen

Adineko pertsonen tratua izan da aste honetako gaia. Harreman pertsonaletan intimitaterako eta pribatutasunerako eskubide izan dute hizpide Olazar Erretiratuen Elkarteak antolatutako saioan. Horrekin batera, herritartasunerako, partaidetzarako eta gizarte-ingurunea eraikitzeko eskubidea ere izan dute berbagai.

Mus txapelketako kanporaketa jokatu da domeka honetan

Euskal Herriko XV. mus txapelketako lehenengo kanporaketa jokatu da domekan, Inkernu tabernan. Herriz herri ari dira kanporaketak jokatzen, eta Eskoriatzako 16:00etan hasiko da. Bikoteka 20 euro ordaindu behar da lehiazteko, eta irabazleak herrialdeko finaletarako sailkatuko dira. Finala martxoaren 23an jokatu da, Zuberoan.

Tomaxek eta Muxik 'Azken festa' eskainiko dute

Tomaxen abenturak-en azken urtea izango da, eta agur esateko emanaldi berezia prestatu dute. Azken ikuskizun horretan euren ibilaldiaren unerik barregarrienak eta ederrenak bildu dituzte, eta domekan eskainiko dituzte horiek guztiak, 17:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrerak hiru eurotan daude salgai kiroldegian eta *bibe.me* webgunean.

Imanol Arregi, urteotako esperientzia partekatzera

Irurtzundarra Nafarroako areto futboleko Xota Magna taldeko entrenatzailea izan da 22 urtez, eta, Eskoriatza Kirol Elkarteak deituta, hitzaldia egitera etorriko da domeka honetan. Ibarraundi museoan 12:00etan izango da saioa, gazteleraz

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Imanol Arregi areto futboleko entrenatzailea 22 urtez Osasuna Magna Xotako entrenatzailea izan da, eta aurten eman dio amaiera talde irurtzundarra zuzentzeari. Xota taldea Nafarroako areto futboleko taldea da, eta hogeita laugarren denboraldia jarraian jokatzeko ari da Espainiako Lehen Mailan. Hala, Arregi esperientziaduna da kirol horretan, eta, Eskoriatza Kirol Elkartearen kideek miresmenegaz begiratuta, azalpenak emateko ekartzea lortu dute.



Imanol Arregi entrenatzailea. PABLO LASAOSA

Erasoko teknika hizpide

Haren ibilbide profesionalaz arituko da saioan; erasoan landu daitezkeen teknikak azalerratuko ditu, eta, agian, haren etorkizunaz ere jardungo du. Japoniako Nagoya Oceans taldeak begiz jota du, eta baliteke hurrengo denboraldian entrenatzaile gisa hantze. Izan ere, Imanol Arregi Estatuko entre-

natzailek errespetatuenetakoa eta kotizatuenetakoa da, eta baita udako merkatuko zalantza handienetakoa bat. Azken erabakia harena den arren, Nagoya Oceans taldeak fitxatuko duela aurreikusten da.

Areto Futboleko Liga Nazionalak Ohorezko Mailako ligako entrenatzaile onena izendatu zuen, eta zenbaitetan jaso du Espainiako Entrenatzaileen Komiteak banatzen duen sari preziatua; hau da, Areto Futboleko Estatuko Elkarteak eskaintzen duen Magna saria. Kasu horretan, gizonezkoen lehen mailako entrenatzaile onena izendatu zuten. Horrez gain, kirol elkarreentzat eta Federazioak antolatutako saioetan aritu izan da hitzaldiak egiten.

Jokalariak, entzun eta ikastera

Hirugarren Mailako Eskoriatza areto futbol taldea mailari eutsi nahian ari da, eta, lan horretan, sailkapeneko azken postuetatik irteteko urratsak egiten ari da. Asteburu honetan Mondrateren aurka izango du derbia, eta, partidua amaituta dagoela izango dute aukera Imanol Arregi areto futboleko entrenatzailearen saioa entzuteko.



Gatzagarrek Gatz Museo ingurua txukuntzen, auzolanean. DORLETA ELKOROBARRUTIA

Gatz Museo ingurua txukundu eta bide-zati bat egokitu dute

PR eta GR bideak batzen diren bide-zatian eskailera bat egin dute, oinezkoek errepidea ekidin dezaten

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Hamar lagun elkartu, eta Gatz Museo ingurua garbitu eta txukundu dute, *Gure eta gure ondorengokoen etorkizuna zaindu eta mantendu dezagun* lelopean.

"Museo ingurua txukundu dugu: bide bazterrak garbitu, sastrakak kendu, zuhaixkak eta zuhaitz batzuk bota ditugu, teiltura erortzeko arriskua zegoelako. Horrekin batera, museoko teiltua ere garbitu dugu. Hostoz eta makilatxo beteta zegoen; orain, oso ondo geratu da", adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako Udaleko Mendi zinegotziak.

Eskailera jarri dituzte

Beti egon da bidea Gatz Museo-tik Dorleta Santutegi aldera, baina zati hura egokitzea egin beharreko lana izan dela azaldu du Bengoak: "Bidea ez zegoen erabilgarri, eta handik pasatzeko egur batzuk jarri ditugu, eskailera bat izango balitz moduan. Hala, errepidea ekidin ahal izango dute nahi dutenek, eta, beraz, arrisku bat gutxiago. Horrekin batera, PR eta GR bideekin konexioa egiten du bide-zati horrek, eta, hala, asko erabiliko delakoan gaude", dio Bengoak.



JOKIN MERINO

Javi Sound DJarekin dantzaldia izango da bihar, zapatua

Eskoriatzako Udalak negu garaian hilean behin dantzaldi bat antolatzeko hartutako erabakiarekin aurrera jarraitzen du, eta, hain zuzen ere, zapatu honetan izango dute hitzordua dantza egin gura dutenek, Zaldibar antzokian. Javi Idigoras *Javi Sound DJ* oñatiarra arituko da aretoa musikaz girotzen, arratsaldeko sei eta erdietan. Duo Imperialek eman zion hasiera Eskoriatzako dantzaldien zikloari; ondoren, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañaga aritu ziren, batez ere, erromeria doinuak eskaintzen, eta oraingoan *Javi Sound* arituko da. Guztiendako saioa izango da eta sarrera doakoa da.



IBAN URRETA

Donostiako danborrada girotzen

Eskoriatzako Ad Libitium txaranga gaztea da, eta sortu zutenetik zenbait saio eskaini dituzte herrian. Hala ere, urtarrilaren 20an, zapatua, Donostiako danborradan parte hartu zuen. Izan ere, San Sebastian eguna barru-barrutik bizitzeko aukera izan zuten txaranga partaideek, eta pozik eta alai aritu ziren eskoriatzarrak Donostiako kaleetan zehar.

Horma-irudia handitzen

Emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko herria irudikatu zuen horma-irudia egin zuen Iban Urreta marrazkilaria, Ane Zuazubiskar bertsolariarekin batera, Azaroaren 25ari keinua eginaz. Orain, gai berarekin lotuta -tximeletak- egindako irudiaren inguruan eta elektrizitateko txabolan egin du marrazkia. Martitzenean hasi eta bukatu zuen lana.

"Urte oparoa" inbertsioetarako

2024rako 33.411.085 euroko aurrekontua izango du Udalak, 2023koa baino %9,2 handiagoa eta sei milioi euro inguruko inbertsio gaitasunarekin. EH Bilduren arabera, proiektuak gauzatzeko urtea izango da; EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergarako Udalak 33.411.085 euroko aurrekontu bateratua izango du 2024rako, Udal Euskaltegirako eta Mizpirualde egoitzarako aurrekontuak ere aintzat hartuta. 2023koa baino %9,2 handiagoa da 2024ko aurrekontua eta sei milioi euro inguruko inbertsio gaitasuna izango du Udalak.

Agintaldiko lehen aurrekontua EH Bilduren Udal Gobernuak azpimarratu zuen 2024a "urte oparoa" izango dela inbertsioei dagokienez, urte luzeetako eskaera batzuei erantzun ahalko zaielako eta beste hainbat proiektu berritzaile martxan jarriko direlako: "Pandemiak eragindako krisi batetik gatzoz eta inbertsioetarako izan dugun marjina oso txikia izan da. Aurtengo marjina honekin aurreko urteetan planteatu ezin izan diren inbertsio garrantzitsu batzuk gauzatzeko aukera izango dugu. Gainera, 2024ko aurrekontuak dira onartu berri ditugunak, baina badira inbertsio batzuk epe luzeagoa eskatzen dutenak; agintaldi hasiera da,

eta esan dezakegu, hein handi batean, lau urterako begiradan oinarritutako aurrekontuak direla", esan zion GOIENARI EH Bilduko bozeramaile Maite Usabiagak.

Hirigintza arloko inbertsioak

Hain zuzen ere, agintaldi berriko "mugarri" izango diren bi proiektu azpimarratu zituen Usabiagak: Barrenkalea eta San Martin plaza berritzea eta Martokoa kalea berriro urbanizatzea; bi proiektu horietarako 500.000 euro bideratuko dira 2024an. Horrez gain, beste inbertsio aipagarri batzuk dira, besteak beste, Arrizuriaga jauregiko lanak bukatu eta herritarrei kultura ekipamendu bezala irekitzeko eta han Emakume Etxea egokitzeko 750.000 euro; udal eraikinetan energia berriztagarriak ezartzeko eta udal ur-sarea hedatzeko 700.000 euro; autobus geltokitik Eskusarte kalerainoko bidegorriaren hurrengo fasea egiteko 400.000 euro; udal frontoiko teilatua eta pareta konpontzeko 350.000 euro; eta Agorrosin kiroldegiko gimnasioa berritzeko 200.000 euro. Eta

aurten inbertsio txikiagoak eskatuko dituzten beste proiektu garrantzitsu batzuk ere badaude; adibidez, Oxirondo azokan orain arte berritu ez den ezkerreko aldea txukuntzeko 80.000 euro. Erikaenea gunea joango den eremuko lan handienak amaituta daude, eta espero dute azoka berritua udaberrian martxan egotea.

EAJk "borondate falta" salatu du

EH Bilduren aurrekontu proposamenaren aurka bozkatu zuten EAJk eta PSE-EEK. EAJko bozeramaile Mikel Leteren arabera, kontra bozkatu zuten negoziatioetan eurek egindako ekarpenek ez dutelako esperotako erantzunik jaso: "Uste dugu gure hamabi proposamenek nabarmen hobetuko zutela Udal Gobernuaren aurrekontua. Hamabi ekarpen horietatik bi onartu dizkigute eta esan digute beste bi edo hiru lizitatuta edo konpromisoa hartuta zudela gauzatzeko; baina ez digute ezer garbirik esan. Horregatik eskatu genien informazio zehatzagoa, eta gaur da eguna ez duguna informazio hori jaso".

Letek azpimarratu zuen "adostasunak lortzeko" lan egin dutela: "Ateak itxi dizkigute, gehiengo osoz gobernatzen dutelako. EH Bilduk ez du EAJ-rekin elkarlanerako biderik zabaldu edota borondaterik azaldu. Agintaldi hasieratik oposizioa aintzat hartzeke gobernatzen ari dira, eta baditugu horren inguruko hainbat adibide. Edozein kasutan, aurrekontuetan gure botoa kontrako izan arren, elkarlanean aritzeko borondatearekin jarraituko dugu; hori bai, Udal Gobernuari jarrera aldaketa eskatzen diogu".

Aurrekontuak onartzeko bilkurako eztabaida nagusia izan zen EAJk irakurketa hori egin zuenean. Izan ere, EH Bilduk "harridura" agertu zuen EAJren informazio eskaera zela eta: "Informazioa ezkututzen dugula leporatu digute, eta hori da zilegi. Informazioa ez daukagu giltzapean, euren eskura badute informazio hori. Badaude batzordeak eta lan bilerak eta badituzte baliabideak informazio hori eskuratzeko. Badute pertsona bat liberatuta lan hori egin dezakeena... Horregatik harridura gaude informazioa eskatu digutelako; are gehiago, negoziatioetan sintonia bat egon denean".

"AURREKO URTEETAN PLANTEATU EZIN IZAN DIREN INBERTSIOAK GAUZATZEKO MODUAN GAUDE AURTEN"



MAITE USABIAGA
BERGARAKO
UDALEKO EH BILDUREN
BOZERAMAILEA

PSE-EE ere, kontuen kontra

Alderdi sozialistak ere kontra bozkatu zuen, kontinuitate, anbizio gabekoak eta bergarrei ekarpenik egiten ez dieten aurrekontuak direla argudiatuta. Udalbatzaren aurrean hitza hartu ez bazuen ere, honako hau erantzun zion GOIENARI PSE-EEko bozeramaile Alberto Alonsok: "Logikoa da ez bagaude ados udal zergen eta tasen igoerarekin ez garelako ados egongo horiek zahutzeko moduarekin. Batetik, uste dugu aurreko agintaldian zehar alderdi sozialistak aurrekontuetan sartzea lortu zuen partidak oraindik ere lozorroan daudela, eta ez dagoela benetako borondaterik partida horiek sustatzeko. Eta, bestetik, ikusten jarraitzen dugu beste partida batzuk daudela ez dutela ezertan aberasten bergararren bitzita; Uemarendako dirulaguntzen partida da horren adibide garbia. Mota horietako laguntzak kenduta zergak eta tasak arindu ahalko lirakeke herritarrentzat, baina Gobernuak mantendu egin ditu. Gure ustez, partida horiek soberan daude".

Aurrekontuaren %3,6 auzoetara

Udal Gobernuaren arabera, 2024an ere garrantzia emango diete auzoei. Aurrekontu osoa-

"12 EKARPENETATIK BI BAKARRIK ONARTU DIZKIGUTE ETA EZ DIGUTE INFORMAZIO ZEHATZIK EMAN"



MIKEL LETE
BERGARAKO
UDALEKO EAJ-REN
BOZERAMAILEA

2024rako zehaztutako inbertsio nagusietako batzuk



San Martin plaza eta Barrenkalea Agintaldiko mugarrietako bat izango da herriko plaza eta Barrenkalea berritzea. 2024an 500.000 euro bideratuko dira, baina proiektu osoak hiru milioi euro inguruko kostua izango du.



Martokoa Agintaldi osora begirako beste proiektu bat izango da Martokoa kalea berriro urbanizatzea. 2024an 500.000 euroko partida bideratuko da, baina inbertsio gehiago beharko du datozen urteetan.



2024rako udal aurrekontuaren bozketa: EH Bildu alde (10) eta EAJ (6) eta PSE-EE (1) kontra. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

ren %3,6 auzoetara bideratuko dute, eta, besteak beste, baserri bideen konponketarako eta ego-kitzapenak egiteko 380.000 euro bideratuko dira; EH Bilduk dioenez, lan horietara bideratutako partida handiena da "azken hamarkadetan". Auzoekin jarraituz, Osintxu biziberritzeko planari jarraipena emango diote, 185.000 euro bideratuta; udalbatzak abenduko osoko bilkuran adostu zuen Txuringo taberna erostea 143.000 eurotan, auzoa bera biziberritzeko "estrategikoa" dela iritzita. Gainera, aipatzekoa da Osin-

"EZ GAUDE ADOS TASEN IGOERAREKIN ETA, BERAZ, EZTA HORIEK XAHUTZEKO MODUAREKIN ERE"



ALBERTO ALONSO
BERGARAKO
UDALEKO PSE-EE-KO
BOZERAMAILEA

txuk gune degradatu izendape-na jaso zuela 2019ko ekainean eta zain daudela Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza noiz jasoko, han esku-hartze garrantzitsu batzuk egiteko. Auzotarren arabera, "laster" jasoko dute erantzuna Jaurlaritzatik.

Berdintasun Saila indartu

2024ko udal aurrekontuko ber-ritasunen artean dago Berdintasun Saila indartzeko nahia. Udal Gobernuak %30 igo du sail horretara bideratutako diru kopurua, Ogasun zinegotzi Aitor Arantxabalek zehaztu zuenez: "2023an Berdintasun Sailari aurrekontuetan partida propioa aitortu ondoren, bide horretan sail hau indartzen jarraitzeko apustua egitea proposatzen dugu 2024an ere. Berdintasuneko partida ia %30 igoko dugu. Arlo horretan, esaterako, Emakumeen Etzerako parte-hartze prozesua jarriko da martxan, eta, lehenengoz, indarkeria jasaten duten emakumeendako dirulaguntzak ere eskainiko dira".

Jasangarritasuna lehenetsun

Behin-behineko izaeraz onartu diren aurrekontuetan jasangarritasuna ere lehenetsun moduan zehaztu du EH Bilduk: "Jasangarritasunaren bidean urratsak egiten jarraitzeko inbertsioak handitzea aurreikusten dugu, eta, horregatik, udal eraikinetan energia berri-erreserbituak ezartzeko eta udal ur-sarea hedatzeko asmoz, 700.000 euro bideratuko dira". Horrez gain, lurren erosketak publikoak egin eta ingurumenari lotutako proiektuak gauzatzeko jarraitzeko asmoa ere badute; hain zuzen ere, Kuku-baso elkartarekin batera Baso Mahaia eratu zuten iaz, eta, Aldundiarekin hitzarmena sinatu ostean, Gorlara bidean dagoen Itsasmendiko eremuan sei hektareako lursail bat erosi dute, pixkanaka bertako basoa eta biodibertsitatea berreskuratzen joateko. Otsail amaieran bertan zuhaitzak landatzea dago aurreikusita, besteak beste.

Bergarako Udaleko sailen banaketa

Sailak	Aurrekontua
Gobernu Organoak	909.865 €
Idazkaritza	1.483.460 €
Udaltzaingoa	1.553.230 €
Informatika	580.536 €
Obra eta Zerbitzuak	8.066.868 €
Kultura	2.360.967 €
Artxiboa	246.295 €
Liburutegia	213.605 €
Museoa	465.290 €
Turismoa	250.980 €
Ondare Historikoa eta Artistikoa	64.000 €
Kirolak	3.580.270 €
Hezkuntza	699.502 €
Gazteria	444.950 €
Euskara	865.011 €
Kontu-hartzailletza	1.746.647 €
Gizarte Zerbitzuak	2.795.650 €
Berdintasuna	219.365 €
Hirigintza	2.466.937 €
Auzoak	1.190.365 €
Ingurumena	2.208.695 €
Sustapen Ekonomikoa	738.255 €
Totala	33.150.743 €

ITURRIA: BERGARAKO UDALA



Arrizuriaga Etorkizuneko kultura ekipamendua izango den jauregiko lanak amaitzeko eta han Emakume Etxea egokitzeko 750.000 euroko partida dago 2024rako.



Bidegorria Ibargaraitik San Antoniorako lehen fasea amaituta, bigarren fasea 2024an gauzatzea dago aurreikusita; 400.000 euroko partida bideratu dute.



Udal pilotalekua Herriko frontoi nagusiko pareta eta teilatua konpondu nahi ditu Udalak aurten, eta horretarako 350.000 euro bideratzea adostu dute.



Azterako ispilua apurtuta kale hauetan aparkatutako autoetan: Espoioian, Ibargarain, Mintegin eta San Martzial bidean. J.M. ETA GOIENA

Gau bakarreko erasoan, gutxienez 69 salaketa

Ertzaintzaren arabera, urtarrilaren 19tik 20rako gauean "aspaldiko ekintza bandaliko handiena" gertatu zen Bergaran, 100 bat autotan kalteak eraginda; martitzenera arte emandako datuen arabera, Udaltzaingoan 51 salaketa jaso dira eta Ertzaintzan, berriz, 18

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Urtarrilaren 19tik 20rako gauean, aspaldian ezagututako ekintza bandaliko handiena izan zen Bergaran. Udaltzaingoak eta Ertzaintzak jakinarazi dutenez, 100 auto inguru kaltetu zituzten; batez ere, azterako ispilua apurtu zituzten. Ibilgailu gehienetan ezkerreko azterako ispilua agertu ziren apurtuta edo kaltetua, horiek zirelako espaloien aldean geratzen ziren ispilua. Martitzenean 69 salaketa zeuden erregistratuta; horietatik berrogeita hamaika salaketa jaso dira Udaltzaingoan eta gainerako hemezortziak, Bergarako ertzain-etxean.

Herriko hainbat lekutan

Aipagarria da herriko hainbat lekutan agertu zirela kalteak autoetan. Ertzaintzak emandako kale-zerrendaren arabera, besteak beste, Matxiategin, Fraiskoazuri plazan, Ibargarai etorbidean, Toki Eder plazan, Zabalotegin, Martokoan, Ozaetan eta Ibarra aparkatuta

zeuden autoen gidariek jarri dituzte salaketak.

Herritarren laguntza bila

Ertzaintzaren esanetan, inoiz ez dute ikusi halako neurriko bandalismo ekintzarik herrian aparkatuta zeuden autoetan, eta gaineratu dute gertaera ikertzen ari direla Udaltzaingorekin elkarlanean. Oraingoan, baina, ez dituzte egilea edo egileak identifikatu.

Horregatik, herritarrei eskatu diete gertaeraren gaineko edozein informazio badute ertzain-etxera edo Udaltzaingora jotzeko, halako egoeretan "herritarren laguntza oso lagungarria izan ohi da eta". Udalean ere harriduraz hartu dute al-

LEKU ASKOTAN IZAN DIRA ERASOAK: TOKI EDER, MATXIATEGI, FRAISKOZURI, OZAETA, MARTOKOA, IBARRA...

bistea, eta gaia "barne mailan" lantzeko konpromisoa du Udal Gobernuak.

Kaltetuen haserre

Erasoen berri GOIENARI eman zion autoaren jabeari azterako ispilua apurtu zizkioten, eta bereziki harrirituta zegoen inguruko auto guztietan ere antzeko kalteak ikusi zituelako: "Nire autoari azterako ispilua apurtu dizkiote eta nirearekin batera beste auto asko zeuden egoera berean. Poliziak esan digunez, 100 bat autotan izan dira kalteak; esan dute halakorik ez dela gertatu inoiz Bergaran".

Erasoa gertatu eta egun batzuetara beste auto baten jabe batekin harremanetan jartzeko aukera izan du GOIENAK; ez du kameren aurrean hitz egin nahi izan eta nahiago izan du izen-abizenik ez eman, baina oso haserre dago gertaeratik; haren kasuan, alboetako bi ispilua apurtu dizkiote eta zenbait marradura egin.



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Eskerrik asko!

Orain egun batzuk, Mizpirualde egoitzan bizi zen gure senitarteko bat agurtzea egokitu zaigu, eta tarte hau aprobetxatu nahiko nuke eskerrak emateko. Hasteko, bertan duten ate irekietako politika azpimarratu nahiko nuke, edozein tokitara, sarbidea izan dugu bisitan joateko, ikusteko... Eta hori eskertzekoa da, baina honen atzean dagoen konfiantza eta gardentasuna dira, bereziki, esanguratsuak. Bestetik, bertako lantaldea aipatu nahiko nuke, osotasunean. Beraien profesionaltasuna, gertutasuna, enpatia, bidelaguntza... beraien funtzioetatik harago doa. Milaka adibide jarri ditzaket: egunerokotasuneko keinua, begirada, laztan txikia, momentu zailenetan hori arintzeko egindakoak... Honegatik guztiagatik eskertu nahiko nuke lantaldea.

Eta bukatzeko, beraien lana bistaratu eta eskertu ostean, aprobetxatu nahi dut beraien lan baldintzak hobetzeko aldarrikapena egiteko, guztientzako onura izango baita. Zaintzak erdigunean jartzeko ordua da, osasun sistema publiko, duin eta kalitatezkoa merezi dugulako. Eskerrik asko Mizpirualde egoitzako ekipo guztiari.



JOKIN BEREZIARTUA

Gaur irekiko dute zubi nagusia

Astlehenean goizean zehar itxi zuten Ibargarai zubi ibilgailuentzat, herritik irteteko GI-627 errepidera; herrira sartzeko zabalik egon da bidea. Asfaltatze eta bestelako lanen ondorioz egon da itxita Bergarako zubi nagusia. Udaletik adierazi dutenez, lanak aurreikusitako eritmoan gauzatu dituzte, eta, azken ordurik ezean, gaur bertan zabalik egongo da zubi bi noranzkoetan.

100 bat lagun batuko ditu Kukubasok domekako landaketan

Kukubaso elkarteak buru-belarri jarraitzen du Bergaran bertako basoa berreskuratzeko epe luze-ko helburuarekin. 2024ko lehen landaketa domekan izango da, Sanmartzialalden. Royde kooperatibak lagapenean eman dio lursail bat Kukubasori: "Royde enpresarekin elkarlanean eta Udalaren laguntzarekin egingo dugu landaketa. Bertako 250

zuhaitz landatuko ditugu eta kabi-kutxa eta saguzar-etxola batzuk ere jarriko ditugu. Oraingoan, lehen aldiz, intsektuendako etxola ikusgarria ere jarriko dugu. Dena amaitutakoan hamarretako goxoa egongo da Royde enpresari esker". Izen-ematea itxita dago, dagoeneko badira eta 100 bat lagun: "Lursail txikia da eta bete dugu behar dugun kopurua; aurrerago aukera gehiago egongo dira". 10:30ean San Martzialgo ziburuetan elkartuko dira; oinez igotzea eskatu dute.

"Gustuko dut kaiola; are gehiago, etxean lehiatuta"

ANDER ETXANIZ BERGARA KIROL ELKARTEKO PILOTARIA

Urtarrilaren 30ean abiatuko den Soraluze txapelketan Etxaniz izango da herriko ordezkari bakarra; otsailaren 6an jokatuko du lehen jardunaldia, Oier Hormaetxeren aurka (19:30)

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Gabonetan lesionatu arren, ilusio bereziarekin helduko dio Ander Etxanizek (Bergara, 2001) etxeko txapelketa kutunari, Soraluze lau eta erdikoari.

Zelan zaude orain bertan sasoi aldetik?

Gabonetan atzamar bat apurtu nuen eta hiru bat aste geldi egon behar izan nuen. Aurreko astean itzuli nintzen frontoira, eta, 22-19 galdu, arren sentsazio aldetik ondo joan zen partidua, espero nuena baino hobeto sentitu nintzen. Ez nago nire sasoi puntu onenean joko aldetik, baina baikorra naiz eta gogotsu nago Soraluze txapelketarako.

Herrian lehiatzeak beti eragiten du motibazio berezia...

Halaxe da. Astebete izango dut, Soraluze txapelketako bigarren jardunaldian hasiko naizelako lehiatzen, eta ikusiko da nola heltzen naizen. Frontoia ondo ezagutzen dut, eta bereziki gogotsu nago. Maila handiko txapelketa da, garrantzitsua, eta etxean jokatuko dudana; Euskal Herriko hainbat frontoitan aritzen naiz, baina ez dut aukera askorik izaten Bergaran jokatzeke. Lagunek beti galdetzen didate ea noiz jokatu behar dudan Bergaran, eta ziur ez zaidala haien babesa faltako. Bai, berezia izango da.

Frontoia ezaguna duzu... eta modalitatea? Nola ari zara kaiolan?

Gustatzen zait kaiola, eta esango nuke ondo moldatzen naizela. Denboraldi honetan bertan Gipuzkoako txapelketa irabazi dut lau eta erdikoan, eta horrek konfiantza puntu gehigarria ematen dit.

Ze helburu zehaztu duzu Soraluze txapelketarako?

Nire maila onenera gerturatu eta itxura ona eman nahiko nuke, neure buruarekin gustura geratu. Lehen jardunaldia gaintzea da lehen helburua, eta gero, ikusiko dugu...; ezin



Etxaniz pilotari astintzeaz, artxiboko argazki batean. GOIENA

"LEHEN JARDUNALDIA GAINDITZEA DA LEHEN HELBURUA; BETIERE, ITXURA ONA EMANDA. GERO, IKUSIKO DUGU..."

da ahaztu Euskal Herriko pilotari onenetakoak etorriko direla eta ez dela erraza izango.

Debagoienak beste ordezkari bat ere izango du, Ander Murua arrasatearra. Nola ikusten duzu?

Goian dagoen pilotaria da. Ondoko herrikoa da eta oso harreman ona dugu, askotan kointziditzen dugu frontoian. Harreman ona dugu, baina baita sekulako pikea ere... Ondo ikusten dut txapelketara begira, faboritotako bat da.

Beste izenik aipatuko zenuke faboritoen artean?

Asko gustatzen zait Oian Canabal. Oso pilotari gogorra da, kaiolako modalitatea ondo baino hobeto kontrolatzen duena. Defentsan zein erasoan oso ondo dabil, eta ziur irabazteko lehian sartuko dela; nire kinietan, behintzat, faborito nagusietako bat da.

Martitzenetan jokatzen dira partiduak... Badago giroa harmailetan?

Txapelketako jardunaldiakurrera joan ahala zale gehiago etortzen da; finaletan beti egoten da zale kopuru polita. Martitzenetan eta berandu izan arren, giroa egoten da, eta hori pilotariok asko eskertzen dugu.

Soraluze txapelketaz harago, zer eskatzen diozu 2024ari pilota arloan?

Hasteko eta behin, minik ez hartzea. Azken bi urteetan, Gabonetan atzamarra apurtu arrera zurea ahala zale gehiago etortzen da; finaletan beti egoten da zale kopuru polita. Martitzenetan eta berandu izan arren, giroa egoten da, eta hori pilotariok asko eskertzen dugu.

Nola dago BKEko pilota saila?

Lan handia egiten ari da zuzendaritza taldea. Gainera, Beñat Rezusta begirale aritzeak lagundu egiten du neska-mutikoak erakartzeko. Gazteen artean pilotari kopuru polita dago, baina kadete eta gazte mailetan beharakada nabarmena dago oraindik ere.

Eskubaloit taldeko gazte mailako nesken igoera fasea asteburuan

Euskadiko igoera fasea jokatuko du Goizper BKE taldeak Eibarren; aste bukaeran hiru partidu jokatuko dituzte

J.B.L. BERGARA

Gazte mailako Goizper BKE eskubaloit taldeko neskek Euskadiko igoera fasea jokatuko dute asteburuan Eibarko Ipuruia kiroldegian. Lau talderen arteko hiruko ligaxka jokatuko dute eta horrek esan nahi du Bergarako taldeak hiru partidu jokatuko beharko dituela hiru egunetan; domekan lehen postuan amaitzen duen taldeak soilik lortuko du igoeraren sari preziatua. Denboraldi bikainaren ostean, azken bi partiduak galdu ostean heldu dira bergararrak igoera fasera.

"Denboraldi osoan galdutako partidu bakarrak izan dira, baina denboraldi osoan erakutsitako defentsa gogorra eta eraso azkarra islatzen bada Eibarko kantxan, edozein talde menderatu dezakegu", adierazi dute.

Hiru partidu hauek jokatuko dituzte bergararrak igoera fasean: gaur, 16:45ean, MEK Eibar eskubaloia taldea izango dute aurrez aurre; bihar, 11:45ean, Cimde Elgoibar taldearen aurka jokatuko dute; eta etzi, 10:00etan, Zuazo Gorria taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Kepa Errastiren 'Postdatarik gabeko gutunak' obra bihar

Xake Produkzioak konpainiaren *Postdatarik gabeko gutunak* antzezlan ikusteko aukera izango da bihar, hilak 27, Seminarixoan (21:00). Sarreraren prezioa zortzi euro da. Kepa Errastik idatzi eta Getari Etxegaraik zuzendutako antzezlan da, eta Nerea Ariznabarreta eta Kepa Errasti bera izango dira oholtza gainean; hamabost urte kartzelan pasata

aske geratzeko ordubate geratzen zaion presoaren bakarrizketa taularatuko dute. Errastik ondoan izango du Nerea Ariznabarreta, *Charlot* eran jantzitako pianista mutu baten paperean; bost urte preso eman dituen Mikel pertsonaiak (Kepa Errasti) bere bizitzaren errebaso bat egingo du; bizimodu berri bat hasteko ordubate geratzen zaio. Igorle misterioitsu batek azken hilabeteetan postdatarik gabe bidalitako gutunak ekarriko ditu gogora.

OHARRAK

Kontzertuak protagonista kartzela zaharrean

Gaur, hilak 26, Bergarako Fly Shit taldeak diskoa aurkeztuko du etxean, Kataluniako Brot Bord taldearekin batera (22:00). Sarrera zortzi euro da. Bihar, hilak 27, Belako eta J. Martina taldeek joko dute (22:30). 30 sarrera jarriko dira salgai kontzertu aurretik, zortzi eurotan; gainerako sarrera guztiak di-da baten agortu ziren hilaren 19ko aurre-salmentan.

Berriketan egitasmoan izena emateko aukera

Euskaraz berba egiteko ohitura dutenak euskaraz praktikatu nahi dutenekin elkartzeko ekimenak zabalik du izen-ematea, urte osoan: 605 71 24 69 edo jardunkultura@topagunea.eus.

Xake ikastaroan parte hartzeko gonbidapena

Xakean jokatzen ikasteko edo maila hobetzeko ikastaroa martxan da Bergarako Xake Taldean; martitzen arratsaldeetan elkartzeko dira, Zabalotegiko dorre azpiko lokalean. Izena emateko: 671 84 15 63 (Jon) edo 618 41 76 25 (Javi).

Torradak eta pellak egiteko ikastaroa

Otsailaren 6an izango da, Gure Ametsa elkartearen (18:30); izena eman daiteke hilaren 31ra arte, www.bergara.eus-en.



Uren desbideratzean, hilerri aldetik behera doazen Altzarera bideratuko dituzte, ezkerraldeko aparkalekueetatik. A.R.K.

3.589.972 euroko udal aurrekontua proposatu du Udal Gobernuak

715.000 euro aurreikusten dituzte inbertsioetarako, eta Kalebarrenera doazen urak desbideratzea da lehentasunetako bat, Lezetaren arabera. Horrez gain, baita Altzeta eta Loixeta baserrietara ur edangarria eramateko proiektua gauzatzea ere

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

2024ko udal aurrekontuen proposamena aurkeztu du Antzuolako Udal Gobernuak joan den eguaztenean, hilaren 24an, jendaurrean. 3.589.927,88 euroko proposamena egin du, iaz baino 497.674,88 euro gehiago –alegia, %16,09 handiagoa–, eta Gipuzkoako Foru Funtsetatik lortutakoa da kopuruaren zati handi bat; zehazki, 1.812.631 euro, aurrekontu osoaren %50,49.

Udal aurrekontu horiek onartzeko osoko bilkura, ordea, atzo arratsaldean egin zen, eta Olatz Lezeta alkateak, beraz, eguaztenean adierazi zuen behin-behinekua zela proposamena, EAJ-ri ere eginiko ekarpenak esker-tuta, "batik bat, gastuetan-eta" zituzten batuketa akatsengatik. Lerro hauek idazterakoan, beraz, ez zen jakinekua aurrekon-

tuak onartuko zituzten edo ez. Nolanahi ere, Josu Xabier Aranguren EAJko bozeramaileak GOIENARI aurrez jakinarazi zion ez zituztela aurrekontu horiek babestuko, baina Udal Gobernuari elkarlanerako proposamena egingo ziotela: "Hutsetik hasi eta elkarrekin landu genitzake edukia duten aurrekontu estrukturatu batzuk; hori positiboa izango litzateke herri-rako".

Lehentasunetako inbertsioak

Udal Gobernuak aurkeztutako proposamenari dagokionez,

IAZKOA BAINO %16,09 HANDIAGO DA EGIN DUEN PROPOSAMENA; ERDIA FORU FUNTSETATIK DATOR

715.000 euro zehaztu dituzte inbertsioetarako; hain justu, aurrekontu osoaren %21,6, baina Lezetak nabarmendu du "guztiak gauzatuko dituzten arren" bitan jarri dutela lehentasuna: Kalebarrengo uren desbideratzea eta Altzeta eta Loixeta baserrietako uraren fasea.

Kalebarrengo uren desbideratzeari dagokionez, 88.000 euroko inbertsioa egitea aurreikusten du Udal Gobernuak, euriteekin-eta sortzen diren arazoak saihesteko. "A-636 errepidea egin baino lehenago, urak bere bidea egiten zuen alde banatetik: batetik, Altzarteko hoditik bideratzen zen ibairaino; bestetik, Kalebarrenen dagoenetik". Alabaina, Lezetak zehaztu du obrak egiterakoan Kalebarrengo hodira bideratu zirela ur guztiak, eta, ondorioz, urak gainezka egin ohi duela

Inbertsio nagusiak

2024ko udal aurrekontuetan hainbat diru-partida zehaztu ditu Antzuolako Udal Gobernuak, urtean zehar gauzatzeko asmoz. Urtero legez, hainbat dira izango dituen gastuak, baina badira garrantzia duten inbertsioak ere. Aurten, Udal Gobernuak 715.000 euro proposatu ditu inbertsio nagusienetarako.

Zehaztutako inbertsioen zerrenda

Herriko argiteria hobetzea	310.000 €
Kalebarrengo ur desbideratzea	88.000 €
Hainbat proiektu	76.000 €
Zurrategiko kioskoa	60.000 €
Patio inklusiboa	47.000 €
Torresoroako teilatua	40.000 €
Lurrak erosi	30.000 €
Kalebarrengo peatonalizazioa	25.000 €
Sarraila sistema digitalizatzea	22.000 €
Altzeta eta Loixeta baserrietarako ura	17.000 €

Oharra: udal aurrekontuak lantzeko osoko bilkura baino lehenago jasotako datuak dira hauek; onartzuz gero, horrela geratuko lirateke, baina baliteke aldaketaren bat izatea.

eta inguru-tako komertzioetan-eta arazoak sortzen direla. "Bada, orain, Sagastitik Aiher-rara doan bidetik bideratuko dugu ura, aparkalekueetatik; lehen bezala, Altzarteko hodira joango da ura".

Horrez gain, alkateak azpimarratu du lehentasuna izango duela Altzeta eta Loixeta baserrietara ur edangarria eramateko proiektuak ere, ez dutelako horretarako hornidurarik, gaur-gaurkoz. 17.000 euroko diru-partida proposatu dute.

Argiteria eta kioskoa

Inbertsioen artean lehentasuna ez bada ere, zenbateko handiena jaso du dirutan herriko argiteria hobetzeko asmoak. 310.000 euro zehaztu dituzte, eta LED argiak jartzea aurreikusten dute, herriko kontsumoa %70 jaisteko. Horretarako, gainera, Lezetak adierazi du Europako Next Generation dirulaguntzetatik 121.000 euro jasoko dituztela.

Zurrategiko kioskoa ere mol-datu nahi dute. Udal Gobernuak esku artean du dagoeneko proiektua, eta espazioaren erabilgarritasuna hobetzea dute xede: barandak jarri eta kentzeko aukera izango du, eta baita al-

boetan toloak instalatzeko ere. Are gehiago, eskailerak pixka bat zabaldu, eta jarri eta kendu daitekeen plataforma bat egin daiteke. Horretarako, 60.000 euro proposatu dituzte.

Eskolako patioa eta Torresoroa

Antzuolako Herri Eskolan ere lanak egin nahi dituzte, barruko patioa "inklusibo" bihurtzeko, 47.000 euroren truke. Epeei dagokienez, gainera, martxoaren 31 baino lehenago gauzatu behar dira lanak, dirulaguntza bat jaso ahal izateko. Eskolaren alboan, berriz, Torresoroan, teilatua konponduko dute, itoginak-eta egon ohi direlako, 40.000 euroko aurreikuspenarekin.

Beste proiektu batzuk

30.000 euroko diru-partida proposatuta, herriko lurrak erostea ere inbertsioen artean du Udal Gobernuak, batez ere, bertako basoen alde egiteko.

Zirkulazio arauak kontrolatzeko, berriz, Kalebarrenen kamerak jarri nahi dituzte, 25.000 euroko aurrekontuarekin; zehaztutako ordutegietatik kanpo dabilzan autoei, beraz, argazkiak aterako dizkie.

Udal eraikinetako sarraila sistema ere aldatu nahi dute, 22.000 eurotan.

Azkenik, hainbat proiektu eta plan landu asmo dituzte, 76.000 eurotan: HAPO, Azaldegietako bidea, udaletxeko eraikina berritzea, Eztalako belarra aldatzea eta komunikazioa hobetzea.

HERRIKO ARGITERIA ALDATZEKO 310.000 EURO AURREIKUSI DIRA; INBERTSIORIK HANDIENA DA

Garapen pertsonalerako, meditazio praktikak bide

Norbanako bakoitza bere osotasunean bizi dadin, Amaia Etxaniz eta Jesus Mari Mata antzularrek Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gurasoentzako tailerrak egingo dituzte otsailean eta martxoan. Meditazioa izango dute tresna, batik bat

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarría ANTZUOLA

Garapen pertsonalaren formakuntzak helburu du norbanako bakoitzak "sentitzen, pentsatzen eta susmatzen duenaren kudeaketa bideratzea", Amaia Etxaniz eta Jesus Mari Mata antzularren arabera. "Egun, zientziak erakusten du hau dela bakean eta osotasunean bizitzeko modua, bizitza benetan dastatzeko". Haien hitzetan, "geroz eta errazagoa eta sinpleagoa da mundu mentala eta emozionala" lantzea; betiere, horretarako erremintak izanez gero.

Bada, tresna horiek eskaintzea dute xede gurasoei zuzendutako tailerretan; batik bat, meditazio ariketa praktikoen bitartez, "sinpleak eta eraginkorrak" direlako, eduki apur bat tartekatuta.

Lehen urratsak, eskolan

Etxanizek eta Matak azaldu dutenez, Antzuolako Herri Eskolako ikasleak dagoeneko hasiak dira prestakuntza jasotzen, *Barnetik hazi eta hezi* proiektuaren parte baita, eta orain, gurasoengana jauzi egin nahi dute. "Gurasoek egitea eta esperimintatzea ona da norberarentzat, eta familiarrean egin ahal izatea errazten du. Seme-alabekin harremana nabarmen hobetzen da". Are



Jesus Mari Mata antzularra, artxiboko irudi batean, *Nigan* izeneko saioan. GOIENA

gehiago, erantsi dute era horretan "kultura aldaketa bat" erdietsi nahi dutela: "Barrura bizitzea ahalbidetzen duen aldaketa bat".

Hala, bi talde egingo dituzte: Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako hirugarren mailara arteko ikasleentzako gurasoentzako otsailaren 4 eta 18an izango dituzte saioak; laugarren mailatik seigarren mailara artekoak, berriz, martxoaren 10 eta 24an. Orlaranen izango dira saioak, 10:00etatik 13:30era, eta udal txean eman behar da izena;

gutxienez, hamar pertsonakoak izango dira taldeak.

Ezagutza partekatuz

Urteak daramatzate formakuntzak ematen, eta, horrez gain, gurasoak ere badira. Hala, euren ezagutza eta esperientziatik abiatuko dute tailerra. Lehenengoan gurasoek bakarrik hartuko dute parte; bigarrenan, berriz, seme-alabekin. "Saiatuko gara tailerra atsedean hartzeko, gelditzeko, gozatzeko eta geure burua ondo zaindu ahal izateko espazio bat izaten".



NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

Zuhaitza eta basoa

Zein da komunitate batek interes orokorrari begira eskaini beharko lukeen tributua?

Argi dago hemen inork ez duela bere ongizatea kaltetuko lukeen ezer etxe aurrean nahi. Denok gara gai gertuko adibide bat edo beste aipatzeko. Gurean, Irimoko haize errotak daude eztabaidagai, eta herrian ari dira proiektu honen inguruan informazioa eskaintzen eta alegazio sinadura bilketa egiten.

Agerikoa da Antzuolako udalerrriak dagoeneko tributu handia ordaindu duela. Hor dugu herrigunearen haren estua aldenik alde zeharkatuz Beasain-Durango autobidea edo Abiadura Handiko Trenaren trazadura. Hori gutxi ez, eta gasbideak eta Gueñes-Itxaso autobide elektriko erraldoiak gure auzoak ere zeharkatzen ditu lur azpi eta zerutik. Ez al dira nahikoa arrazoi proiektu berri honi ezetz esateko?

Hala ere, norbanakooi autokritika egitea ere komeni zaigulakoan nago; izan ere, gerta liteke esku artean dugun tokiko arazo batek arazo larriagoaren aurrean koherentziaz ez jokatzea eragitea.

'Harira' saioan izango da Olatz Lezeta alkatea, otsailaren 2an

Debagoieneko alkateak izango dira protagonista datozen egubakoitzetan *Harira* saioan, Goiaz Arana kazetariak aurkeztuta 2023-2027ko agintaldiko lehen elkarrizketak egingo baitituzte Goiena telebistan.

Bada, Olatz Lezeta Antzuolako alkatea izango da lehen gonbidatua, datorren egubakoitzean, hilak 2 -18:30, 20:30 eta 22:30-. Herriko kontuen gaineko galderak erantzungo ditu, eta herriarrek ere galderak egiteko aukera izango dute, hilaren 29ko 15:00ak baino lehen galderak bidalita. Posta elektronikoz egin dezakete: berriak@goiena.eus; edo Whatsapp zein Telegram bidez: 688 69 00 07.

OHARRAK

Abesbatzaren sorrera

Udalak eta Bergarako Musika Eskolak abesbatza sortu nahi dute, Vinaixa Gartzia gidari dela. Hilaren 29ra arte eman daiteke izena, udaletxean.

Mus txapelketa

Euskal Herriko mus txapelketako hirugarren kanporaketa jokatuko da etzi, 16:30ean, Arin tabernan. Finala, berriz, otsailaren 4an jokatuko dute.

Costa Brava

Costa Brava (Herrialde Katalanak) egingo du bidaiari Landatxoepi maiatzaren 10etik 17ra, eta otsailaren 1ean azalpenak emango dituzte elkartean, 16:30ean.

OLATZ LEZETA

ANTZUOLAKO ALKATEA

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'

OTSAILAREN 2AN, EGUBAKOITZA, 18:30, 20:30 ETA 22:30

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus 688 69 00 07

EPEMUGA: URTARRILAREN 29AN, 15:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Intxortako Ahuntzak Trail taldeko kideak eta jarraitzaileak lasterketan parte hartzera dei egiten. TXOMIN MADINA

Dortsala eskuratzeko astebete gehiago

Martxoaren 16an jokatu dira Ahuntzen lasterketa eta Antxumeen lasterketa, eta antolatzaileek buru-belarri dihardute prestaketa lanetan. Izen-ematea ondo joan da, baina dortsalak gelditzen dira, eta astebete zabaldu dute apuntatzeko epea

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Intxortako Ahuntzak Trail taldeak azaroan iragarri zuen Ahuntzen eta Antxumeen lasterketaren hirugarren edizioa. Martxoaren 16an egingo dute, eta, izen-ematea ondo joan bada ere, oraindik dortsalak gelditzen dira eta izen-emate epea astebete luzatzea erabaki dute. "Otsailaren 2ra arteko epea ipini ge-

nuen, baina 9ra arte luzatu dugu. Nagusien lasterketarako ehun bat dortsal gelditzen dira eta gazteen lasterketarako, 30 bat", azaldu dute antolatzaileek.

Berrikuntza nagusia, Egoarbitza
Bost kilometro gehiago izango ditu aurten Ahuntzen lasterketak, hogeit hamar inguru; izan ere, Egoarbitza ere ibilbidean sartu

dute, lehenengoz. "Lehen edizioan kanpoan gelditu zen, baina bagenuen Egoarbitza ere ibilbidean sartzeko asmoa. Aurten izango da. Elgetako mendirik politena da, nire ustez", esan du Eleder Lozanok. Hala, Elgetako lau tontor zapalduko dituzte lasterkariak. Hurrenez hurren, Karabieta (506 m), Egoarbitza (730 m) -eta Aixolaraino (310 m)

jaitsi ostean-, Erdella (682 m) eta Intxorta (737 m). "Ez da lasterketa bereziki gogorra. Marka egitera datoz batzuk eta parajeaz goatzera beste batzuk. Inguruak merezi du".

Iaz 300 lasterkarik hartu zuten parte Ahuntzen lasterketan eta 25 gaztek Antxumeen lasterketan. David Rua elorriarra (1.14.47) eta Oihana Kortazar elgetarra izan ziren azkarrenak nagusien lasterketan. Julen Badiola (17.00) eta Maddi Barrutia (24.42), berriz, gazteenean.

"Gogortasun maila norberak ipintzen du"

ELEDER LOZANO FERNANDEZ
INTXORTAKO AHUNTZAK TRAIL

Intxortako Ahuntzak Trail taldeko bultzatzaile nagusietakoa da Eleder Lozano (Sestao, 1975). Lasterketaren antolaketan dihardu lehen ediziotik. Gogotsu dago aurtengorako ere. **Dorsal batzuk gelditzen dira oraindik, ezta?** Iaz, itxarote-zerrenda nahiko luzea egon zen, eta 50 dorsal gehiago atera ditugu aurten. Gelditzen dira, bai. Horregatik luzatu dugu izen-emate epea.



T.M.

Etortzekoak dira iazko irabazleak?

Bai. Oihana Kortazar hemen izango da, eta David Rua ere bai. Uste dut maila polita izango dugula.

Aurreko edizioetan egon ez denari zer esango zenioke? Animatzeko. Elgeta mendiz inguratuta dago, eta oso paisaia politak daude. Lasterketa honetan bakoitzak bere helburua du. Gogortasun maila norberak ipintzen du.

Hain zuzen ere, Antxumeen lasterketarako ere badaude dortsalak: "16 urtetik beherako gazteendako proba da. Aurreko edizioetan moduan, lau kilometroko lasterketa izango da".

"LASTERKETA MARTXOAREN 16AN IZANGO DA; IZEN-EMATEA ZABALIK DA: 'HERRIKROSA.EUS'

Errelebo arazoak dituzte Xalbadorpe elkarteak

162 bazkide ditu uztailen 44 urte beteko dituen elkarteak; zuzendaritzak laguntzaileak eskatu ditu

L.Z.L. ELGETA

Xalbadorpe erretiratuen elkarteko kideek hilaren 16an egin zuten urteko batzarra. Errelebo eta ekintzak antolatzen laguntzeko boluntario faltarekin kezu da Jose Antonio Ojanguren presidentea. "Aurreko sei lagunok jarraitu beharko dugu zuzendaritzan, eta boluntarioak eskatuta ere jendea nekez armatzen da. Lanak banatu aldera hama sei lagun eskatu genituen lau ko lau talde osatzeko. 2024rako badaude, baina aurreko urteetako jende bera gara gehienok".

Elkartearen etorkizunaren inguruan zalantza handiak ditu Ojangurenak. "Iritsiko da ueña non galdetu beharko dugun jendeak elkartearen ixtea nahi duen".

2024ko ekintzak martxan dira

Iazko ekintzek balorazioa positiboa jaso dute, eta 2024ko egitaraua oso antzerakoa izango da. Hileroko podologo zerbitzua, lau irteera, ohiko kultura ekintzak, informatika ikastaroak eta betiko ospakizunak daude aurreikusita. "Aurten, 80 urtetik gorako bazkideen bazkaria egi-



Xalbadorpe antolatuta urrian Balmasedara egun-pasa joandako taldea. XALBADORPE

tea ere tokatzen da". 6.000 eurotik gorako aurrekontua da; "Udalaren laguntza ezinbestekoa izango da", esan du Ojangurenak.

Aldaketa nabarmenena da urteko kuota kobratzea -10 eurokontu korrante bidez egingo

dela. "Triste da, baina ordaintzera etortzen ez den jendea dago, eta nekeza da atzetik ibili behar izatea. Fitxategia osatzen eta eguneratzen ari gara, eta banketxe bidez kobratuko dira kuota hemendik aurrera".

Koko-batzerako izena emateko azken eguna dute gaur elgetarrek

Asteburu honetan ere zabalik egongo da erakusketa buztin-gelan. Atzo pasa ziren handik eskolako hainbat ume, eta datorren egunean pasako dira gainerakoak.

Erakusketan bertan dagoen paper batean eman behar dute izena koko-batzean parte hartu nahi dutenek. "Euskal kulturaren arnagune bat da koko-eskea. Eta parte hartzen dugun bakoitzak da garrantzitsua. Baserritarrek eskertu egingo dute gure bisita", azaldu dute Goibeko Euskaltzaleen Topagunetik. Gogorarazi dute, bestetik, gaur egingo dutela dantzak ikasteko eta zalantzak argitzeko azken entsegua, 19:30ean, gimnasioan.

Pumptrack-gunea, otsail erdialderako prest

Azken xehetasunak jartzea falta da pumptrack-gunean, eta bizpahiru astean lanak amaituta egongo direla adierazi du Elgetako alkateak. San Roke kalean ere hasi dituzte euri-urak eta ur zikinak banatzeko obrak, eta bi hilabete irautea aurreikusten du

Idoia Aranbarri Arzuaga ELGETA

Elgetako pumptrack-gunea ari da itxura hartzen, eta Ibon Unzetabarrenetxea alkateak aurreratu du otsailaren erdialdean prest egongo dela. Lan handiena eginda dago, baina xehetasun txikiak falta dira; esate baterako, itxitura jartzea inguruan, panel informatiboa eta parkera jaisten den aldapan abiadura murrizteko neurriak. "Hori guztia jarri arte ez da publikora irekiko. Garrantzitsuena segurtasuna bermatzea da orain", nabarmendu du Elgetako alkateak. Emaitzarekin ere "oso gustura" agertu da. Gainera, profesional batek probak egin ahal izan ditu pistak: "Itxura oso ona du; probatu dugu horretara dedikatzen den pertsona batekin eta oso ondo dago".

2023ko urtarrilean egin zituzten orubea prest uzteko lanak, eta, hormigoizko horma altzatzarekin batera, Aixolarako bidean hobekuntzak egiteko baliatu zituen obrak Udalak. Abenduaren hasieran hasi ziren lanetan pumptrack gunean, eta Poolsport enpresak egin ditu, 72.593,95 eurotan. Bi zortziko izango ditu Elgetako pumptrack guneak, 500 bat metro karratuko azalera, eta elkarren artean konektatuta daude. Obrak hasi berrikan ez zekiten *wallride* egiteko aukera egongo zen edo ez, baina Unzetabarrenetxeak baieztatu du saltoak nahiz *wallride* egin ahalko direla.

Alabaina, bizikleta, patin edo patineteekin ibili ahal izango da han. "Motor ibilgailuak izan ezik, beste edozer", nabarmendu du alkateak.

San Roke kaleko lanak, abian

Euri-urak eta ur zikinak banatzeko lanekin hasi da Gipuzkoako Urak San Roke kalean, eta, gutxi gorabehera, bi hilabete iraungo dute lanek. Lehenengo, urak bideratuko dituzte, Unze-



Pumptrack-gunea. LARRAITZ ZEBERIO



San Roke kaleko lanak. LARRAITZ ZEBERIO

tabarrenetxeak azaldu duenez, eta, ondoren, baldosak egokituko dituzte Intxorta elkarte parean, irisgarritasuna hobetzeko.

Aurrekontua 40.000 euro ingurukoa izatea aurreikusten du: "Ez zen 5.000 eurora iristen. Baina Udalak kaleko beste aldean dauden baldosak konpontzeko konpromisoa hartu zuen, eta, horrekin, 40.000 euro izatea aurreikusten da; agian, gehiago".

Herrian luzaroan egon dira obra horiek egiten hasteko zain, eta San Rokeko lanen hasierak

bide emango die kaleko urbanizazio lanei: "Asko itxaroten egon gara; orain, San Roke kaleko irisgarritasuna hobetzea tokatzen zaigu".

Beste obra bat amaitzean da

Elgetatik Bergararako bidean ere lanak egin dituzte azken asteetan. San Antonio parean zanga zabaldu dute, gune hartatik Arantzetara ura eramango duen hodia sartzeko. Alkateak jakinarazi duenez, lanok amaitzean daude.

Data dute Mendi Mendia Racing jaiak eta Piñu-Kokuren martxak

Azken egunetan iragarri dituzte datak, eta lehena otsailaren 24an izango da; enduro martxa, apirilaren 6an

I.A.A. ELGETA

Otsailaren 24an egingo dute VI. Mendi Mendia Racing jaiak. Oraindik kartelak argia ikusi ez badu ere antolatzaileek GOIENARI aurreratu diete iazko egitarauaren antzerakoa prestatu dutela; aldatu dutena dela kontzertuak emango dituzten taldeen zerrenda: Iskanbila, Neallta Fola eta Sindy Berbenas. Mendi Mendia Racing jaiaren helburuetako bat da rallyak eta motorraren mundua herritarrengana gerturatzea. Horretarako, goizean, rally-autoak eta auto klasikoak elkartuko di-

tuzte, nahi duen guztiak gertutik ikusteko aukera izan dezan. Gainera, iaz nobedade izan zenak ere aurten lekua izango du egitarauan; izan ere, herriko mendi lasterketa ere egingo dute eta ondoren, sari banaketa. Eguna borobiltzeko, poteoa eta bazkaria ere egongo dira.

Bestalde, endurozaleek apirilaren 6an izango dute aukera Piñu-kokuk antolatutako IV. Enduro Martxan parte hartzeko. Data baino ez dute iragarri, baina adierazi dute laster emango dutela informazio gehiago.



S.A.

Arantzabal, hirugarren postuan

Neguko Bolak Txapelketako buru joan zen Sebas Arantzabal Markina-Xemeinera hilaren 20an. Orduan jokatu zuten azken jardunaldia, eta elgetarrak hirugarren postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean, hamasei txirlorekin –bigarrenarekin, Olaitz Rodriguezekin, berdinduta–. Lehena Iker Arizmendiarieta izan zen, hamazazpi txirlorekin.

OHARRAK

Bigarren eskuko mozorro azoka

Elgetako plazan gaur 16:30etik 17:30era mozorroak trukatu, saldu edo oparitzeko aukera egongo da. Eguraldi txarra bada, frontoian egingo dute azoka.

Astrotopaketa eguaztenean

Ilatargi elkartearen gidaritzapean egingo da astrotopaketa liburutegian, hilaren 31n, 18:30ean hasita.

Amantalak-en batzarra

Amantalak talde feministak batzarra egingo du eguaztenean, kultura etxeko lokalean, 19:00etan. Batzarrak bi astean behin izango dira.

Mendiko larreetan egin beharreko lanak aztergai

Gipuzkoako Goilarre programaren barruan, batzarra egin dute Aldundiko eta Udaleko ordezkariak eta mendi larreetan jarduten duten herriko ganadu-jabeek. 80.000 euro daude 2024an inbertsioak egiteko, eta beharrak identifikatzen hasi dira

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gipuzkoa mailako Goilarre programaren harira, urteroko batzarra egin dute Oñatiko abeltzainek Aldundiko eta Udaleko ordezkariarekin. Mendiko larreen kontserbazioan eta larre haietan jarduten duten ganaduzaleen bizi- eta lan-baldintzetan eragin handiena duten inbertsioak planifikatzen dira programa horren baitan, eta, Oñatiri dagokionez, Udalaren jabetzakoak diren lurrrak sartzen dira: batez ere, Aloña eta Aitzgain inguruak. 80.000 euroko aurrekontua bideratzen da urtero; Udalak 27.000 euro eta 53.000 euro Aldundiak. Aloabelen, bertako abeltzainen elkartearen eta Udalaren artean adosten dira egin beharreko hobekuntzak.

Larreratzearen onurak

Lan horiek era askotarikoak izan daitezke. "Adibidez, sasiak kentzekoak egiten dira, makinaz edo eskuz, ura eramateko proiektuak ere egoten dira, eta baita, adibidez, ganaduarendako itxiturak jarri edo berritu", Landa Garapeneko batzordeburu Xabier Igartuak azaldu duenez. Hain zuzen ere, joan den urtean egindako lanen errepaso egin dute bileran, eta baita 2024rako ekin-tzak zehazten hasi ere.



Joan den urtean herri onurako larreetan egindako lanetako bat. OÑATIKO UDALA

Udalak emandako datuen arabera, guztira, 3.385 abelburu larreratuko dituzte udaberrian Oñatiko herri onurako mendietan, eta horrek dakartzan onurak azpimarratu ditu Igartuak: "Abere horiek larreak egotea bermatzen dute. Mendia zikindu

HERRIKO ABELTZAINEN ETA UDALAK ADOSTEN DITUZTE EGIN BEHARREKO LANAK

egiten da, otea gailenduz, adibidez, eta abere horiek gabe desagertu egingo lirakeke zelaiak. Larre moduan erabiltzen dituzte espazio haiek herriko abeltzainek, eta mendia garbi mantentzen da horrela. Alde biko irabaziak ditu".

Hazi fundazioko Amelia Ortubaik hesi birtualerako lepoken berri eman du bileran; larreen kontserbazioa helburu duen eta abeltzainendako baliabideak probatzen dituen Ruraltxa proiektuaz mintzatu da.



IMANOL SORIANO

Aitortza odol emaileei

Oñatiko bederatzi odol emailek Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen aitortza jaso dute urtarrileko odol ateratze egunean. Diplomak eman zizkieten, eta oroigarria Mertxe Sanz de Galdeanori, 80 aldiz baino gehiagotan eman duelako odola. Hurrengo odol ateratze eguna otsailaren 16an egingo dute.

Bihar da Emakumion Etxia definitzeko hurrengo bilera

Emakumion Etxia definitzeko prozesu parte-hartzailearen barruan, bihar, zapatua, egingo dute hurrengo bilera irekia.

Etxearen erabilera eta erabiltzaileak izango da zapatuko lan-saioaren gai nagusia. Hau da, eraikina nork, nola eta zertarako erabiliko duen eztaba-datzeko, adosteko eta erabakitze saio irekia izango da. Zuzeneko itzulpen zerbitzua egongo da; norbaitek zaintza zerbitzua behar badu, jar dadila harremanetan Udaleko Berritasun Departamentuarekin: berdintasuna@onati.eus.

Bilera Eltziako hirugarren solairuan izango da, zapatuan, 10:00etatik 13:30era.

Herriguneko auzoko jaiak antolatzeko bilera astelehenean

Astelehenean, otsailak 5, egingo dute herriguneko auzoko jaiak antolatzeko bilera, 18:30ean, kultura etxean.

2024ko jaien egitaraua zehaztea izango da lehen puntua, eta, behin hori eginda, antolaketa-rako beharrezkoa zer duten komentatuko dute. Batzorde bakoitzak eskaerak egin behar ditu: oholtzarena, txosnarena, komunena eta argiarena zein urarena. Erraldioen eta txorimaloen zein musika ekipoaren kudeaketa ere adostu beharko dute.

Joan den urtean herri barruko zortzi auzotan antolatu zituzten jaiak. 2024an Santa Marinakoak gehituko zaizkie.

3.385 abelburu udaberrian herri lurretara

Udaberriko larreratze kanpainaren barruan, 3.385 abelburu eramango dituzte herriko abeltzainek Aloña, Araotz eta Artiako herri onurako mendietara: 2.678 artabere, 524 zaldibere eta 183 abelgorri. Larreratuko diren animalien identifikazio, osasun neurri eta tasak eguneratuta eta beteta egin dute kopuru horren larreratze eskaera abeltzainek.



Ardiak ura edaten Aloña inguruko askan. GOIENA

Lanuzteak egingo dituzte Natran hilaren 30etik aurrera

Natrako langileek lanuzteak egingo dituzte, LAB eta ELA sindikatuek aditzera eman dutenez. Hitzarmen berria lortzeko negoziazioak "blokeatuta" daudela salatzen eta "atzera-pausorik ez" dutela onartzen aldarrikatzeko. Txanda bakoitzeko bi orduko, lau orduko eta 24 orduko lanuzteak, 30etik otsailaren 15era, sei egunetz.

Gazteluaitzi buruz arituko dira datozen egunetan

Gazteluaitzi buruz hitz egitera joango da martitzenean Iñaki Sagredo historialaria zinema-aretoa, 19:00etan, Nabarralderen Historia Hamabostaldiaren barruan. Aurretik, baina, Gazteluaitzera egingo dute irteera. Domekan izango da, hilak 28; Arantzazuko Sindikatik abiatuko dira, 09:00etan, eta Bellotzatik bueltatu.



Oskorri taldeko gitarra jotzaile Bixente Martinez eta Amaia Azpiazu abeslaria, herritarrekin batera, agurreko ekitaldian. A.A.

Musika eta esker hitzak Xabier Ugarte agurtzeko

Musikaren bueltan egindako lana ez ezik, hark zuen izateko era –"beti laguntzeko prest"– goraiatu zuten haren agur ekitaldian bildutako senide, lagun eta herritarrek. Zuzeneko gitarra musikaririk eta kanturik ere ez zen falta izan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI
Musikarekin eta esker oneko hitzekin agurtu dute Xabier Ugarte asteen. Musikari lotuta beti, gitarrari, bereziki, herriarendako izan diren hainbat proiektutan parte hartu zuen, hala nola agustindarren artxiboa txukuntzen, herriko musikariei eta abesbatzei laguntzen eta Artixa elkarteke kide izanda herriko historia zatiak jasotzen.

Lana eta izaera

"Beti laguntzeko prest denoi, beti pozik eta konforme" gogoratzen zuen herritar batek haren omenezko agur ekitaldian, astelehenean. Antzerako hitzak erabili zituzten han bildutako askok Ugarterekin gogoratzean. Senideak, lagunak eta bestelako herritar asko bildu ziren, toki askotara heldu zelako hura. Hark egindako lana eta, batez ere, haren izateko era nabarmendu zuten. "Musikari ona bakarrik ez, pertsona moduan ere ez ze-

goen besterik. Oso argia zen, eta oso handia, era berean. Musikari lotuta, harreman handia izan dut harekin. Aita Madinaren izena hartu genuen bikote moduan, eta urteetan kontzertu klasiko eta Errenazimentuko asko eman genituen", du gogoan Loli Ordokik. Amaia Azpiazuarekin ere egin zuen bat emanaldi baten baino gehiagotan: "Isilpeko edo hain agerikoa ez den lan asko egin ditu; izugarria. Partiturak bidali, gitarrarako moldatu, organokoak atera eta egokitu... Jose Azpiazukiren, Aita Madinakin lan pila bat egin du, eta hori eskertu beharko zaio beti". Ildo beretik mintzo zen Iñaki Olalde Kultura batzordeburua ere: "Herriari emanda-

OÑATIRI, EUSKAL MUSIKARI ETA EUSKALGINTZARI EGINDAKO EKARPENA ESKERTU DIOTE

ko pertsona zen; musikalki, zer esanik ez. Lan asko egindakoa: hainbat bilduma jasota, txukunduta... Askok egin zuen, bai".

Aita Mortararen gutunekin

Jose Azpiazu eta Aita Madina musikarien partiturak txukundu eta haien bildumak osatu eta erabilgarri izateko moduan jaso zituen Ugartek, adibidez. Ondo ezagutzen zuen agustindarren artxiboa, eta, hango dokumentu historikoen jakitun, haiek berreskuratzen pasatzen zituen ordu asko. "Ikerketa oso interesgarriak egin izan ditu agustindarren artxiboan dauden lanekin, partiturekin, baina baita beste hainbat gutunekin ere. Esaterako, hura zebilen aita Mortararen gutunekin"; Gerardo Elortzaren azalpena. Artixa elkarteke kide, "beti fin" ibili zen elkarteak egindako lanetan; Zubillaga auzoari buruzko liburua egiten, esaterako. Goienaren dei guztiak ere beti hartu zituen, eskuzabalik.

The Chevelles eta Ezpalak taldeak zapatuan gaztelekuan

Goiena komunitatea

Verduri Hall-Gaztelekua / Oñati

Rock kontzertu berezia egingo da zapatuan, 22:00etan, Verduri Hall-Gaztelekuan, The Chevelles australiarrekin eta Ezpalak zestoarrekin. Garage power-pop musika egiten dute lehenengoek; ehunka kontzertu eman dituzte eta hainbat disko grabatu. Rocka bere al-

daera guztietan jorratzen duen taldea da, berriz, Ezpalak. 2019an sortu zen eta estudioko hiru lan argitaratu dituzte orduetik. Sarrerek hamar euro balioko dute, aurrez erosita, Txokolateixan eta Udalaren webgunean; leihatilan, hamabi euro.

Bestalde, otsailaren 23an Oñatiko Sukena taldea eta Bego oiartzuarra zuzenean egongo dira gaztelekuan. Kontzertu horretarako sarrerek zortzi eurotan daude salgai ohiko tokitan.

'Bizkarsoro' filma, Korrika Kulturalako lehen ekitaldia

Oñatiko Korrika batzordea dabil lanean eta dagoeneko iragarri du *Bizkarsoro* filma ikusteko aukera egongo dela Oñatin otsaileko lehen asteburuan, Korrika Kulturalaren barruan. Otsailaren 2an, 3an, 4an eta 5ean eskainiko dute filma, zinema-aretoan. Gainera, zinemak ordutegi berria izango du asteburu horretan: zapatuan 19:30ean ere

egongo da emanaldia; eta domeka gauean, ez. Bide batez, datorren astelehenean, hilak 29, egingo dute Korrikako batzordearen hurrengo bilera. Herriko eragile eta norbanako guztiak daude gonbidatuta. Udal euskaltegian, 18:00etan.

Euskarari lotuta, bestalde, euskararen egoerari eta datuei buruzko hitzaldia egongo da hilaren 31n, zinema-aretoan. Iñaki Iurrebaso izango da, 18:00etan, Udalak eta Uemak antolatuta.

Ipuin kontaketa eta eskulanak ekarriko ditu Burrundak etzi

Domekan honetan, hilak 28, *Amelie eta Xirrikitu*en *Jostunek* ipuin kontaketa musikatua egongo da Antixena gaztetxean, 17:00etan hasita. Kontaketaren ostean, txokolate beroa banatuko dute eta eskulanak egiteko aukera izango da. 3 urtetik gorako hurrei zuzendutako ekin-tzak izango dira, Burrunda Faktoriaren eskutik.

Tailla ikastaroa hasiko dute otsailean Eltzian

Oñatiko Zizelkatzaileak elkarteak antolatuta, egurrean taillak egiteko ikastaroa egingo dute otsailetik aurrera. Otsailaren 7tik maiatzaren 29ra izango da, eguaztenetan, bi orduz, 14:45etik 16:45era edo 17:00etatik 19:00etara. Prezioak dira: langileek 60 euro, langabeek 40 euro eta bazkideek 50 euro. Izena emateko: zizelkatu@gmail.com.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganoso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Mikel Ruiz eta Jose Angel Idigoras, San Martin parkean. IÑIGO BARRENA

Lehengo eta oraingo atletismoa, gertutik bizi dutenen eskutik

Oñatiko atletismoan erreferente izan zen Luis Mari Samaniego korrikalaria aitzakia hartuta, Oñatiko atletismoaren orduko eta gaur egungo egoerari buruz berba egin du GOIENAK Jose Angel Idigoras korrikalari ohiarekin eta Mikel Ruiz atletarekin

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Luis Mari Samaniego erreferente bilakatu zen Oñatin, atletismoari eta Aloña Mendiri oso lotuta egon zelako urte luzez. Baina herriko izarretako bat izateaz gain, erreferente ere bilakatu zen oñatiarrentzat; Samaniegok egindakoek eta lortutakoek ateak zabaldu zizkieten herritarrei atletismoaren munduan murgiltzeko. Jose Angel Idigoras da bide hori hartu zuenetako bat; 31 urterekin jantzi zituen korrika egiteko zapatilak eta 45 urtera arte aritu zen lasterka, lesioek gelditzea eragin zioten arte; gogoan ditu Samaniego eta garai haiek. "Gu korrikalari herrikoiak ginen, eta gero, hura zegoen. Hura zen bakarra federatuta korrika egiten zuena, eta gogoan dut oso entrenamendu gogorrak egiten zituela. Gainera, kirol aukera

askorik ez zegoen herrian, eta, beraz, erreferente bihurtu zen guretzat", dio Idigoras. Gainera, anekdota bat ere ekarri du gogora: "Gogoan dut esaten zuela Arantzazutik Urbiara hoge minutuan igotzen zela; ikaragarria zen hori".

Mikel Ruiz gazteagoa da. Gaur egun murgilduta dago atletismo munduan, eta, nahiz eta Samaniego ezagutzeko aukerarik ez zuen izan, aitak esandakoak ondo gordetzen ditu buruan: "Aitak askotan hitz egin dit hari buruz, eta maila handiko kirolaria zela esan dit".

AMERIKARRAK OÑATIRA IRISTEAN EGIN ZUEN GORA KORRIKA EGITEKO ZALETASUNAK

Amerikarren garrantzia

Samaniego erreferente izan da Oñatiko atletismoaren historian, baina amerikarrak Oñatira iritsi zirenean piztu zen korrika egiteko sua. "1974. urtean etorri ziren gurera amerikarrak eta haiek ikustean iratzarri ginen gu", dio Idigoras. Haiek Oñatin atletismoarekiko zaletasuna indartu zuten, eta orduan "gorakada handia" izan zuela ere aitortu du. Horri esker, urte askoan zehar jende ugari aritu da Oñatin atletismoan. Gaur egun ere jarraitzen du amerikarrek utzitako arrastoak, baina arrastoa txikitzen ari da. "Garai haietan nobedade bezala ikusi zuten atletismoa, eta gorakada haren parte izan ziren gure gurasoak. Orditik gaur egunera asko jaitsi da atletismoa eta honekiko zaletasuna Oñatin", dio Ruizek.

Ohiturak asko aldatu dira

Duela 50 urtetik gaur egunera ohiturak asko aldatu dira, eta baita atletismoan ere, izan entrenamenduak, korrika egiteko materiala edo zaletasuna. "Lehen ez genituen orain dauden baliabide guztiak. Guk ustez zapatila onenak zirenak erosi eta korrika egitera joaten ginen", dio Idigoras. Haren lehen maratonia nolakoa izan zen ere ekarri du gogora, eta "urik edan gabe" egin zuela gogoratu du, gaur egun "pentsaezina" den zerbait. Lesioek korrika egiteari uztera eraman zuten Idigoras, eta hori materialaren eta prestakuntzarik ezaren ondorioa dira. "Miresgarria da nola ibiltzen ziren. Orain, egia da gaur egungo zapatilekin lesioak asko ekiditen direla eta entrenamenduak ere beste mota batekoak direla. Aitak ere askotan esaten dit zortea izango dugula urte luzez korrikan jarraitu ahal izango dugulako. Gainera, egiten den material guztia ondo begiratzen da ahalik eta emaitza onenak lortzeko. Ikusi besterik ez dago azken urteetan errekor asko hautsi direla", dio Ruizek.

Atletismoarekiko zaletasuna ere "asko" jaitsi dela diote, kirol eskaintza zabalak duela horren errua, eta, nola ez, horrek ere eragina du gazteak erakartzeko orduan. "Bakarkako kirola da eta horrek esfortzua eskatzen du. Orain, gazteek nahiago izaten dute taldeko kirolek jo,

baina beti dago bateren bat gustuko duena", aitortu du korrikalari oñatiarrak. Lehen, berriz, ez zegoen beste aukerarik. "Lehen, korrika egin edo futbolean jokatu, ez zegoen besterik", dio Idigoras.


Harrobia egitea, funtsezkoa

Gaur egungo egoerari buelta emateko "harrobia" lantzea funtsezkoa dela dio Ruizek, hura ere entrenatzaile aritzen baita: "Gazteak badaude, baina bultza baten beharra dago. Entrenatzaileak behar dira, eta atletismoko pista batek ere asko lagunduko luke eskola egiten. Gaur egun, gazteek Mondragon Unibertsitate ingurura edo hona, San Martinera, etorri beharra dute entrenatu ahal izateko, eta, eguraldi txarra bada, gimnasioan sartuta egiten dira. Era berean, badakit Udala lanean dabilela horretarako", adierazi du Ruizek. Idigoras ere bide bera jarraitu beharra dagoela uste du: "Kirol individuala da atletismoa; taldekako kirola balitz gazte gehiago etorriko lirakeke probatzera".

Oinarria sendotzeko pausoak eman behar dira, eta adibide gisa beste kirol batzuk jarri ditu Ruizek: "Igeriketan, esaterako, goizeko seietan joaten dira entrenatzera, taldetxoan. Atletismoan ere hori lortu beharra dago. Bosteko edo seiko talde bat lortuz gero, errazago animatuko lirakeke".

Luis Mari Samaniego, erreferente

Lantziegon (Araba) jaiotako, 1942. urtean, eta 70eko hamarkada erdialdera arte bizi izan zen Oñatin. Hermanos Maristas taldean ekin zion korrika egiteari, baina Oñatin bizi izan zen tartean Aloña Mendiko atletismo taldean aritu zen, federatu; herriarentzat erreferente bilakatu zen garai haietan. Aloña Mendin egoteaz gain, lliintxa eta Gimnastica de Ulia taldeetan ere aritu zen; bide horretan, Espainiako Kros Federazioen txapeldun izan zen, Gasteizera bizitzera joan aurretik, non hil arte bizi izan zen han. Gasteizen bizi izan zen garaian, La Blanca, Arabatxo eta Aurrera taldeetan aritu zen. Haren palmaresean dira, besteak beste, hamasei urrezko domina Espainiako Beteranoen Mailan; eta Europako Beteranoen Maila ere txapeldun izan zen 1992. urtean.



Luis Mari Samaniego. CLUB LA BLANCA



Realaren eta Osasunaren arteko derbirako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



**Egin
Goienakide
eta Reala
ikusteko aukera
izango duzu!**

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Osasuna norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida otsailaren 10ean, 16:15ean izango da. Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 4a.



Eserlekuak
Premium gunean



Catering
zerbitzua



Aldageletako tunelean
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu
pertsonalizatua



353 metro karratuko
gunea

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[™]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Yaman Diamante Mjahed Noga-lesek (Arrasate, 2002) lotailu gurutzatua hautsi zuen duela bederatzi hilabete. MMAko borrokalari arrasatearra WOWko txapelketan lehena zen rankingean, haren kategorian -61,2 kilo-, eta MMA profesionaletara jauzia emateko prestatzen ari zen zorigaiztoko lesioa iritsi zenean. Orain, errekupeazio luze baten ostean, zapatuan berragertuko da, Sorabox-ek Uarkapen antolatatu duen boxeo jaialdian. GOIENArekin izan da prozesu luze horri buruz berba egiteko. **Nola daude nerbioak berragerpererako?**

Hilabete gogorak izan dira. Urduritasuna baino gehiago, poz handia sentitzen dut, egoera gogor horri aurre egin diodalako eta gaintitza lortu dudalako. Kirolaria naiz eta %100 nago bizimodu horretan murgilduta; zure egunerokoa bat-batean kentzen dizutenean eta eskailerak ere bakarrik ezin dituztenean jaitsi, jota sentitzen zara. Egoerari aurre egiteko gai izan naiz, eta Jainkoari ere eskerrak ematen dizkiot lesionatu izanagatik. Nerbioak beti daude, baina horrek borroka hobeto presatzen laguntzen du.

Une oso onean zeunden lesioa iritsi zenean; kolpe gogorra izan zen? Hasieran sinetsi ezinik egon nintzen. Serbian jokatu zen Munduko Txapelketan nengoen. Lehenengo egunean irabaztea lortu nuen. Bigarrenean ere gauzak oso ondo egiten ari nintzen, baina gaizki zapaldu eta nahiz eta borrokaldia amaitu nuen, banekien belauna hautsita nuela. Nire ibilbideko momenturik onenean nengoen, eta, bat-batean, hormigoizko horma bat jarri zitzaidan aurrean: lesioa. Bi aste burumakur egin ostean, buruari buelta bat eman eta une hartan nengoen egoeratik eraikitzen hasi nintzen. Horregatik nago eskertuta lesionatu izanagatik, orain beste helburu batzuk ditudalako eta egoera hau pasatu izan ez banu ez nintzatekeelako gai izango aurrera egiteko.

Entrenamendu gisa erabiliko duzu zapatukoa. Martxoaren 2an, ordea, hitzordu garrantzitsua duzu.


Min hartu nuenean, WOWn nire kategorian lehenengo postuan nengoen rankingean. Lesioaren ondorioz, rankingetik atera egin ninduten, baina lehenengo postu hori mantenduz. Beste borro-

"Ez nago urduri, pozik baizik, egoera zaila gaintitu baitut"

YAMAN MJAHED MMA BORROKALARIA

BOXEOA Sorabox-ek antolatuta, borrokaldia egongo da bihar Uarkapen, 18:00etan.

Han izango da Yaman Mjahed; bederatzi hilabeteko lesioaren ostean berragertuko da



Yaman Mjahed bederatzi hilabeteren ostean itzuliko da lehiara. YAMAN MJAHED

kalari bat jarri zuten lehen postuan; beraz, martxoko borrokaldia lehenengoa lehenengoaren kontra izango da. Orduan ikusiko da zein den rankingeko benetako liderra.

Boxeo modalitatean arituko zara zapatuan; ez da ohikoa zuretzat. Berriz ring batera igotzeko beharra izango duzu, ezta?

Bai, noski; oso lehiakorra naiz. MMA lehiatu aurretik, borrokako beste modalitate batzuetan aritu izan naiz, eta aurretik lagunekin edozein kiroletan ere beti onena izan nahi nuen. Orduan, bat-batean lehia kentzen dizutenean, itzultzeko momentu horretan, txakur bat haragi zati baten aurrean lotuta edukitzea bezala da. Gainera, lehen aldian izango da boxeoan arituko naizena. Goiko kolpeetan ondo moldatzen naiz, eta prest ikusten dut neure burua zapaturako.

"AURKARIAREN AURKA BAINO GEHIAGO, NEURE BURUAREN AURKA BORROKATZEN NAIZ"

"DENA ONDO BIDEAN, LASTER MMA PROFESIONALETARAKO JAUZIA EMAN NAHI DUT"

Nolako aurkaria izango duzu aurrean?

Ez dakit askorik hari buruz. Badakit nafarra dela, eta ikusitakoarekin esan dezaket indartsua dirudiela. Dena dela, datorenerako prest nago. Ni ez naiz inoiz nire aurkariaren aurka borrokatzen, neure buruaren aurka borrokatzen naiz; helburua hori baita, beti neure burua gaintitza.

Azkenaldian, borroka-jaialdi batzuk egin dira gurean. Badirudi indarra hartzen ari dela...

Orokorrean, borroka-kiroletan gertatzen ari da. Duela urte batzuk lagun bati esaten nion kirol horiei denbora emanez gero gorakada handia izango zutela, eta gu bertan izango ginela. Boxeo betidanik izan da ezaguna, baina MMA oso jende gutxik ezagutzen zuen, eta orain gustuko dituzte kirol horiek. Pozgarria da hemen ere horrelakoak egitea.

Zapatuko eta martxoko borrokaldiak igarota, ze erronka dituzu aurretik?

Borroka horiek irabazi, eta ondoren, rankingeko lehen postua defendatzen jarraitu. Aurrerago, berriz, dena ondo bidean, MMA profesionaletarako jauzia eman nahiko nuke.

Hamar borrokaldiko jaialdia

Uarkapeko pilotalekua lepo beteko da bihar; izan ere, 700 bat sarrera salduko dira 18:00etan hasiko den jaialdirako. Guztira, hamar borrokaldi egongo dira, eta, tartean, hiru debagoiendar: Iker Davila, Ander Urrutia eta Yaman Mjhaed. Lehenak Jesus Garces izango du aurkari; Urrutiak Ixai Aurizekin neurtuko ditu indarrak; Mjhaed, berriz, Eric Catalan garaitzen saiatuko da.

Gainontzeko borrokaldiak hauek dira: Marko Sortino-Asier Andreu; Oihane Gravalos-Rakel Martinez; Mikel Lorentxo-Ander Torre; Robel Batista-Mario Sarmiento; Sekou San-Marcos; Maddy-Jon Idoate; eta Anaiz Olaeta-Leroy Serey.



Eskoriatzako atezain Jokin Salido, geldiketa egin guran. GOIENA

Bigarren itzulia hasteko, areto-futboleko derbia

ARETO-FUTBOLA Mondrate eta Eskoriatza taldeak dinamika onean helduko dira partidura –zapatua, 19:15, Manuel Muñoz kiroldegia–. Baina, dinamikak dinamika, bien artean hemeretzi puntuko aldea dago sailkapenean. Harmailak lepo beteko dira

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
Areto-futboleko Hirugarren Mailak bete du denboraldi erdia. Mondratek eta Eskoriatzak bigarren itzulia hasiko dute, egoera oso ezberdinean: arrasatearrak sailkapenaren goialdean eta eskoriatzarrak erditik beherako postuetan. Bada, hamaseigarren jardunaldian elkarren kontra jokatuko dute. Alegia, derbia egongo da zapatuan, Manuel Muñoz kiroldegian, 19:15ean. "Giro ederra egongo da harmailetan. Gure zaleek ez dute hutsik egingo, eta Mondraterenek edonoraino jarraitzen dute taldea. Beraz, lepo beteko dira harmailak", esan du Eskoriatzako kapitain Aratz Kortazarrek.

Elkar ezagutzen dute

Derbi guztiak bereziak izaten dira, eta teoriarik, sailkapenari begiratu gabe, berdinduak. Baina bi taldeek badakite zer ezaugarri dituen besteak. "Ez zuten denboraldia ondo hasi, baina bolada onean datoz. Es-

koriatzak talde sendoa dauka, jokalaririk gazteekin eta beterranoekin. Halako partiduetan oso adi egotea komeni izaten da. Detalleek erabaki dezakete derbia", esan du Mondrateko entrenatzaile Xabier Gorroño-Goitia.

Mondrate Hirugarren Mailako laugarren talderik golegileena da, eta hori ondo dakite Eskoriatzan. "Puntuek esaten dute nolako denboraldia egiten diharduten. Baina esango nuke bereziki eraso indartsua duela Mondratek. Gol asko sartzen dituzte, eta espazioa topatzen duten momentuan atera jaurtitzen dute. Adi egon beharko dugu", azpimarratu du Kortazarrek.

"DETAILEEK ERABAKI DEZAKETE DERBIA; OSO ADI EGOTEA KOMENI ZAIGU"

XABIER GORROÑOGOITIA, MONDRATE

Elkar ezagutzen dute

Lehen itzuliaren ostean, Eskoriatza hamabigarren postuan dago sailkapenean, hamabost punturekin. Azken bi lehiak irabazi ditu, baina, batez ere, denboraldi hasierako lehen bost porrotek markatu diete urtea. "Ezagutu dudana denboraldi hasiera txarra egin dugu, horrek dakarren guztiarekin. Baina talde izaera indartu egin dugu, eta bagoaz bidean aurrera", dio Kortazarrek.

Mondrateren egoera oso bestelakoa da: bigarren daude, 34 punturekin. Lehen lekua begiz jota dute. "Hori da erronka eta helburua: Antiguoko harrapatzea", esan du entrenatzaileak.

"ERASO INDARTSUA DAUKA MONDRATEK; GOL ASKO SARTZEN DITUZTE"

ARATZ KORTAZAR, ESKORIATZA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOR. ERREGIONALA

Amaikak Bat-Bergara
Dom. 16:30. Errotazar.

Lagun Onak-UDA

Dom. 15:30. Garmendipe.

OHOR. ERREGIO. EMAK.

Antiguoko-D. Bailara.

Dom. 12:15. Berio.

GORENGO MAILA

Soraluze-Mondra

Zap. 16:30. Ezozia.

Ikasberri-Aretxabaleta

Zap. 17:30. Garmendipe.

Aloña Mendi-

Anaitasuna

Dom. 16:30. Azkoagain.

Danena-Antzuola

Zap. 18:30. Elbarrena.

GAZTEAK, MAILA NAZ.

Alaves B-Bergara

Zap. 16:00. Jose Luis Compañon.

GAZTEAK EUSKAL LIGA

UDA-Romo

Dom. 16:30. Ibarra.

GIP. OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Aloña Mendi

Dom 15:30. Mojategi.

GAZTEAK, GORENGO

Aretxabal. B-Ilintxa

Zap. 15:30. Ibarra.

Bergara B-Urki B

Dom. 16:30. Agorrosin.

GAZTEAK, GORENGO

Aretxabal. B-Ilintxa

Zap. 15:30. Ibarra.

KADETEAK, GORENGO

Beasain-Aretxabaleta

Zap. 11:30. Igartza.

Urnieta-Bergara

Zap. 13:00. Urnieta.

Soraluze-Aloña Mendi

Dom. 11:00. Ezozia.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Eskoriatza-Mondrate

Zap. 19:15. M. Muñoz.

GIPUZKOAKO 1. MAILA

Coinb. Aloña (Atsed.)

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Eskoriatza-Mondrate

Zap. 17:00. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Fagor Profes.-Erromo

Zap. 18:00. Zubikoa

GIZ. GIPUZ. SENIOR.

Mugarri Ingou-Urnieta.

Zap. 18:00. Iturripe.

Soraluze BKE-Leizaran

Zap. 18:00. Labegarieta.

EMAK. GIPUZ. SENIOR.

Aloña Mendi (atsedena)

GAZTEAK, GIZONEZK.

Ordizia-Arrasate Ingou

Zap. 15:30. Majori.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Redline Mekanika
Dom. 18:30. Iturripe.

EUSKAD. LEHEN EMAK.

Askartza Claret-MU

Urtarrilaren 31n, 20:00.

Askartza.

EUSKAD. BIG. GIZON.

Biotz Aloña-Beotibar

Dom. 12:15. Zubikoa.

Araberri-Soraluze BKE

Zap. 16:30. Gasteiz.

EUSKAD. GAZTEAK

MU-Loiola Indautxu

Dom. 12:00. Musakola.

ERRUGBIA

SENIOR GIZONEZKOAK

Menditarrak-

Kanpazar ART

Zap. 16:00. Lekaroz.

BOXEOA

Boxeo gaua.

Sarrerak: aurrez erosita hamabost euro, eta egunean bertan 20.

Arrasateko Iluntz, Taupa eta Dublin tabernatan.

Zap. 18:00. Uarkape.



IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA Fagor Industrialek etxean jokatu du berriro

Euskadiko txapelketan diharduen Oñatiko taldeak Zubikoan jokatu du, bigarren astez jarraian –zapatua, 18:00–. Oraingoan, Erromoko taldea izango du kontrario. Muskizen aurka zelan galdu zuten kontuan hartuta –27-31 galdu zuen, atsedenaldirik 17-10 aurretik egon arren–, taldea minduta dago, baina egoerari buelta emateko gogotsu. "Gure esku egon zen garaipena, lehen zati oso on baten ostean. Baina epaileen erabaki batzuek min handia egin ziguten. Belaunaldi aldaketa daukagu taldean, eta eskarmentua falta zaigu. Ea bigarren itzulian gai garen itxura hobe emateko", esan du Ander Arrizabalaga entrenatzaileak.

SASKIBALOIA MUK garaipenaren bidetik jarraitu gura du

Mondragon Unibertsitateak berriro jokatu du etxean, oraingo asteburuan. Tolosako Redline Mekanika taldea izango dute nor baino nor gehiago Iturripen, domekan, 18:30ean. Santurtziren kontrako garaipenaren ostean, bide horretatik jarraitu gura dute arrasatearrek. "Garaipena behar genuen, moralki aurrera-pausoa emateko. Harrobiko jokalariek egindako lanarekin menderatu genuen Santurtzi", esan du Julen Berrocal entrenatzaileak.

Irabazten badu, sailkapeneko goiko postuetara begira jarriko da MU. Min hartutako jokalariek berreskuratuko dituzte Tolosaren kontra.

A. Aranburuzabala Juldain ARAMAIO Aramaioko Bertso Eskolako kide Aitor Ugarte, Danel Herrarte, Paula Amilburu, Peru Abarrategi, Mattin Abarrategi, Xabi Igoa eta Manex Agirre "gogotsu" daude "oso gustuko" duten txapelketako oholtzaren gainera igotzeko. 40 urte beteko dira aurten lehen txapelketa jokatu zenetik. Aurtengoa, 26. aldia da. Final laurdeneko hiru saio izango dira guztira; Izarran egingo dute lehenengoa, eta Oionen eta Laudion hurrenez-hurren beste biak; ondoren, Aramaion eta Dulantzian izango dira finalerdiak hurrenez-hurren, eta martxoaren 16an jokatu dute finala Gas-teizko Printzipal antzokian.

Irailean hasi ziren txapelketa begira prestaketa lanetan Aramaioko Bertso Eskolan, harrizkeroko astero batu dira, elkarrekin ariketak egin, bestelako arlo gehiago lantzeko eta elkarri babesa emateko. "Final laurdenean ditugun ariketak egin ditugu behin eta berriz, elkarri gaiak ipinita eta elkarri hobetzeko aholkuak emanda. Talde moduan funtzionatzen saiatzen gara eta uste dut hori dela arrakastaren bidea", dio Peru Abarrategik, eta zera gaineratu du Manex Agirrek: "Gure eskola ez da oso ortodoxoa beste batzuekin alderatuz, bada, txapelketarako prestaketa lanak ez dira entrenamendu teknikoak izaten soilik, elkarrekin egoteko eta kezak partekatzeko uneak ere bai".

Domekan, lau aramaiok

Aramaioko zarpikoteak etxeko lanak "ondo egin dituenaren sententziarekin" helduko diote txapelketari. Sei bertsolari izango dira domekan, Izarrako kultura etxeko oholtzaren gainera: Ekaitz Samaniego eta Eli Zal-

Gazteen presentzia handia duen Arabako Txapelketa, hasteko gertu

Domekan abiatuko dute Arabako Bertsolari Txapelketa, Izarran; hemezortzi bertsolari izango dira txapel berriaren bila lehian; horien artean, Aramaioko Bertso Eskolako zazpi kide; 'Bertsosarrerak.eus' atarian eros daiteke saio guztietarako sarrerak

duarekin batera, Aramaioko Peru Abarrategi, Aitor Ugarte, Paula Amilburu eta Danel Herrarte. "Beti gustatu izan zaidan txapelketa da Arabakoa, eta momentuz ez dago positiboa ez izateko motiborik. Bertsoan egiteko plaza politik izango direla uste dut, eta horretan saiatuko gara, ahalik eta gehien gozatzen eta ahalik eta gutxien sufritzen. 2022ko txapela irabazi izana ez dut presio moduan hartu gura, nahiz eta erosoago sentitzen naizen fokuan baino, tapatuago dagoen postuan" dio Peru Abarrategik.

Urduri dagoela dio Danel Herrartek: "Gabonak eta azterketak direla, bertso eskola batzuk egiteko gogoz harrapatu nau txapelketak, baina, aldi berean,

oso gogotsu nago. Ditudan sententziak ez dira txarrak, kanporaketetan izan nuen sententzia antzerakoa dut; beraz, domekan nerbioei aurre egin ahal izatea espero dut". Gogotsu dagoela dio alboan izango duen Aitor Ugartek ere: "Eskolako lau kide oholtzaren gainera egoteak babesa sentiarazten dit. Hiru final laurdenetik domekakoa izango da saio gazteena, eta horrek ere bere jokoa eman dezakeala uste dut". Paula Amilburuk ere aitortu du adrenalina puntua baduela, baina "ondo prestatuta" ikusten du bere burua.

Oionen eta Laudion

Otsailaren 4an Oiongo zinema-aretoan jokatu dute biga-

rren final laurdena, eta han izango dira Manex Agirre eta Xabi Igoa. "Beste urte batzuetan baino presentzia gutxiago dauka nigan txapelketak; hala ere, gogoz nago eta asko poztzen nau eta gogoa areagotzen zait, bertso eskolako gazteen jarrera eta gogoa ikusita", dio Igoak, eta zera gaineratu du Agirrek: "Plusia handia egiten dit Xabi Igoarekin batera oholtzaren gainera izateak, eta iruditzen zait ondo joango zaiola aurtengo txapelketa. Bestalde, Rikardo Gonzalez de Durana beteranoa izango dugu alboan, aspaldiko lagun Orlando Arreitunandia ere bai, eta baita aurrekoan egon ez zen Aroa Arrizubieta, nire ustez, finalerako hautagaietako bat

dena, eta seikotea borobilduko du Maddi Agirrek, txapelketako gazteena denak, baina plaza asko eginda oso indartsu datorrenak".

Asier Otamendi, Felipe Zelaia, Izar Mendiguren, Iñaki Viñaspere, Unai Anda eta Aramaioko ordezkari Martin Abarrategi izango dira hirugarren kanporaketan, Laudioko Kasinoan lehian: "Aste batzuk falta dira nire txanda heltzeko, baina ilusioz eta dena emateko gogotsu nago ni ere".

"Ezustekoz betetakoa"

Finalerako zerrenda aurreikus-tea zaila dela diote Aramaioko parte hartzaileek. "Orekatuta ikusten dut txapelketa; maila handiko bertsolariekin osatutako zerrenda da. Saiatuko gara bakoitzak ahal duen onena ematen", dio Peru Abarrategik, eta zera gaineratu du Martin anaiak: "Zelako txapelketa aterako den aurreikus-tea zaila da, eta horrek emozio puntua eta erakargarritasuna emango dio". Txapelketa "gogorra" izango dela aurreikus-ten du Manex Agirrek: "Gogorrak esan gura du interesantea. Hamazortzi lehiakideren artean denetariok gaude, beteranoak eta plazetan horrenbesteko esperientziarik ez daukatenak. Txapelketa potentia izango da; aurrekoak baino potenteagoa, nire ustez". Gaur egun Araban dagoen bertso-maila goraka doan adierazle dela gaineratu du Paula Amilburuk. Danel Herrartek, berriz, "berritasunez betetakoa"

"TALDE MODUAN FUNTZIONATZEA DA ARRAKASTAREN BIDEA"

PERU ABARRATEGI

"KANPORAKETETAN BIZI IZAN NITUEN SENTENTZIO ANTZERAKOAK DITUT"

DANEL UGARTE

"ARABAKO BERTSO MAILA IGOTZEN ARI DEN ERAKUSLE DA AURTENGOA"

PAULA AMILBURU

"OSO HETEROGENEOA IZANGO DA; BERTSOLARI OSO EZBERDINAK GAUDE"

AITOR UGARTE

EIDER MENDOZA

DIPUTATU NAGUSIA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'
URTARRILAREN 26AN, EGUBAKOITZA, 18:00, 20:00 ETA 22:00
GOIATZ ARANAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Gasteizko Printzipal antzokia 2022ko ekainaren 11n jokatu zuten finala. BERTSOZALE ELKARTEA

izango dela dio: "Txapelketa dotorea aterako da, eta ezustekoz betetako finala aurreikusten dut nik ere. Aramaioke kideak presente izango gara uste dut, baina sorpresa ematera datoz beste batzuk; beraz, guk gurea egin beharko dugu".

Garzeen presentzia azpimarratu dute, Aitor Ugartek eta Xabi Igoak, hurrez hurren. "Bertsolari gazte eta indartsuak daude aurtengo zerrendan. Nik bizi izan dudana txapelketa guztietatik maila altuena duena dela esango nuke, eta asko poztzen nau horrek, Arabarendako seinale ona da eta. Txapelketa oso heterogeneoa dela ikusten dut, hau da, perfil ezberdineko jendea dago eta bertso eta diskurtso

"GOGORRA BESTEKO INTERESGARRIA IZANGO DA HASTEAREN DAGOEN TXAPELKETA"

MANEX AGIRRE

ezberdinak entzun ahal izango direlakoan nago", dio Ugartek, eta zera gaineratu du Igoak: "Txapelketa polita izango da, gazte gogotsu asko dago eta saio ederrak izango direla uste dut".

Aramaioke eskola, "indartsu"

Nabarmentzeko datua da hamazortzi lehiakideetatik zazpi Aramaiokeak direla; urte askoan egindako lanaren seinale. "Oso adierazgarria da kopurua, baina, hori ahaztu barik, gure eskolako taldearen trinkotasuna azpimarratuko nuke. Harreman oso estua dugu, talde heterogeneoa gara estiloa eta adina aintzat hartuta, baina oso talde gara", dio Manex Agirrek, eta zera gaineratu du

"GAZTE GOGOTSU ASKO DAGO; BERTSO SAIO EDERRAK IZANGO DIRA"

XABI IGOA

Peru Abarrategik: "Arabako beste toki askotan bertsolariak zailagoa dute elkarrekin entrenatzeko; gu, alde horretatik, pribilegiatuak gara. Ederra litzateke Aramaion bertsolariaren jarraipen hori ziurtatzea, eta horretan dihardugu lanean".

Gai-jartzaileak eta epaileak

Bertsolariez gain, txapelketako beste alor batzuetan ere badira Debagoienekoak: beste urte batzuetan moduan, gai-jartzaile lanetan jardungo du Lierni Altona aramaioarrak; eta bertsolarien lana epaitzeko bete-beherra izango dute Iker Elexpuru herrikideak eta Aretxabaletako Mikel Arroiabek.

"EMOZIO ETA EZUSTEKO HANDIKO TXAPELKETA IZATEA AURREIKUSTEN DUT"

MARTIN ABARRATEGI

Hamazazpigarren Huhezinema jaialdiko sari banaketa gaur

Arkupe kultura etxean egingo dute azken ekitaldia, 19:30ean hasita; eta publiko guztientzako zabalik dago

A.A.J. ARETXABALETA

Eguaztenean hasi eta gaur, egu-bakoitza, bitartean ari dira MUko Ikus-entzunezko Fakultateak antolatutako Huhezinema jaialdia egiten. Hiru egunetan zehar, askotariko euskarazko film la-

burrak eta bestelako ikus-entzunezkoak erakutsi dituzte pantaila handian, eta, horrez gain, zinemagile profesionalen hitzaldi "interesgarriak" eskaini ere bai: "Paul Urkijo zuzendaria oso eskuzabala izan zen,

bizipen pertsonal eta interesgarri asko kontatu zituen; Ogeita-4ko Mattin Aierbek ikasleen arreta piztu zuen kamerak egoki erabiltzeko eman zituen aholkuekin; eta Asier Renteriak soinuari buruzko azalpen politik eman zizkigun".

Kepa Errasti Aretxabaletako aktoreak aurkeztuta, sari banaketa ekitaldia egingo dute gaur, 19:30ean hasita, jaialdia borbiltzeko, eta luntxa eta DJ Rosamariren emanaldia izango dira, segidan.

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua
SPC e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook

EROSKI
ARRASATE



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIKO OBIKAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harrermandenda.org
Bidezko Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean arloan egingo da zozketa. Inbentario dagoen DVD 15/1000 lehen saria jokatzen dugu, zuzen zuzeneko Goiena Forumeko Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten bidez. Datu biltegizkoan lehiakidearen indararen dagoen sustapena goienakideen Eskualdeko ego-ikuz dagoen arte, lehiakidearen izena ez dago. Lehiakidearen izena goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 30



GOIENAKIDE Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



2024KO GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Etxea erosiko nuke Arrasaten. 3 logeladun etxea erosiko nuke Arrasaten. 653 70 84 09

104. ERRENTAN HARTU

Arrasaten pisu bila. Arrasaten pisu bila dabilen hiru kideko familia bat gara. Bi edo hiru logeladun etxea errentan hartuko genuke. Lan kontratua daukagu. 680 87 38 66 edo 603 45 04 13

Etxea errentan hartu Oñatin. Oñatin pisu bila dabilen familia bat gara. 624 80 45 98 edo 664 34 77 98

Pisu bila Arrasate edo Bergaran. Arrasate edo Bergaran 2 logeladun pisua errentan hartuko nuke. Lanpostu finkoa dut. 645 72 92 87

Pisu bila Debagoienan. Errentan hartuko nuke pisu bat Debagoienan. 672 96 37 99

3. LOKALAK

301. SALDU

Trastelekua salgai Bergaran. Trastelekua salgai Bergarako Zubiaurre 3an, behe solairuan. Tamaina: 3,5 x 1 x 3,5 metro. 605 72 38 97

4. LANA

402. ESKAERAK

Debagoiena. Goiz, arratsalde eta gauetan, orduka, lan egingo nuke. Ume zein nagusiak zaindu eta etxeen garbiketa egiteko prest. Neska gazte eta arduratsua naiz, esperientzia askoduna. Telefonoa: 672 78 04 30

Arrasate eta Oñati. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut eta astelehenetik ostiralera bitartean lanaldi osoa lan egingo nuke. 603 51 80 00 edo 631 70 57 63

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Astelehenetik ostiralera, 9:30etatik aurrera pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak eta legezko agiriak ditut. Telefonoa: 689 50 70 54

Arrasate. Astean zehar, asteburuetan eta gauetan orduka lan egingo nuke. Garbiketa lanak egingo nituzke, baita nagusiak zaindu eta konpainia egin ere. 634 94 30 78

Arrasate. Ekipo arinen mekaniko bezala lan egingo nuke. Esperientzia duen gizon zintzo eta langilea naiz. Telefonoa: 632 41 21 47

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsua eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

Arrasate. Pertsona nagusiak zaindu, konpainia egin edo pasiatzera ateratzeko gertu. Garbiketa lanak egingo nituzke etxe zein bulegoetan. Esperientzia asko duen emakumea naiz. Goizetan lan egiteko prest. Telefonoa: 651 02 03 14

Arrasate. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Soziosanitario ikasketak ditut. Orduka lan egingo nuke. 696 84 19 51

Bergara. Emakumezkoa prest nautsiak zaindu, garbiketa lanak, etab egiteko. Astelehenetik ostiralera zein asteburuetan lan egingo nuke. Telefonoa: 666 07 42 98

Debagoiena. Astelehenetik ostiralera garbiketa lanetarako, edo etxeetan pertsonak zaintzeko gertu nago. Lanaldi osoa edo orduka lan egin dezaket astelehenetik ostiralera bitartean. Soziosanitario titulua dut. Erreferentzia ezinhobeak ditut. Telefonoa: 641 10 95 67

Debagoiena. Atari, lokal, taberna, enpresa eta baserrien garbiketarako egingo nituzke, baita banatzaile lanak ere. Kotxea dut. Telefonoa: 645 72 92 87

Debagoiena. Dendan lan egiteko, zerbitzari gisa edota sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. 687 08 45 52

Debagoiena. Egoizetan, supermerkatuetan zein enpresetan lanaldi osoa edo orduka lan egingo nuke. Nagusien zaintzan esperientzia dut. Orga maneiatzeko hainbat titulu ditut. 631 98 15 50

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Legezko agiriak ditut. Soziosanitario tituluduna. 677 00 90 26

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaindu eta ospitalean zaintzak egiteko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Malgutasuna, astelehenetik ostiralera zein asteburuetan. Interesa duzenok, deitu

BANATZAILEAK ESKORIATZAN

Goienak banatzailea behar du Eskoriatzan Goiena eta Puntua aldiakariak banatzeko.

Autoa izatea beharrezkoa da.

Interesatuok deitu edo idatzi::

943 25 05 05 edo

harpidetza@goiena.eus

zenbaki honetara. Telefonoa: 666 07 42 98

Debagoiena. Emakumea prest larunbat eta igandetan nagusiak zaindu zein garbiketa lanak egiteko. 641 44 16 30

Debagoiena. Esperientziadun emakumea orduka eta gauetan lan egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut, baita legezko agiriak egunera ere. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 691 28 53 25

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo arropa-garbigietan lan egiteko prest dagoen emakumea. Malgutasun osoa dut. 644 47 06 49 edo 688 71 08 09

Debagoiena. Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuok deitu telefono honetara: 697 86 49 00

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Garbiketa lanak egin, nagusiak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. 602 08 14 92

Debagoiena. Gizonezkoa astelehenetik ostiralera eta asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, edo eta garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 614 14 83 47

Debagoiena. Gizonezkoa prest nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin... Astelehenetik ostiralera eta asteburuetan ere prest 603 12 18 44

Debagoiena. Goizetan, zaintzan edo garbiketetan lan egiteko prest nago. 651 96 78 69

Debagoiena. Neska arduratsua garbiketa lanak egiteko prest. Telefonoa: 632 32 70 13

Debagoiena. Neska atsegina, umeak eta nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Malgutasun osoa. 687 45 91 76

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Malgutasun osoa ordutegi aldetik, bai astean zehar baita asteburuetan ere. 602 64 68 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest nago. Magutasun osoa. 613 11 92 98

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke etxe zein ospitalean. Orduka lan egiteko prest nago. Soziosanitario titulua dut eta behar izanez gero, gomendiozko gutuna. 647 31 48 17

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Eskola partikularrak Arrasaten. DBH 2-ko ikasle batek ingeleseko eta matematikako eskola partikularrak behar ditu Arrasaten. 669 11 28 94

Eskola partikularrak jaso Arrasaten. 4.DBHko Arrasateko mutil bati klase partikularrak emateko pertsona bat behar dugu, ahalik eta azkarren. Deitu 605 75 46 99 telefono zenbakira.

Klase partikularrak jaso Oñatin. Babilergoko lehenengo mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrak behar ditu Oñatin, ahalik eta azkarren. 656 75 38 26

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katua etxe berri baten bila. Etxean katua eta txakurra batera edukitzeak sortzen dizkidan buruhausteak direla eta, 4 urteko katuari beste etxe bat aurkitzeko behar nago. Europearra, arra, 4 kilo ditu. Oso lasaia, ez du atximurkarik egiten. Zikratua (kastratua), albaitariko kartillarekin eta txertatua (Leucofeligen). Katuarekin batera, metalezko are-kubxa, transporting-a, katilua eta beste hainbat tresna emango dira hala nahi izanez gero. 653 71 53 57

8. DENETARIK

806. GALDU

Belarritako bat galdu da Bergaran. 2023ko abenduaren 2. hamabostaldian edo, urrezkoa den eta oso gogoko dugun belarritako bat galdu zen Bergarako alde zahar inguruan. Saritu egingo da. Telefonoa: 660 68 71 24

URTEURRENA



Jose Luis Lazkano Goitia



2023ko urtarrilaren 27an hil zen, 77 urte zituela.

Beti bihotzean.

Emaztea eta alaba.
Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 26an.

URTEURRENA

Mari Carmen Martin Martinez



'Carmina'

2017ko urtarrilaren 23an hil zen, 60 urte zituela.

Beti gure bihotzean.


Etxekoak.
Aretxabaletan, 2024ko urtarrilaren 26an.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



EIDER MENDOZARI ELKARRIZKETA
Gipuzkoako diputatu nagusia elkarrizketatuko du Goiatz Arana kazetariak.

'Hemen Debagoiena'
Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



GARAZI ABASOLO EZAGUTZEN
Aretxabaletako korrikalari eta nutrizionistarekin egingo du berba Mireia Bikuñak.

'Luzapena' Eguena, 18:00, 20:00 eta 22:00.



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti
inmobiliaria

Bergara:
Masterreka,
75m² erabilgarri, 3
logela eta egingo
dekorazioarekin.
135.000€



Bergara: Zubiaurre,
61m² erabilgarri,
2 logela, balkoia
eta argi natural
askorekin.
120.000€

Burdiñate: Kalegoi,
65m² erabilgarri, 2
logela, igogailua,
trastelekua,
bizitzera sartzeko.
175.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



OROIGARRIA

Rafael Iturbe Bergaretxe



2024ko urtarrilaren 20an hil zen, Castro Urdialesen (Kantabria), 83 urte zituela.

Emaztea: Begoña Cotarelo Gil; seme-alabak: Garbiñe eta Fran Marcos, Ander (†); anai-arrebak: Juan Antonio eta Ana Mari Laskurain, Maite eta Luis Zubia (†); ezkon anai-arrebak: Jose Antonio Cotarelo eta Esther Villanueva; lobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

—
Gogoan izango zaitugu beti.

Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 26an.

OROIGARRIA



Jesus Mari Zabaleta Arrue

'Tximist'



2024ko urtarrilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

Nahiz eta agur esan, beti izango zara gure artean.

—

Zure lagunak: Joxe eta Telbi, Otxen eta Mari Jose, Jose Mari eta Sole, Ina eta Pili, Fernando eta Maikar, Nikolas eta Itziar, Josu eta Edurne eta Agurtzane.

Bergaran, 2024ko urtarrilaren 26an.

OROIGARRIA



Idoia Albizu Ceciaga




2023ko urtarrilaren 27an hil zen, 55 urte zituela.


*Beti izango zaitugu gure bihotzean.
Bidean elkartuko gara.
Eskerrik asko zure argiagatik.*

Etxekoak.
Bergaran, 2024ko urtarrilaren 26an.

OROIGARRIA



Eugenio Zubia Gastañaga



2024ko urtarrilaren 20an hil zen, 64 urte zituela.

*Zure umoreak zenbat momentu alaitu dizkigun.
Beti izango zaitugu gogoan.*

Aramaioko lagunak partetik.
Oñatin, 2024ko urtarrilaren 26an.

OROIGARRIA

Elo Altzelai Ugarte

Enrike Leteren alarguna



2024ko urtarrilaren 18an hil zen.

*Elo, lankide eta adiskide maitea:
Betirako gure bihotzetan egongo zara.
Zuk ereindakoa ikastolan gelditzen da.*



Txantxiku Ikastolako zure lankide eta lagunak.
Oñatin, 2024ko urtarrilaren 26an.

OROIGARRIA



Elo Altzelai Ugarte

Enrike Leteren alarguna



2024ko urtarrilaren 18an hil zen.

*Elo, lagun maitea. Zenbat momentu eder pasa ditugun elkarrekin!
Gaur begiak malkotan!
Zeure bizitzeko indarrak jarraituko du geure bihotzetan.*

Kafeko lagunak.
Oñatin, 2024ko urtarrilaren 26an.

ESKER ONA



Beñat Lete Txintxurreta



2024ko urtarrilaren 17an hil zen, 44 urte zituela.


Zu beldur zinen maitasuna zeuk asmatutako poema bat besterik ez ote zen izango, baina zaude ziur zu benetan maitatua izan zarela

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko urtarrilaren 26an.

ESKER ONA



Elo Altzelai Ugarte

Enrike Leteren alarguna



2024ko urtarrilaren 18an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko urtarrilaren 26an.

ESKER ONA

Ixiar Munitxa Larrea

Jose Mari Uribarren Leturiagaren alarguna



2024ko urtarrilaren 19an hil zen, 88 urte zituela.


Gure bihotzetan betiko.

—


Eskerrik asko egunotan babesa, maitasuna eta gertutasuna erakutsi dituzuen guztioi, bai eta hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi ere. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 26an.

ESKER ONA



Tomas Alzola Murua



2024ko urtarrilaren 21ean hil zen, 100 urte zituela.

Betirako bizi zara, eta zarelako gara.


—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 26an.

ESKER ONA

Xabier Ugarte Aiastui



2024ko urtarrilaren 20an hil zen, 70 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa, gertutasuna eta maitasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko urtarrilaren 26an.

BABESLEA

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei eseren bidez aurkitzen lagunduz diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik bereenak gogon izan dituen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • MOYUA OÑATI



ZORION AGURRAK



OÑATI
Jakes Aramendi Perez
Urtarrilaren 27an, 8 urte. Zorionak, politt hori! 8 urtetzar ederki ospatuko! Mila muxu hemendik eta ilargiraino!



BERGARA
Eneko Gantxegi Gallastegi
27an, 13 urte. Zorionak, Txapeldun! Jarraitu orain arte bezala. Patxo pillia ebekoen partetik, Oier eta Markelen partetik bereziki.



BERGARA
Iker Murillo Pose
Urtarrilaren 25an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran pasa zure eguna, maite zaitugu!



ARRASATE
Nora Hormaetxe Iriarte
Urtarrilaren 22an, 5 urte. Zorionak, gure pitusiaa! Zure irrifarreak egunero altza gaitzala!



ARRASATE
Jare Arriaran Ugalde
Urtarrilaren 21an, urtebete. Zorionak, Jare! Urtebete bazterrak alaitzen! Jarraitu deigun maitia. Laztan handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
Nile Hernandez Lopez
Urtarrilaren 18an, 5 urte. Zorionak, Nile! Maite zaitugu. Besarkada handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
Alaine Da Silva Moreno
Urtarrilaren 26an, 10 urte. Zorionak, maitxia! Disfrutau zure egunaz eta jarraitxu holako neska jatorra eta alaia izaten. Maite zaitxugu.



BERGARA
Josu Bilbao
Urtarrilak 29an, 6 urte. Zorionak eta muxu asko etxekoen partetik!



BERGARA
Ihintza Arejolaleiba Larrañaga
Urtarrilak 28an, 2 urte. Zorionak! Aitita eta amaman partetik, patxo potolo bat!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 26

ARETXABALETA Huhezinema
15:00etan, 16:30etan eta 18:10etan, Sail Ofizialaren hiru proiektzioak; eta 19:30etan, sari banaketa ekitaldia. *Arkupen.*

ELGETA Bigarren eskuko mozorro azoka
Mozorroak trukatzeko, saltzeko edo oparitzeko aukera. *Mendizaleen plazan, 16:30etan.*

ARRASATE Dantzaldia
Portaloi Elkartearen eskutik. Irekia. *Kulturolan, 18:30etan.*

LEINTZ GATZAGA Korrika batzordearen batzarra
Aurrera begirakoak lantzeko. *Eskolan, 19:00etan.*

ARRASATE San Baleixo jaiak
19:30etan, Aitor Tatiegi eta Ane Zuazubiskar bertsolariekin poteoa; eta 22:30etan, mus txapelketa. *Meatzerrekan.*

BERGARA Fly Shit eta Brot Bord taldeak
Diskoak aurkeztuko dituzte. Sarrerak, zortzi euro. *Kartzela zaharrea, 22:00etan.*

ZAPATUA 27

OÑATI Emakumion Etxia eraikitzen: parte-hartze prozesua
Mahai gainean egongo diren gaiak: etxea nork, nola eta zertarako erabiliko duen. Zuzeneko itzulpen zerbitzua egongo da. *Eltzian, 10:00etan.*

ARRASATE Zuzeneko elkarrizketa Jon Ander Etxebarriari
Askatasuna eta Gizarte Eskubideen Aldeko Herri Plataformaren eskutik. *Kulturaten, 10:30etan.*

OÑATI III. Guda Zelaia
11:00etan, hitzaldi-solasaldia Santa Anan; 13:00etan, Katarsiaren kontzertu akustikoa Boga aurreko plazan; 14:00etan, bazkaria eta bakarrizketa saioak; eta 18:00etan,

antzerki emanaldia; ostean, bertso-poteoa, Maider Arregi, Martin Abarrategi eta Aroa Arrizubietarekin; eta 22:30etan, Katu eta Kaparrak taldea gaztetxean. *Oñatin.*

OÑATI Arrasate Musikako Txistulari Banda
Juan Karlos Larreategik zuzenduta. *Santa Ana antzokian, 12:00etan.*

ARRASATE San Baleixo jaiak
14:30etan, auzo-bazkaria; 17:00etan, poneyak; 18:30etan, txokolate-jana umeendako eta gazteendako; eta 21:00etan, Oihu eta Hankaz Gora taldeak. *Meatzerrekan.*

ARRASATE Boxeo txapelketa
Sarrerak: aurrez erosita hamabost euro eta egunean bertan 20. Arrasateko Iluntz, Taupa eta Dublin tabernetan. *Uarkape pilotalekuan, 18:00etan.*

ARRASATE Olinpiadak
Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ESKORIATZA Dantzaldia: Javi Sound
Pasodobleak, balsak, rantxerak... *Zaldibarren, 18:30etan.*

BERGARA 'Postdatarik gabeko gutunak' antzezlan
Xake Produzioen lana, Nerea Ariznabarreta eta Kepa Errasti aktoreekin. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

OÑATI The Chevelles eta Ezpalak taldeak
Sarrerak: aurrez hamar euro eta leihatilan hamabi. *Gaztelekuan, 22:00etan.*

BERGARA Belako eta JMartina
Sarrerak, zortzi euro. *Kartzela zaharrea, 22:30etan.*

DOMEKA 28

OÑATI Gazteluaitzera irteera
Arantzazuko Sindika ostatu aurretik irten eta Bellotzatik bueltatu. *Arantzazun, 09:00etan.*

BERGARA Txistulari Bandaren kalejira
Uberan egingo dute. *Uberan, 10:00etan.*

BERGARA Zuhaitz landatzea
Herriar guztiendako. *San Martzialen, 10:30etan.*

ARRASATE San Baleixo jaiak
10:45etan, meza auzoko ermitan, Gesalibar eta Garagartzako koruak lagunduta; 12:00etan, Lore Gazteak taldearen dantza emanaldia; 13:15etan, dantzariendako luntxa; eta 14:30etan, amaiera. *Meatzerrekan.*

ARRASATE Familia-meza
Katekesi familiarrean parte hartzen dutenendako. *Parrokian, 11:00etan.*

ESKORIATZA Zuhaitz Eguna
2023an jaio ziren haurren izenean landatuko dituzte. *Ibarraundi museoan, 11:00etan.*

ESKORIATZA 'Trantsizioak erasoan eta horien ezaugarriak' hitzaldia
Areto-futbolearen aurkariari eraso egitean kontuan hartu beharreko zenbait azalpen emango ditu Imanol Arregi entrenatzaileak. Debalde, aretoa bete arte. *Ibarraundi museoan, 12:00etan.*

ESKORIATZA Euskal Herriko mus txapelketa
Herriko kanporaketa jokatu dute. *Inkernu tabernan, 16:00etan.*

ANTZUOLA Euskal Herriko mus txapelketa
Herriko kanporaketa jokatu dute. *Arin tabernan, 16:30etan.*

OÑATI 'Ameli eta Xikirriku jostunak' ipuin kontaketa musikatu
Burrunda Faktoriak antolatuta. Ondoren, eskulanak umeendako. *Gaztetxean, 17:00etan.*

ESKORIATZA 'Azken festa' antzezlan
Tomax eta Muxiren agur ikuskizuna. Ibilbidearen errepasoa egingo dute. Sarrerak, hiru euro. *Zaldibar antzokian, 17:00etan.*



TITZINA

ARRASATE **Familian Jolasean**
0-8 urte arteko seme-alabak
dituzten familiendako.
Okendoko ludoteka, Arrasate
17:30etan

ESKORIATZA **'Mi relación con la comida'** hitzaldia
Lurdes Martinezek egingo du berba.
Ibarraundi museoa, 18:00etan.

ARRASATE **'Buho'** antzezlan
Titzina taldearen lana, iktusa jasan
ostean oroitzenak
berreskuratzeko bideari buruz,
Diego Lorca eta Pako Merino
aktoreekin. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ARRASATE **'Buho'** antzezlan
Titzina taldearen lana, iktusa jasan ostean oroitzenak
berreskuratzeko bideari buruz, Diego Lorca eta Pako Merino
aktoreekin. Sarrerak, hamar euro.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 29

ARRASATE **'Salud global: El desafío frente a la amenaza medioambiental'** hitzaldia
EHUko Farmaziako doktore eta
katedradun Gorka Orivek egingo du
berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA **Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatuko dituzte
Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta
Bergaran.
Herri horietan, 12:00etan.

ANTZUOLA **Hilerriaren gaineko gogoeta**
Bigarren tailerra egingo dute. Gaur
da izena emateko azken eguna: 644
12 60 91.
Olaran etxean, 18:00etan.

OÑATI **Korrikako batzarra**
Aurrera begirakoak zehazteko.
Irekia.
Euskaltegia, 18:00etan.

ESKORIATZA **Korrikako batzarra**
Aurrera begirakoak zehazteko.
Irekia
Kultura etxean, 18:00etan.

MARTITZENA 30

ARRASATE **Ate irekiak Usaetxe ludotekan**
Buztin tailerra egingo dute.
Usaetxen, 17:00etan.

ARRASATE **'Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa'** erakusketa
Askotariko argazkiak ikusteko
aukera. Bilduma ikusgai egongo da
otsailaren 2ra arte.
Kulturaten, 17:00etan.

ARRASATE **Literatura solasaldia ingelesez**
Cranford telesailari buruzko saioa.
Kulturaten, 18:00etan.

ARAMAIO **'Convivir sanamente con la soledad'** hitzaldia
Joana Diaz de Aldak egingo du
berba.
Kultura etxean, 18:00etan.

ELGETA **Mendiko bazkidetza eta federazio txartela**
Kantsatzeke mendi elkartearen
eskutik, urtarrileko martitzenetan.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARAMAIO **Korrikako batzarra**
Aurrera begirakoak zehazteko.
Irekia.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI **'Gazteluaitzen garaia: estatu nafarraren goren'** hitzaldia
Iñaki Sagredok egingo du berba,
Nabarralderen Historia
Hamabostaldiaren barruan.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE **'Aire'** dokumentala
Gentzane Martinez de Osaba
zuzendariaren lana ikusteko aukera.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 31

OÑATI **'Comer bien: salud, bienestar y calidad de vida'** hitzaldia
Silvia Zuluagak egingo du berba,
Goienagusik gonbidatuta.
Santa Ana antzokian, 10:00etan.

ARRASATE **'Kuku, non nago?'** ipuin kontaketa
Lupe Lekuonarekin, 3-4 urte arteko
haurrendako.
Santa Marinaran, 18:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El maestro que prometió el mar
Zapatua eta
astelehena: 19:30.
Doraemon: Nobitaren dinosauro berria
Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Llego a mi
Domeka eta
astelehena: 19:30.
The Marvels
Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Los que se quedan
Egubakoitzetik
zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30,
22:00.
Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA

ARKUPE

El viejo roble
Egubakoitzetik
22:00.
Zapatua eta
domeka: 19:30.
Astelehena:
16:00.

Migrazioa: bidaia ahazteztina
Zapatua eta
domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Anatomía de una caída
Egubakoitzetik
domeka: 18:30,
21:00.
Astelehena: 19:15.
Eguaztana eta
eguna: 16:45,
19:15.

Robot dreams
Zapatua eta
domeka: 12:00.

Wish: el poder de los deseos
Zapatua eta
domeka: 12:00.

Wonka
Egubakoitzetik
astelehenera
egunera: 17:00.
Zapatua eta
domeka: 12:00,
17:00.

El correo
Egubakoitzetik
domeka: 16:30,
21:30.

Astelehena,
eguaztana eta
eguna: 17:00.
Martitzena: 17:00,
19:15.

Falle leaves
Egubakoitzetik
domeka: 20:15.
Astelehenera
egunera: 16:45.

La zona de interés
Egubakoitzetik
domeka: 16:45,
19:00.
Astelehenera
egunera: 17:00.

Los que se quedan
Egubakoitzetik
domeka: 21:45.
Astelehena eta
martitzena: 17:00.

El arca de Noe
Egubakoitzetik
16:30.
Zapatua eta
domeka: 12:00,
16:30.

ARRASATE **Literatura solasaldia gaztekeraz**
Luisa Carnes idazlearen *Tea rooms*
liburuaren gaineko saioa.
Kulturaten, 18:00etan.

ARAMAIO **Ganaduzaleekin bilera**
Datuak jaso eta egungo arazoak
partekatuko dituzte.
Udaletxean, 18:00etan.

BERGARA **Eguaztenetako azoka**
Herriko baserritarren garaiko
produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ELGETA **Astro-topaketa**
Ilatargi elkartearen gidaritzapean.
Liburutegian, 18:30etan.

BERGARA **'Fallen leaves'** pelikula

Jatorrizko bertsiotan eta
azpittuluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 1

ARRASATE **Ate irekiak Santa Marinako ludotekan**
Txapa tailerra egingo dute.
Santa Marinako ludotekan,
17:00etan.

ARETXABALETA **Korrikako batzarra**
Aurrera begirakoak zehazteko.
Irekia.
Udaletxe zaharrean, 18:00etan.

BERGARA **Taula periodikoari buruzko erakusketa**
Gaur zabalduko dute unibertsoa
azaltzen duten elementuen gaineko
erakusketa. Ikusgai egongo da
martxoaren 31ra arte.
Seminarixoa, 18:00etan.

ANTZUOLA **Irakurle Taldea**
Xabier Mendiguren idazlearen *Oso latza izan da* liburuaren gaineko
saioa, idazleak berak gidatuta.
Liburutegian, 18:00etan.

ANTZUOLA **Costa Bravara bidaia: batzarra**
Landatxoek maiatzaren 10etik
17ra egingo duen bidaiaren gaineko
azalpenak emango ditu Eroski
Bidaiak agentziako arduradunak.
Landatxopen, 18:00etan.

ARAMAIO **Santa Agedako entsegua**
Santa Ageda batzea otsailaren 3an
egingo duten Santa Ageda
batzerako entsegua.
Musika Etxean, 19:00etan.

ARRASATE **Kooltur Ostegunak: Les Lullies**
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 2

ARRASATE **Ate irekiak Okendoko ludotekan**
Sukaldaritza tailerra egingo dute.
Okendoko ludotekan, 17:00etan.

BERGARA **'Hona bostekoa!' erakusketa**
Gaur zabalduko dute komiki
erakusketa. Ikusgai egongo da
hilaren 16ra arte.
Aroztegin, 18:00etan.

OÑATI **'Bizkarsoro' filma**
Josu Martinezek zuzendutako
fikziozko pelikula, euskarazko
azpittuluekin, Korrika Kulturalaren
baitan. Sarrerak, bost euro.
Zinema-aretoa, 22:00etan.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Elo

Denbora igaro ahala, konturatzen naiz gero eta gehiago estimatzen dudala aurreikusitako edo ezarritako gidoitik – noizbehinka bada ere– ateratzeko gaitasuna, ausardia edo eskuzabaltasuna izate hori; izan lan munduan, bikotean, politikan, eskolan...

Gainera, esango nuke ume nintzenetik presente izan dudana zerbait dela hori. Izan ere, haurtzaroan, norbera txiki delarik, inguru guztia ikusten da handi, ezezagun... Eta egoera horretan, ustez ezereza diren zenbait keinu txiki sarritan handi egiten dira txikien begietara.

Nork ez du gogoan haurtzaroan modu batera edo bestera arrastotxo utzi zion pertsona hori; izan laguna, lankidea, irakaslea...

Nik badut nire oroitzapen kuttunen kutxan gordea dudana bat: andereño Elo. Oso umeak ginen ikastolako garai haietan –5 edo 6 urte?–, baina urte asko igaro arren ondo gogoan ditut gurekin izan zituen zenbait detaile txiki, bere eskuzabaltasuna eta goxotasuna ageri-agerian uzten dutenak.

Gure oroitzapen txikietan presente izango zaitugu. Lurra goxo har zaitzala, andereño Elo.

BUKATZEKO



Aroztegi aretoako erakusketan ikusgai dauden hainbat argazki. ARIZONDO ARGAZKIZALE ELKARTEA

36 begirada bederatzi kameraren atzean

Arizondo Argazkizale Elkarteak antolatutako argazki erakusketak atean ireki ditu Bergarako Aroztegi aretoan. Bederatzi argazkilariren 36 argazki aurkeztu dituzte; nork bere estilo propioan "sakondu" du, eta askotariko gaiak plazaratu dituzte

Miren Arana Pagaldai BERGARA
Arizondo Argazkizale Elkarteak bederatzi kideren 36 argazki osaturiko erakusketa ireki dute Bergarako Aroztegi aretoan. Juan Antonio Unzurrunzaga, Eduardo Rodriguez, Alexander Molano, Iker Agirregomezkorta, Iñaki Zabala, Joseba Leturia, Jose Luis Irazabal, Miguel Angel Inclan eta Juanjo Lopezen ar-

gazkiak dira, hain zuzen, erakusketan aurkeztutakoak.

Paisaiak, erretratuak, eraikinak eta beste islatzen dituzte kolektiboko kideen argazkiek, eta, Alexander Molanok azaldu duenez, askotariko gaiak izateak egin du erakusketa "polit": "Argazkilaria bakoitzak bere gaia aurkeztu eta bere estilo propioan sakondu du; horri esker, era-

kusketan gai asko ikusi daitezke. Izan ere, bakoitzak mundua ikusten duen moduan atera du argazkia. Kolektiboko argazki erakusketa polita gelditu zaigu horrela".

"Uraren bibrazioen bitartez emozioak azaldu ditut", dio argazkilariak. Molanok erakustaldirako aukeratutako argazkiak "salbuespentzat" hartzen ditu;

izan ere, erretratuak ateratzen ibili ohi da: "Pertsonak ezagutzea gustatzen zait, haiekin egon eta ingurua ezagutzea; erretratuak atera ohi ditut, eta salbuespena da oraingoa. Hasieratik argi neukan erakutsi behar nuena; urak dituen bibrazio eta testurak aurkeztea zen nire asmoa, eta horiek lau emozioekin lotu ditut: beldurra, frustrazioa, in-trospekzioa eta oreka".

Hasiera baino ez

Urteari erakusketa horrekin eman diote hasiera argazkilariek, baina aurreragorako ere badi-tuzte ohiko zenbait proiektu buruan. "Kolektiboan 21 pertso-na gara, eta astero egiten ditugu batzarrak aretoan, urtea anto-latzeke. Izan ere, lehiaketak, Bergara Hiriko argazki erakus-keta eta lehiaketa, oraingoa bezalako erakusketak eta herri-tarrentzako tailerrak ere anto-latzen ditugu, argazkilaritzaren eta edizioaren gaineko tailerrak", argitu du Arizondo Argazkiza-leko kideak.

Esker oneko hitzak

Hilaren 28a arte egongo da era-kusketa ikusgai Aroztegi aretoan; herritarrentzako atea zabalik egongo dira asteartetik ostira-lera 18:00etatik eta 20:30era eta zapatuetan 12:00etatik eta 14:00etara eta arratsalde 18:00-etatik eta 20:30era. Bergaran dagoen argazkilaritzarekiko zaletasuna dela eta, erakusketa ikustera jende asko joan ohi dela aitortu du Alexander Mo-lanok, eta, hain zuzen ere, oso eskertuta dago: "Beti animatzen da jendea; argazkilaritza asko gustatzen zaie herritarrei, eta pila bat eskertzen diegu etortzea".

'DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK'

HIBAI GARAI, MOTORZALEA ETA ABENTURAZALEA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'

URTARRILAREN 30EAN, MARTITZENA, 18:00, 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

